

NAFARROAKO  
ESKOLA  
KONTSEILUA  
CONSEJO  
ESCOLAR  
DE NAVARRA

Monografia

# Hezkuntza eta espazioa 2018



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra



Nafarroako Eskola Kontseilua  
Hezkuntzako Batzorde Nagusia  
Consejo Escolar de Navarra  
Junta Superior de Educación

**Titulua**

Hezkuntza eta espazioa 2018

**Kontseiluaren idazkaritza:**

M<sup>a</sup> Cruz Planchuelo Aranguren

Ana Reclusa Burgui

Oihane Valderrama Erburu

Lan hau Aitortu – Partekatu Berdin 4.0 Nazioarteko Baimen baten mende dago.

Iturria aipatzeko: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Eskola Kontseilua

**Azalaren diseinua**

Verónica Vallejo

**Jardunaldien argazkiak**

Erik Aldaz

Jokin Aranzueque

**Maketazioa**

José Joaquín Lizaur

**Inprimaketa**

Gráficas Castuera

LG: NA 1374-2018

ISBN: 978-84-235-3489-0

**Sustapena eta banaketa**

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtza

Navas de Tolosa k. 21

31001 Iruña

Telefonoa: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

# Aurkibidea

## Aurkezpenak

- 9 María Roncesvalles Solana Arana. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Kontseilaria.
- 11 Aitor Etxarte Berezibar. Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria.

## Hitzaldiak

- 15 Habitatzean heztea. Clara Eslava Cabanellas.
- 27 Hezkuntza eta hiria. Ianire de Andrés Olabarria, Ula Iruretagoiena Busturia.
- 41 Jolastoki biziak. Eskola birnaturalizatzeko aukera. Heike Freire Rodríguez.

## Ekarpenak

- 49 Sarrigurengo lorategi tematikoa. Hermanas Úriz Pi HLHIP, Sarriguren. Eva Blanco de Miguel.
- 55 Auzotik ibiltzeko ideiak. Mendillorriko Haur Eskola, Iruña. Concha Gaztelu Albero.
- 63 Gure ingurunea habitatzea. San Francisco HLHIP, Iruña. Haur Hezkuntzako lantaldea.
- 71 Espazio publikoa haurren erabileran txertatzea: Zizur Nagusiko bi adibide. José Javier Esparza Unsain.
- 75 Hezkuntza partekatu baterantz murrak suntsituz. Hijas de Jesús Ikastetxea, Iruña. Diego Ezcaray Echalecu, Javier Martínez Baigorri.
- 81 Espazioak habitatzea. García Galdeano HLHIP, Iruña. Miguel Cosme Echeverría.
- 87 Nafarroako Etorkizuneko Ikasgela. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua. Elena Osés Urteaga.
- 93 Jolastokia eraberritu. Bernart Etxepare HLHIP, Iruña. Mikel Larraza Arbizu.
- 99 Askatasun giroak haurren garapenerako. Mendigoiti HLHIP, Iruña. Ane Arribillaga Sagastibeltza.
- 107 Txantrea Hegoaldea eta Takonera, parkeak birpentsatu. Iruñeko Udala. Mikel Baztán Carrera.
- 111 Espazioaren eta hezkuntzaren arteko beharrezko intersektzioa. Tximeleta Eskola, Iruña. Carmen Urpí Guercia, Maider Itoiz Oroz.
- 119 Eraberritze metodologikoa eta BES ikasgela. San Ignacio Ikastetxea, Iruña. Alejandro Rodríguez Vázquez.
- 125 Ikasgela Inklusiboa proiektua 2016-2017. San Miguel HLHIP, Noain. Félix Jiménez Sánchez.
- 133 Zientziaren berrikuntzatik hezkuntzaren berrikuntzara. Elkarlanean oinarritutako hezkuntzatik, hiri osasungarri eta segurua eraikitzea. RESPIRA proiektua. María Isabel Gómez Jiménez.
- 141 Haurtzaroko lurraldeak. Villatuerta. Asier Urra Ripa.

# Aurkezpena

María Roncesvalles Solana Arana  
Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Kontseilaria

“Hezkuntza eta espazioa” da Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2018ko jardunaldien izenburua, espazioaren arkitekturak hezkuntza proiektuaren arrakastan zeresan handia baitauka.

Gaian gehiegi sakondu gabe, nahiko nuke Hezkuntza Departamentua legegintzaldi hasieratik garatzen ari den erronkaz zertzelada batzuk aurkeztea, ikastetxeen eraikuntza eredua egokitzea eta proiektu horien oinarrian ikasleak eta irakaskuntza metodologia berriak bateratu ahal izateko helburuz ari baikara lanean.

Duela gutxi irakurri nuen espazioaren arkitekturak hezkuntza proiektuaren arrakastari lagunduko diola; Finlandiako hezkuntzari buruzko artikulu bat zen, Helsinkin duela 3 urte hezkuntzaren eta espazio publikoaren inguruan antolatutako solasaldi bati buruzkoa. Bertan, Europako hainbat herrialdetako arkitektoak eta gizarte-zientzialariak bildu ziren. Solasaldi horretan, gogoeta egin nahi zen eskolaren eraginkortasuna bultzatuko duten espazio erabilgarri eta harmoniatsuak sortzeko beharraz eta horiek hezkuntzarekiko errespetu-iturri izateaz.

Hezkuntza Departamentuak, hain zuzen, legegintzaldi honetatik egin dio aurre zentzuen eraikuntza-ereduaren aldaketa garrantzitsuari, eta bi ardatz nagusitan laburbiltzen da hori.

Alde batetik, klima-aldaketarekin sensibilizaturik, irakaskuntza-espazio berriak energetikoki eraginkorrak izatea eta baliabide energetikoen kontsumoa ahalik eta txikiena izatea nahi du Departamentuak. Horrenbestez, 2016. urtetik aurrera, arkitektura-proiektuen lizitazioek eraikuntza mota horiek aurreikusten dituzte, passivhaus eraikuntza-estandarrekin. Isolamendu termiko handia, infiltrazioen kontrol zorrotza eta kalitate goreneko barne-airea duten eraikuntzak dira horiek, eta eguzki-energia aprobetxatzen dute girotze hobea lortze aldera, kontsumo energetikoa murrizteko helburuarekin. Hartara, Erronkari IP eta Iparralde DBHI eraikinak proiektatu dira, eta idazketa-prozesuan daude Arbizu IP eta beste erakin batzuk.

Bestalde, metodologia aktiboak bultzatzeko, Hezkuntza Departamentuak arkitektura-eskema berriak proposatu ditu, irakaskuntza-kontzeptu berri hauei erantzun moldaeraza eman ahal izateko, adibidez, Arbizu IPren kasuan. Horrez gain, hezkuntza-teknologiak gelan txertatu nahi ditu, eta zentro guztiak banda zabaleko konexioekin hornitu, zentroko behar guztientzako datu-fluxu nahikoa ahalbidetzeko. Teknologia berriak etorkizunerako apustua dira, eta hausnarketa sakona eskatzen dute beste hezkuntza-baliabide batzuekin integratzeko.

Gainera, ikastetxe oro eraikitzen hasteko unetik bertatik, irakaskuntza-eraikinen biltzan parte hartzen duten eragile guztien elkarrekintza bilatzen du Hezkuntza Departamentuak: ikastetxearen zuzendaritza, gurasoak (Guraso Elkarteen bitartez), udalak, hainbat kolektibo (jantoki osasungarriak, ikastetxeetan zerbitzuak ematen dituzten enpresak...) eta arloko Hezkuntza Saileko arduradunak, ideia garatuko duten profesional, arkitekto eta ingeniariekin batera.

Jardunaldi hauek agertoki ezin hobea dira espazioaren inguruko sentsibilitate guztiak aurkezteko. Hezkuntza-etapa guztietako irakaskuntza jaso behar du espazioak, eta jardunaldiak, bere horretan, baliabide pedagogiko bat gehiago izan behar dira.

Azken hiru urteetan, Hezkuntza Departamentuaren inbertsioak esponentzialki egin du gora, bai zentro berrien eraikuntzari dagokionez, bai dagoeneko eraiki diren zentroyen mantentze-lanei eta ekipamenduari dagokienez.

Horren bitartez, Sail honetako higiezinaren parkeak dituen behar ugari erantzuten saiatzen da. Gogora dezagun, XIX. mendeko eraikinak daudela oraindik ere, garai horretako egiturarekin eta beharrekin, edo udalarekin eta/edo herriko tabernarekin eraikina partekatzen dutenak, udalerriren batean gertatzen den bezala. Adibide horiek agerian uzten dute zer magnitudeko lana egin behar den Nafarroako irakaskuntza-arloko higiezinaren parkea eraldatzeko. Gaur egun, 246 zentro daude, honako hauek, hain zuzen:

- Haur eta Lehen Hezkuntzako 172 ikastetxe.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko 49 ikastetxe.
- Lanbide Heziketako 12 ikastetxe.
- 2 Arte-eskola.
- Hezkuntza Bereziko 2 ikastetxe.
- 3 Musika-eskola (1 Tuteran).
- Helduen Hezkuntzako 3 ikastetxe.
- 3 Hizkuntza-eskola.

Argi daukagu, bada, eraikin berrien konfigurazioak eta izango dituzten espazioek bizi dugun unearekin bat egin behar dutela, erabilera anitzeko espazioak behar baititugu, unean uneko beharrazanez egokien erantzun ahal izateko.

# Aurkezpena

Aitor Etxarte Berezibar

Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria

*“Ikuspegi eta alderdi ugariaren aldi bereko presentzian du oinarria esfera publikoaren errealitateak. Mundu komun bat aurkezten da horietan, baina ezinezkoa da horretarako neurri edo izendatzaile komunik asmatzea”.*

Hannah Arendt

Espazioa eta denbora bi kategoria desberdin, lineal eta ageriko zirela erakutsi ziguten. Espazioa hilik zegoela ematen zuen, finkoa zela, ez dialektikoa; denbora, ordea, dinamikoa eta emankorra zen. Egunero egiaztatzen dugu bereizketa hori gezurra dela.

Gizarte bakoitzak ekoizpenerako, erreprodukzioarako eta adierazpenerako bere espazioa sortzen duela ikasi dugu, alegia, espazio sozialak jarduketa sozialak eta subjektu kolektibo eta indibidualen ekintzak barne hartzen dituela; ez dago espazio-denbora bakar bat, baizik eta elkar gurutzatzen diren eta elkarren ondoan jarritako asko eta asko.

Henri Lefebvrek aztertu zuen hori guztia, eta espazioaren eta denboraren arteko erlazio konplexua fluxuen dinamikaren antzekotzat jotzen zuen, hostopil itxura emanez.

Hala, espazioaren eta denboraren errealitatea ez da mugatzen, noizbait xaloki uste dugun bezala, bi dimentsioko plano batera edo lehen-orain-gero sekuentzia batera. Horrek karikatura bihurtzen du edozein ingurune habitaturen errealitatea, besteak beste, eskola batena eta horren ingurunearena.

Gaia aztertzen hasten garenean ohartzten gara leku bakoitzean etengabe josten diren jarduerak bestelako berri ematen digutela.

Adidibez, haurra gaur egun ezin da hirian, edo herrian, bere kabuz mugitu. Ikastetxera, eskolaz kanpoko jardueretara edo etxera, gero eta gehiago, kotxean doa edo heldu baten laguntzarekin. Haurrak ezin du kalean jolastu, ezin da zaintzailearen bistatik aldentu. Txikia denean plazetako eskorta itxi eta mugatuetan ari da zambiluan edo txirristan. Edo etxean, ongi gordeta, pantailetan kateatua. Familia bazkarietan edo ospakizunetan, gero eta gehiago, bestelako mahaian jaten du, bere adinekoekin, bigarren mailako azukre eta

gatz jaki bereziekin. Bizitzaren pasarte nagusietatik kanpo da, ez du hurbilekoen jaiotza edo heriotza ezagutzen, jaietan haur-txokoetara bideratzen da.

Pierre Bourdieu bere ikerketen zati handi bat eskaini zion modernitatea definitzen duten eta gizarte-instituzioak eta bizi-ohiturak egituratzen dituzten dikotomien analisiari. Besteak beste, honako hauek aipatzen zituen: negozioa/sentimendua, industria/arte, ekonomia/askatasuna, kanpoaldea/barnealdea, lana/etxebizitza, maskulinoa/femeninoa edo lanegunak/jaiegunak.

Eta eskoletan? Bere baitan, ezinbestean eta borondatez, ematen diren funtzioak historikoki bereiztu dira: ikastea/jolastea, lana/aisialdia, mugikortasuna/gelditasuna, isiltasuna/zalaparta, bakardadea/lagunartea. Eta funtzio bakoitzari espazio zehatza egokitzen zaio dikotomiak errepikatuz: eskola ala kalea, gela ala patioa, kanpoa ala barrua.

Aurreko guztia hostopilaren ukazioa da. Gure artean inoiz baino haur eta nerabe guxtiago direnean, jendartetik baztertuagoak dira, espazio eta jarduera segregatuetan, inoiz baino zelatatuagoak.

Puntu honetara helduta, funtzioen eta espazio-denboraren bereizketa hau eskola berritzeko joera askoren kezka klasiko bat izan dela aipatu behar da. Hainbat galdera garrantzitsu egiten dituzte horiek guztiek: norena da eskola? Zer hiritan habitatu nahi dugu? Nola bizi gaitzke gure ibai eta mendietatik hurbilago? Nork kudeatzen ditu elikadura eta zaintza? Zer leku hartzen dute txikienek espazio publikoetan?

Gizarteak gero eta gehiago eskatzen du eredu aktiboan, inklusiboan eta lankidetzan oinarritutakoen arabera hezkuntza-proiektuak sortzea eta, ondorioz, hezkuntza-komunitate, erakunde administratibo eta hezkuntza-erakunde askoren agendetan lehentasun bihurtu dira.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren "Hezkuntza eta espazioa" Jardunaldiak testuinguru honetan kokatzen dira. Jardunaldi hauek familia, irakasle, profesional, eragile sozial eta udal arduradunei zuzendu dira.

Jardunaldien diseinua behin betiko fasean abiarazi zen aditu talde zabal baten erata. Talde hori bost hilabetez aritu da ardatz telematikoak, hitzaldien gaiak eta jardueren metodologia zehazten. Ezinbestekoa da pertsona horiek esparru hain anitzetatik garatutako lana aitortzea: Hezkuntza Departamentua, arkitektura, soziologia, toki administrazioak, espazioak eraldatzeko proiektuak dituzten ikastetxeen zuzendaritzak edo artea.

Aurreko adituen laguntzarekin, hezkuntza komunitatetik eta komunitatera hausnarketak ekartzea bilatu dute jardunaldiek. Helburu nagusiak izan dira hezkuntza eta espazioen arteko loturak aztertzea, hezkuntza espazioen eta kontestuen praktika onen ereduak definitzea, Nafarroako hezkuntza sisteman espazioarekiko eskola esperientzia esanguratsua partekatzea eta jendarteari eta hurbileko eragileei esperientziak jakinaraztea.

Gure Jardunaldietan ohikoa den moduan, hasierako saio itxia egin da adituen taldearekin eta parte hartu duten solaskideekin. Goizeko saio berezi honek, joera ireki eta teknikoa izaten du eta aldi berean, emanaldi publikoen abiapuntu egokia izaten da.

Arratsaldeko saio publiko guztietan parte hartzeko, izena emateko bi aukera zabaldu ziren: Departamentuaren bidez 120 plaza irakasleentzat akreditazioari lotuak eta 60 plaza bestelako profila (guraso, arkitekto, zinegotzi eta beste) zuten pertsona interesatuentzat Eskola Kontseiluaren bidez. Toki guztiak bete egin ziren.

Kontseiluak antolatzen dituen jarduera publikoetan zeinu-hizkuntzara aldibereko itzulpena egin da eta saio batean eskaini egin da aldibereko itzulpena euskaratik gaztelaniara.

Lehendabiziko saioan, martxoaren 5ean, Hezkuntza Kontseilari María Solana Arana eta Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakari Aitor Etxarte Berezibaren aurkezpenek Jardunaldiei irekiera publikoa eman zioten. Ondoren, Heike Freirek, haurtzaroan eta hezkuntza berrikuntzetan aditua, "Hezkuntza eta naturari" buruzko hitzaldia eskaini zuen. Martxoaren 6an, Clara Eslava arkitektoak, "Hezkuntza eta arkitekturari" buruzko hitzaldia eskaini du. Eta martxoaren 7an, Ianire de Andrés eta Ula Iruretagoiena arkitektoek "Hezkuntza eta hiririari" buruzko hitzaldia eman dute.

Horrela, adituen parte hartzea izan dugu, eta hitzaldi nagusien bidez, hiru ardatzak landu dituzte. Elkar gurutzatzen diren arren, bereizi egin ditugu: hezkuntza eta natura, hezkuntza eta arkitektura, hezkuntza eta hiria.

Hiru egunetan praktiken aurkezpenak egin dira. Nafarroako hezkuntza sisteman alor honetan esperientzia interesgarriak dira. Ezin izan ditugu guztiak erakutsi eta Hezkuntza Departamentuak urtero "Berrikuntza Proiektuen" deialdian aurkeztu diren proposamenak lehenetsi ditugu. Gauzak horrela, zuzeneko emanaldietan ezagutu ditugu ikastetxe hauek: Sarrigurengo Hermanas Úriz Pi IP, Iruñeko Mendillorri Haur Eskola, San Francisco IP, Hijas de Jesús ikastetxea, García Galdeano IP, Bernart Etxepare IP, Mendigoiti IP. Bestelako esparruetatik hiru proiektu zabaldu ziren: Iruñeko udalak gauzatuko dituen bi parke publikoak, Zizur Nagusiaren bide seguruak eta eskolen jolastoki berria eta Hezkuntza Departamentuaren Etorbizuneko Ikasgelaren proiektua.

Eskola Kontseiluaren Jardunaldiak ekarpen akademikoen eta frogatutako esperientzien arteko elkarrizketa bilatzen dute. Esku artean dugun gaia ekimen multzo bat sortzen ari da. Ekimen horiek hainbat jatorri izan dituzte (klastroak, familiak, udalak edo ikerketa-taldeak), baina hezkuntzaren ikuspegi zabalago batera bideratutako garapenak ere. Horren guztiaren adibide aparta eskaini da saio publikoetan, irakasle taldeen eta garapean dauden proiektuak ezagutarazteko pertsona gonbidatuen lanari esker.

Topaketa hauen lanaren itxiera gauzatzeko partaide guztiei inkesta bat bidali zaie beraien esperientzi eta iritziak ezagutzeko. Eskolako Kontseiluak martxan jartzen duen birtarteko honekin bere Jardunaldietara datozen pertsona guztiei lehen mailako bidea eskaini nahi die. Jaso diren edukiak bildu eta lotu ditugu eta monografian atal esanguratsua dira. Modu bikaina, gainerako ekarpen guztiekin batera, ebaluazio eta proposamenen mapa orokorra osatzeko.

Baina Jardunaldi hauek ere bestelako proposamen arrakastatsua bideratu du: bisitaldi gidatuak. Apirilean zehar Jardunaldietan parte hartu duten ikastetxeetara bisitaldiak antolatu dira. Eskola Kontseiluaren bidez interesa duten pertsona taldeak osatu dira, 25eko tamaina birtarte, eta tokiz-tokiko zuzendaritza taldeen ardurapean. Horrela, apirilaren 11an aukera izan da bertatik ezagutzeko Sarrigurengo Hermanas Úriz Pi IP, Iruñeko Bernart Etxepare IP eta Zizur Nagusiaren proiektua; apirilaren 18an Iruñeko San Francisco IP, San Ignacio ikastetxea eta Noingo San Miguel IP; eta apirilaren 25ean Iruñeko Mendigoiti IP, Hijas de Jesús ikastetxea eta García Galdeano IP.

Finean, Nafarroako Eskola Kontseiluak zorrotz eta zehatz landu nahi izan du hezkuntza aktibo, inklusibo eta lankidetzazkoaren eta hezkuntza-espazioen arteko harremanaren



gaia, hau da, eskolak eta beren inguruneak. Faktore hauen arteko lotura estuak kezka nahiz ilusioa sortzen ditu. Edward Caseyk oso egokia den ideia bat definitu du: "Bizitzea leku zehatz batean bizitzea da eta ezagutzea, batez ere, norbera bizi den lekuak ezagutzea da". Lekua, halaber, gure mundu-ikuskeraren funtsa da.

Horrenbestez, hezkuntzaren eta espazioaren inguruko jardunaldi hauetan, W. Benjaminen gogoeta bikain bati heldu diogu: "Haurra gai da helduak inola ere egin ezin duen zerbait egiteko; berria dena berriz ere deskubritu dezake". Deskubrimendu horrek esanahi sinbolikoa ematen die objektuei zein espazioei, eta, hala, memoria kolektiboak horien adiera utopiko bat berreskuratzen du.

Jardunaldietan, hasieratik azpimarratu den moduan, pertsona eta erakunde askoren lana ezinbestekoa izan da. Zuzeneko aurkezpenetan eta bisitaldietan protagonistak diren irakasle, arkitekto eta gainerako adituak gogoan ditugu. Baita, nola ez, Hezkuntza Departamentuko Azpiegituren Zerbitzua, Prestakuntza Atala, CERMIN, Eunete, itzultzaileak, Corellako eta Iruñeko Arte Eskoletako ikasleak eta Nafarroako Museoko arduradun eta langileak. Guztientzat gure begirune eta esker ona.

Espero dezagun, hori dugu bizilege, ekintzen bidez ideiak aldatzea eta ideien aldaketak, aldi berean, ekintza berriak sortzea. Espazioak eta denborak birpentsatuko dituzten eskolak behar ditugu, guztientzako lekuak eta aukerak sortzeko, hostopil on bat bezain konplexuak eta gozagarriak.

# Habitatzean heztea

Clara Eslava Cabanellas  
Arkitektoa, hezkuntzan aditua  
cec@eaaestudio.com

*“Habitatzen ditugun lekua gara.”<sup>1</sup>*

Zortziak dira, esnatu, ametsetatik irten eta izarek ematen diguten babes leuna uzteko ordua; goizero betetzen dugu estalkiaren metamorfosiaren presakako errituala, pijama alkandora bihurtzen da etxetik eskolarako bidean. Atea itxi eta oinez hasten gara, lo edo esna, habitatzen ditugun lekuen artean alde batetik bestera garamatzaten ekintza txikien segida batean. Egunero esploratzen, ibiltzen, deskubritzen, ahazten, gorrotatzen edo gozatzen ditugu gure bizitzako momentuak; eta haietako bat, garrantzi handikoa, eskola da.

Gako-hitzak: haurtzaroa, habitatu, tokiak, diziplinartekoa.

## I. [haurren ‘lekua’ eta horren esanahia] · [lekuaren esanahia haurtzaroan]

*“Habitata eraikitzea berezko jarduera da subjektuarentzat, eta, ondorioz, alienaezina: ekina ez da aukerakoa, norbanakoa komunitateko partaide gisa garatzeko baldintzetako bat baizik.”<sup>2</sup>*

### Haurren lekua eta horren esanahia

Lagunarteko zenbait esamoldek agerian uzten dute helduek haurrei inposatu ohi izan diegun lekua. Gela bat esleitzen diegu, ikasgela, lerrokatutako ikasmahaiz arautua, aulki bana eman eta *egon geldi* aginduta; haurrak *beren lekuan* egotea nahi dugu. Edo atso-

1 Yvonne Buchholzek egindako elkarrizketa batean, José Antonio Corraliza psikologoak azaltzen du Ingurumen Psikologiaren aztergaia naturak gizakion psikean duen eragina dela. *Mente y cerebro*, ISSN 1695-0887, 54 zk., 2012, 14-15 orr. (<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3910951>).

2 CHAVES N., *El diseño invisible. Siete lecciones sobre la intervención culta en el hábitat humano*, Bartzelona, Paidós, 2005, 43. orr.



titzak dioen bezala: “Umeak, isilik oiloak pixa egin arte”. Leku horien ezaugarri dira hauek: aztarna gabetasuna, erretikularen homogeneousutasuna, gizarte industrialen berzko ekoizpen eraginkortasuna bilatzea eta helduek antolatutako kontrol-sistema.

Haurrentzat berariaz zehaztutako lekua hurren ahotsak edo jolasak sumatzen ez diren hura da; hau da, presentzia absentzia dena. Nahiz eta gaur egun jardunbide horiek askok zalantzan jarri, bizi izan dugun hezkuntza sakon errotuta dago gure kulturaren, norbanakoaren eta kolektiboaren. Askoren iritzian, premiazkoa da haurrei entzutea lekua eraldatzeko garaian, baina hezkuntza sistemen inertzia alimalekoa da oraindik, eta errealitatea, konplexua eta askotarikoa.

*Haurren lekuaz* hitz egitean, modu kritikoan birpentsatu behar dugu helduok haurrei zer rol eman diegun. Hala, haiengan konfiantza izango dugu, eta entzun egingo diegu, eta lagundu, beren lekuaren eta denboraren adiera eraiki dezaten, bi dimentsiook, azken batean, banaezinak baitira.

### **Lekuaren esanahia haurtzaroan**

Hala, lekua haurtzaroan duen esanahia aztertuta, hurren ahotsak, mugimenduak eta begiradak aditu eta beren lekua eta momentuak deskubrituko ditugu, beren nortasun desberdinak modu bizian eta etengabean birzehaztuz. Zein da hurren denbora/lekua? Zein denbora/leku esleitzen diegu helduok?

Jakin badakigu denboraren/lekuaren zentzua funtsezkoa dela haurtzaroan, *bitartekoa* bera baita *helburua*, eta prozesua bera, emaitza. Ingurunea esploratzeak eta ulertzeak lorpen motorrak, emozionalak, kognitiboak eta abar dakartza. Esperientziak eta harremanak eraikitzen dira munduarekin, eta mundua bera eraldaketaren xede da.

Haurrek espazioan duten esperientzia aztertzean, ezinezkoa da esperientzia hori gorputzetik eta lorpen motorretatik banatzea, adibidez, lurzoru esploratzean, bertikaltasuna konkistatzean, ibitzean eta egotean... Ekintza horiek guztiek habitatzeko dugun lekuan irmo errotzen gaituzte.

Espazioa zein objektuak, espazio horretako gauzak, funtsezko eragileak dira jolasean eta eraldaketa sinbolikoan; horien iruditeria ukiezin askearen euskarri ukigarria dira. Espazio fisikoa ingurunea ezagutzeko moduen euskarri ere bada, izan ere, gai gara lurralde



Hiru haur, ingurune naturala kulturalki habitatzen; galtzada erromatar bat eraikitzea jolasten ari dira.  
Irudia © Clara Eslava

batean orientatzeko, eremua neurtzeko edo lurralde horren mapak egiteko, seinale esanguratsuenak kode konplexuetan erregistratuta.

Hala, lekuak haurtzaroan duen esanahian murgilduko gara, eta haurren bizi bulkadaren (barnatasuna) eta beren lekuen etengabeko eraldaketaren (kanpokotasuna) arteko lotura iraunkorra deskubrituko dugu. Haurrek emozionalki inplikatzeko gaituzte, babes, aurkikuntza eta mehatxu gisa ulertuta. Denborak eta lekuak dira gure babes, emantzipazio edo esplorazio erlazio barnekoenen koordinatu zehatzak.

## II. [hezkuntzaren ‘lekua’ eta horren esanahia] · [lekuaren esanahia hezkuntzan]

*Habitata eraikitzea gizarteratze-jarduera bat da, eta hizkuntzaren antzeko hierarkia du. Izaera estruktural eta, horrenbestez, ekidinezin hori agerian geratzen da hizkuntzak “habitatu” eta “bizi” kontzeptuak berdintzen dituenean: “non bizi zara?” galdetzen dugu “zer leku habitatzen duzu?” adierazteko.<sup>3</sup>*

### Hezkuntzaren lekua eta horren esanahia

Eskola, han eta hemen, *hezkuntzaren leku* izendatu den arren, hezkuntza egintza nonahiko, ikusezina, jarraitua eta zeharkakoa da. Liluragarri iruditu dakiguke; izan ere, den-

3 CHAVES N., *El diseño invisible. Siete lecciones sobre la intervención culta en el hábitat humano*, Bartzelona, Paidós, 2005, 43. orr.

borak eta lekuak zeharkatzen eta komunitateak eta diziplinak lotzen ditu, bere denborak eta lekuak diren guztiak dira: eskola ez da gertatzen, eskola eskola da.

*Hezkuntzaren lekua* kontzeptuak bi edo hiru esanahi dauzka: gizarteak ematen dion leku sinbolikoa, hezkuntza-jarduera formalari esleitu diogun leku fisikoa eta, azkenik, egintza gauzatzen den leku ikusezin eta nonahikoa –bereizita ez dagoena–.

Esperientziak sortzea, harremanak eratzea eta errealtatea eraldatzeko nahia aipatu ditugu hartzaroen denborek eta lekuek duten esanahiaren adibide gisa. Hortik abiatuta, eskola, hau da, *hezkuntzaren lekua eta esanahia* birdefinitzea proposatzen dugu mundua eraikuntza bizi eta subjektuari lotua dela adierazten diguten hiru ardatz hauetan oinarrituta –esperientziak, harremanak eta eraldaketak–:

- Eskola esperientzien eszenatoki gisa ulertzea. Eskola ikaskuntza-ingurune gisa definitzeko, beharrezkoa da eskolako denborei eta lekuei bizipen-dimentsioa ematea. Nagusiki antolamendu-izaera duten ikuspegietan, espazioa jardueren edukiontzi bat da. Beste batzuentzat, aldiz, espazioa ingurugiro bat da, eduki bat bere horretan, esperientzien eta ikaskuntzen eragile.
- Eskola harremanen eszenatoki gisa ulertzea. Haurrek eta helduek osatzen duten mikrokosmos soziala da eskola. Bertan sortzen eta izaten dituzte harremanak, baita kanpoko errealtatearekin ere, eta komunitate konplexu bat eratzen dute, dagokion gizartearekin elkartrukean diharduena. Hezkuntza-espazioa ez da harreman-sare horren euskarri fisikoa soilik, harreman horiek lagundu eta errazten baititu, eskolaren muina den espazio komunitario baten bidez.
- Eskola eraldaketen eszenatoki gisa ulertzea. Bizi dugun mundua ez da eman zaigun objektu bat; aitzitik, abian den prozesu bat da, eta hura bizi egiten dugu, eta eraldatzen ari delako jarduten dugu. Eskola, egitate instituzional den aldetik, ez da beti bat etorri prozesu bizi horiekin, eta kulturaren transmisioan tematuta, maiz hitzarmen finkoak sortu eta iraganeko munduak gorde eta iraunarazi ditu barnean. Alabaina, haurrak lehen mailako agente eraldatzailea dira, eta, debekatuta dagoenean ere, prozesuak eraldatu eta bizitzen ditu.

Eskola etengabe eraldatzen ari den egitura dela onartuz gero, aukera izango dugu *hezkuntzaren lekua eta horren esanahia* munduari eta eskolako funtsezko habitataile nagusiei, haurrei, lotuta berrirudikatzeko.

Hartzaroen egunero-egunero deskubritzen eta birsortzen da espazioaren esperientzia. Helduen munduan, berriz, esperientzia hori ohitura bihurtzen da, oharkabeko egintza, eta errutinaz ahazten da. Hartzaroen ez dira bereizten beharrezkoa, erabilgarria eta funtzionala denaren dimentsioak eta dimentsio sentikorak, emozionalak eta kognitiboak. Hori guztia haur-esperientzietan txertatuta eta bat eginda dago.

Habitatzearen berezko esanahiak, babesak, eta deskubritzearen plazerak, harridurak, jolasa dute bidelagun, ingurunea eraldatzeko modu sortzailea den aldetik. Hartzaroen, lekuaren esanahia egunero, uneoro osatzen da; bizirik dago. Hezkuntzan, ordea, zer esanahi ematen diogu lekuari?

### **Lekuaren esanahia hezkuntzan**

Eskola leku asko dituen egitura bat da; norbanakoen eta kolektiboen esparruak barne hartzen ditu, baita norbanakoaren eta talde txikien eremuak ere. Eskola ez da korridore

bateko ikasgela hurrenkera soila, hezkuntza-egintza gauzatzen den lekuen konstruktuko ukiezina baizik. Egintza hori ezin daiteke bereizi gauzatzen den unetik eta lekutik.

Hala, hau litzateke lekuaren esanahia hezkuntzan: habitataren eta habitatazileen arteko elkarreraginean sortzen den ekintza pedagogikoaren kontzientzia hartzea. Elkarreagin hori beharrezkoa da subjektua eta ingurunea elkarri egokitzeko, moldaketa estrukturala gertatzeko, Maturanaren eta Varelaren hitzetan.

Badirudi errazagoa litzatekeela arazoa gaika bereiztea eta lekuaren gaia azter-eremutan banatzea; hein batean, hala gertatzen da. Hiri adeitsuez hitz egiten dugu eta haurren jolaslekuak aztertzen ditugu hirietan; haurrei bidean laguntzen diegu eta eskola bideak zehazten ditugu; eskolan sartzen gara eta jolastoki berriak diseinatzen ditugu; ikastetxean sartzen gara eta eremu komunaren gaia lantzen dugu; taldetan banatu eta ikasgelan ixten gara. Alabaina, azter-eremu horiek ez daude bereizita haurren esperientzian, banatu beharrean, batu, txertatu eta lotura askotarikoak ezartzen dituzte eta. Funtsean, espazio-denborazko jarraitutasun batean garatzen da esperientzia. Alderantzizko bidea haurrekin egingo bagenu, ikasgela ireki egingo litzateke, eta eremu komunak hartuko lituzke, eskolaren barnealdea kanpora atera eta jolaslekuarekin jolastuko litzateke, eta azkenik, horrek guztiak *hormaren gainetik salto egin* eta hiria konkistatuko luke, Loris Malaguzziren metafora zoragarriak dioen bezala.

Lekuak hezkuntzan duen esanahia ulertzeko, gaira hurbiltzeko modu jakin batzuk funtsezkoak dira, esterako, ikerketa narratiboa, jarraitutasun horren aberastasunaren gaineko ikuspegi integratu eta diseinatu gabea eskaintzen du eta. Euskarri desberdinetan –testuala, bisuala, objektuala – jasotako kontakizunak ahotsa ematen diete espazioari buruzko haurren eta helduen kontakizunei eta bizipenei. Hala, habitatzen duten espazioaren ezagutza kontzientea sortzen da, eta beren bizitza dokumentatzen da. Bizipen eta prozesu horiek dokumentatzeak bizitakoaren hausnarketa kontzientea egiteko aukera ematen digu, eta hala, elkarreragin zirkularra sortzen da, funtsezkoa dena hezkuntza-jardunean.

Haurrek aberastasun handiz esploratzen dituzte beren denborak eta espazioak, eta lekuak hezkuntzan duen esanahia aztertzeak aberastasun hori eskolan txertatzera eramango gintuzke, lekuaren esanahiarekin lotuta dagoen haurtzaroaren benetako kultura deskubritzera.

Amaitzeko, gainbegiratu labur bat emango diogu eskolari, eskola habitatzen ditugun eta hezi, berrezi eta berrirudikatu behar ditugun lekuak direla ulertuta, baina, era berean, kontziente izanik zer nolako ardura dakarren horrek:

- Inguruabarrari lotutako eskola, hiriarekin (hiri adeitsuarekin) duen harremanaren ikuspegitik ulertuta; kanpoaldeko munduaren konplexutasunarekin solasten da eta zeregin gakoa betetzen du bai giltzarri bai eskalen arteko zubi gisa, eta txertatuta dagoen gizar-tean abegi-funtzioa onartzen du.
- Inguruneari lotutako eskola, naturarekin duen harremanaren ikuspegitik ulertuta, ikaskuntza eszenatoki gisa; kanpora irteten den eskola, *naturalizatu* eta jolastokia hainbat modutan biziberritzen duena, orientazioa, hedadura, aniztasuna, naturatasuna, ekitatea, integrazioa, barnealdearekiko harremana, erabilerak, denbora jarraituak eta abarrak kontuan hartuta, deskubrimenduen lorategi bihurtzeko.

- Gizarteari lotutako eskola, bere barnealdeko espazioarekin duen harremanaren ikuspegitik ulertuta, hezkuntza komunitatearen topagune eta harreman-gune gisa. Leku soziala da, kideen arteko harreman estruktural berriak sortzen ditu eta, espazio bantzaile eta linealen nagusitasuna ekiditeaz gain, aldeen arteko harreman organiko eta kualitatiboak indartuko ditu.
- Taldeari lotutako eskola, eskolako osagaien arteko harremanaren ikuspegitik ulertuta; bertan, ikasgela eta talde bakoitza osotasunaren zati dira; osotasunak unitateen ikasgelen arteko harreman berriak sortzeko aukera ematen du, eta espazio kooperatibo, malgu, garden eta jarraituetan txertatzen ditu. Ikaskuntza komunitateetan egiten da lan, guztiona denaren eta norberarena denaren arteko loturak ezartzen dira, eta denbora berriak sortzen dira espazio berrientzat.
- Ekintzari lotutako eskola, ekintza pedagogikoarekin duen loturaren ikuspegitik ulertuta. Espazioaren erabilera berriak eratzen ditu; beharren eta desiren izaera berri bat sortzen du, egungo jardun eta espazio homogeneotasuna gainditzeko. Ikonoak, erabileren sinboloak eta horien arteko loturak landuz gero, tresnak aurki ditzakegu, lengoaia komun bat, espazioa eta espazioak denboran izango duen eraldakortasuna diseinatzeko lengoaia bat.
- Erabiltzaileari lotutako eskola, hura habitatzen dutenekiko harremanaren ikuspegitik ulertuta. Komunitateak bere habitata eraikitzekeo prozesuan parte har dezala ahalbidetzen du. Osatzeke dauden espazioak eskaintzen ditu, instalazio iragankorrenzako euskarrien bidez, arkitektura eraldatzeko gai diren ekintza eta prozesu pedagogikoak txertatzeko aukera emanez. Azken finean, kanabera eman behar da, ez arraina.

## Erabileren programatik harremanen diagramara

Irudia © eslava y tejada arquitectos, Arbizuko Ikastetxe Publikoarekin eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako Azpiegituren Sailarekin elkarlanean egina.










Irudian lerro bakarreko Arbizuko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoaren organigrama ikus dezakezu. Espazioak, espazioen erabilerak eta espazioen arteko harremanak grafikoki islatu dira bertan, baita ere hauen arteko lotura funtzionalak, bisualak edo hurrentasunezkoak, besteak beste. Euskarri honen bitartez espazioarekiko asmo pedagogikoak proiektu arkitektonikoaren baldintza bezala irudikatu dira. Prozesuan parte hartu duten eragileen eta diziplinen arteko elkarrizketa hobetzeko baliagarria izan da.

## Arbizuko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxearen proiektua

Programa osatzen duten zati ezberdinen arteko loturen diagrama, proiektu arkitektonikoarekin batera, pedagogikoki lortu nahi diren helburu funtzionalak erdiesteko.

Proiektugileari zuzendutako organigrama laguntzailea da. Talde pedagogikoaren ustez hezkuntza proiektua garatzeko beharrezkoak diren barne erlazioak ahalik eta modu arginean islatzen ditu.


### Programa osatzen duten zati ezberdinen arteko loturen legenda


	lotura zuzena, kanpoaldea-barnealdea (ikusten eta sartzen erraza)		ikuste-lotura bi mailetan kokatuta dauden zatien artean (joko espaziala – altuera bikoitza)
	lotura zuzena barne-guneen artean (gardentasuna sustatuz)		komunikazio horizontala solairu berean dauden guneen artean: ibilbide irigarria (CTE-DB SUA betez)
	lotura zuzena gela eta dagokion espazioaren artean		zeharkako loturak aldameneko ikasgelen artean: taldeen arteko komunikazioa (nahia – ez derrigorrezkoa)
	ikuste-lotura zuzena ikasgela eta gelako komunaren artean (gardentasun osoa)		zeharkako lotura aldameneko gelen artean: erabileraren malgutasuna (aukera – ez derrigorrezkoa)
			lotura unitate eta guneen artean (aukera – ez derrigorrezkoa)

Ohar garrantzitsua: Organigrama hau ez da oinplano arkitektoniko batera itzulpen formal zuzena egiteko erredua.



programa con ubicación necesaria en la planta baja





### III. [hezten gaituzten ‘lekuak’ habitatzea] · [habitatzen ditugun lekuak heztea]

*“Komunitateak ingurunean txertatzen dituen aldaketen emaitza da habitata, bertako kideen arteko harremani eta ingurunearekiko harremani bide emateko. Ingurunean esku hartzen denean, ingurunea kulturaren eruedetara egokitze aldera, natura kulturizatzen eta kultura naturalizatzen du gizarteak.”<sup>4</sup>*

#### Hezten gaituzten lekuak habitatzea

Espazioaren antolamendua funtsezkoa da habitataren eta habitatazilearen arteko erlazioan. Bereziki aberatsa eta bizia den esperientzia korporal, sentsorial, kognitibo eta emozional gisa hedatzen da lekuaren zentzua haurtzaroan. Haurrek, espazioan gauzatu-tako ekintzekin, bizi- eta ikaskuntza-lekuak eraikitzen dituzte, bereizezinak baitira biak: hezten gaituzten lekuak habitatzen ditugu.

Habitata diseinatzeko, erabiltzaileen eta beren inguruneen arteko erlazio ikusezinak birdefinitu behar dira; diseinua habitata lantzeko eta ulertzeko moduen isla da, eta habitata, beraz, baldintza naturala izateaz gain, baldintza kulturala ere bada. Habitataren diseinuak gure biologia nahiz kultura islatzen baditu, eskolaren kasuan, ikaskuntzaren inguruan dugun ikuspegia islatzen du, gure kulturaren eta biologiaren ispilu balitz bezala.

Hezkuntzarako espazioez ari garenean, bi baldintza dituzten habitatez hitz egiten dugu: alde batetik, kultura bat adierazten dute bere horretan, hezkuntzaren kultura, eta, bestetik, *leiho* bat dira, eskola barruan sartzeko edo baztertzen den *kanpoko* kulturaren, mundu errealearen inguruan hausnar dezagun. Historian zehar, forma zurrinak eta espazio homogeneoak izan ditu leiho horrek, eta erabiltzaileak, haurrak, kontrolatu ditu, mugimenduak eta ekimena mugatuz.

Hezkuntzaren inguruan gaur egun dugun ikuspegiaren isla hori al den galdetu behar diogu gure buruari, eta mundu errealerako den, baita mundu hori zein den ere, hezkuntzak mundua aztertzen eta eraikitzen baitu.

*Territorios de la infancia* (2005) liburuak azpтитulu hau zeukan: *Diálogos entre pedagogía y arquitectura*. Ordurako jada, elkarrizketa hori eraikitze beharra islatzen genuen, baina, orain sortzen ari da, antza, elkarrizketarako gizarte-eskari bizia eta gehitzen ari zaizkio prozesuan esku hartzen duten eragileak: hezkuntza komunitate osoa, diseinu taldeak eta administrazioa.

Baina nola sor dezakegu elkarrizketa hori? Abiapuntu eta muga komunak edukitzeaz gain, prozesuetako bakoitzari forma emateko lan-tresna zehatzak eduki behar dira. Lan-tresna horiek errealtate desberdinen gainean era espezifikoan lan egiten lagundu behar digute; prozesu berriak eta emaitza zehatzak ahalbidetu behar dituzte, eta eskola ber-rasmatzea, hezten gaituen leku gisa.

4 CHAVES N., *El diseño invisible. Siete lecciones sobre la intervención culta en el hábitat humano*, Bartzelona, Paidós, 2005, 43. orr.



Erabilera pedagogikoen eta horien espazioen idazmolde berriak, ikonoen eta horien arteko erlazioen bidez adierazita beharrak, desioak eta aukerak. Irudia © eslava y tejada arquitectos.

## Habitatzen ditugun lekuak heztea

Amaitzeko, proposamen bat:

- Jardunbide egokien helburu komuna partekatzea. Sinesten ez dugun horretan behintzat ados jarri beharko ginateke, hezkuntza-espazioko praxi oker deituko ditugunen gaineko adostasuna, hain zuzen. Hezkuntzarako espazioa –bere dimentsio arkitektonikoan– aurrez existitzen denez edo *inpersonal* denez, praxi oker izendatzetik salbu zirudien.
- Hezkuntzarako espazioaren erantzukizun aktiboa etikoki onartzea. Eskola bakoitzaren arkitektura, oro har, aldez aurreko elkarrizketarik gabe zehaztuta egon da. Nonahikotasun saihestezin gisa ulertzen genuen, euskarri-eragile pasibo gisa, sortzez egintza aktibo eta, beraz, nahitakoa izan arren. Pedagogia batzuek izkin egiten zioten horri, baina, gehientzat, ekintza agerikoenentzat aurreikusita zegoen esparrua zen: zereginen edukiontzia.
- Bada, espazioa diskurtso gisa ulertzea, María Acasok zehazten duen bezala, curriculum ezkutuaz ohartzea da. Horrek kode multzo bat barne hartzen zuen –eta du–, erlazioak arautzen eta hierarkiak, autoritatea eta ordena islatzen dituena. Herentzia hori guztia, hala ere, zalantzan jarri eta eraldatu behar dugu. Zentzu horretan, egitura aldatzea proposatzen bada, zenbait muga inposatzea ekidin behar da, aukera berriak, malguak eta desberdinak sortu ahal izateko.
- Soluzio espezifikoak garatzea, ereduak bilatu beharrean. Helburu komun bat testuinguru askotara eramateko, aniztasun hori modu inklusiboan txertatu behar da eskolako

proiektuan, emaitzak homogeneizatzeko asmorik gabe. Eskola aniztasunetik proiektatzea, horren garapen desberdindua bultzatuz eta aurreikusiz, alternatiba anitz gisa.

- Bizi garen errealtatetik eta errealtatearen aurre existentzia-baldintza eraldatzea. Aldaketarako ez da mihise zuririk behar; aitzitik, eskola bakoitzaren errealtatetik eragin daiteke aldaketa. Egiturak ez dira desagertzen, eraldatu egiten dira, eta nahitaezko esparru zurrun izateari uzten diote, mugimendu aukera handia eskaintzen duten euskarri gisa soilik erabiltzeko.
- Diziplinarteko elkarriketatik lan egitea. Aldeek elkarri entzun behar diote eta elkarriketan aritu behar dira ezinbestean, espazio fisikoak eta horiek habitatzen dituztenen praktikak aldatzeko. Praktika zaharrentzako bilgarri berriak edo karkasa hutsak sortzea porrot argia litzateke; arrisku agerikoa da, hezkuntzarako espazioen gaineko egungo interesean: ikusezinak diren alderdietan gertatu behar da, funtsean, hezkuntzaren berrikuntza, eta euskarri ikusgarri batean erakutsi, gertatu eta finkatu, ekintza pedagogikoari modu berezietan lotuta dagoen dimentsioa denez.
- Hezten gaituen lekua prozesu gisa ulertzea; eraikuntza-lanetan dagoen lekua da, haurrak ardatz direna. Adituaren rola funtsezkoa da, entzuten duen eta prozesuen bideragarritasunean elkarlanean aritzen den laguntzaile den aldetik. Elkarlanean erakitzeko proiektua, hezkuntza komunitate osoa barne hartzen duena: irakasleak, irakasleak ez direnak, familiak eta, funtsean, haurrak.

Habitatzen ditugun lekuak hezten ditugu. Hezten gaituzten lekuak habitatzen ditugu.

*“Habitata da –giza bizitzaren lehen aztarna materiala, eta sakonena– komunitate baten jatorrizko kulturaren adierazpenik osoena da: erlazio fisiko eta sinbolikoen sistema islatzen eta eragiten du [...] eta kultura materialaren oinarritzko bilduma eta sistema da.”<sup>5</sup>*

5 CHAVES N., *El diseño invisible. Siete lecciones sobre la intervención culta en el hábitat humano*, Bartzelona, Paidós, 2005, 19. orr.

# Hezkuntza eta hiria

**Ula Iruretagoiena Busturia**

Arkitekto doktorea eta EHUKo irakaslea

**Ianire de Andres Olabarria**

Arkitektoa, Hiri-politikak eta Haurren Parte-hartzean

aditua, eta haurren dantza irakaslea

ula.iruretagoiena@gmail.com – iadeandres@gmail.com

Hezkuntza eta hiria bi norabidetan elkar elikatzen dira: hezitzaileek hiria hezkuntza-esparru gisa ulertzen dutenean, eta hiri hezitzailea, non haurrak eragiletzat hartuta hiri barneratzaileranzko bidea egiten den, *pertsona heldu produktiboak ez diren beste gorputzak barneratuz*. Honek esan nahi du haurrak subjektu politikotzat hartzen direla, hiri osasungarri eta hezitzaile baten aldeko hautua eginaz.

Gako-hitzak: hezkuntza, hiria, haur eta gazteak, subjektu-politikoak.

## Hiria eta hiritartasun modernoa

### Gorputz produktiboa eta gorputz diziplinatua: hiritartasun modernoaren eraikuntza

Hiria, indibiduen elkarbizitza antolaketaren espazializazio gisa uler daiteke.<sup>1</sup> Hiriari begira, bertan bizi direnen ohiturak eta bizi-ereduak irakurri baitaitezke. Nola erabiltzen diren espazioak, nola mugitzen garen, zein gatazka gertatzen diren espazioetan, zein debeku eta baimen zehazten diren elkarbizitza espazioetan. Guztiak, hirian gizaki kolektibo bezala zer nolako oinarri eta balore kulturalak ditugun adierazten du —gizartearen kultura kolektiboa alegia— eta hiriko espazioek ulerpen horien berri ematen digute. Hori dela eta, hiria *errelatore* bezala erabiliko dugu gizarteak hezkuntzari eskaintzen dion lekua eta balioa azalera ekartzeko, hirigile eta antropologia arteko ariketa gimnastikoa eginaz eta honekin batera proiektu pedagogikoari beste begirada bat eskaintzeko asmoarekin.

Gaur egun hiria pentsatu, eraiki eta erabiltzeko eredu eta antolaketaren funtsezko argudioak XX. mende hasieran sortu ziren, iraultza industrialak mendebaldeko hirien


1 Artikuluan hiriaz hitz egingo dugu, gizakiaren bizitokiari erreferentzia egiteko.



Le Corbusierrek —hiri modernoaren ideologoetako paperean— irudikatutako hiria Plan Voisin, Paris. 1925.

paisaia aldatutakoan. Hirien ideario berriak II. Mundu Gerratearen ostean aplikatzen hasi ziren, lurraldeen berrasmatze fase eraldatzaile bati hasiera emanez. Ibilbide historikoak gure hiriko espazioen —ikastetxe, eskola eta jolas parkeak barne— izaera eta antolaketaren arrazoiak eskainiko dizkigu, hiri modernoaren planteamendu eta ikuspegietan aurkitu dezakegulako eskolak hiriarekin duen erlazioaren ulerpena. Orduan zedarritutako hiriaren oinarriak gaurko gizarteak hiria ulertzeko modua egituratu egin du —eta beraz eskolak hirian jokatzeko duen papera—. Zenbait hiri-ulermen oso barneratuak eta errotoak ditugu eta hauen errepikapenean aritu gara hiria eraikitzen orain arte. Inertzia hauek identifikatzeko lana gurea egin dugu, hala nola inertzia hauei aurre egiteko erresistentziak seinaltatzeko beharra.

XX. mendeko hiriak hazkuntzarako prestatzen hasi zirenean, hirigileek hiriko espazioen erabiltzaile abstraktu nagusi bat irudikatu zuten, *pertsona heldu eta produktiboarena* hain zuzen ere. Pentsamendu honen lehen aldaketa estrukturala indibiduotik erabiltzailera egitearena izan da, hau da, hiria testuinguru produktibo bat bilatzeko motibazioarako saltoa. Hiriaren funtzionamendua eraginkorra izan behar duela suposatzen du honek, hiriko antolaketa sistema kapitalaren ekoizpen makina ona bilatu dadin (Lefebvre, 1974). Bestalde, gizakiaren beharrei erreparatzeko garaian erabilgarritasunari atxikitzeak, badu beste bigarren esanahi bat: funtzionala denari, eta beraz arrazionaltasunari, lehen mailako logika postua eskaintzea, emozio eta gai subjektiboan gainetik. Guztiaren ondorioz hirien subjektu politikoa indibiduo ezaugarri zehatz batzuetan oinarritzea izan da, hainbat gorputz hiriko espazioetatik baztertuak eta kanporatuak geldituz. Gizarte produktibo, eraginkor eta kapitalistarako baliagarria den pertsona heldu eta produktiboa lehen mailako hiritarra izango da, egokia den bakarra (bera hartzen baita eredutzat espazioak pentsatu eta erai-



Architectural Graphic Standards liburutik aterako irudia.

kitzeko uean), eta espazioen diseinurako gorputz ideal eta normatibizatu bat asmatuko da, neurri fisiko eta bizi-beharrizan batzuk esleituz (Pérez Orozco, 2014).<sup>2</sup>

Hiri barneratzaile baten aldarrikapenak ikuskera hau desmuntatzeko beharren jaido da, bestelako gorputzen aitortzatik —emakumeak, haurrak, gazteak, adinduak, elbarrituak, pobreak, beltzak eta beste etniak— hiriko espazio guztietan kolektibo guztien presentzia defendatzen delarik.

Gorputz normal eta balizko bat sortzearen atzetik, gorputz diziplinatuaren aldeko helburua dago, eta bi kontzeptuek gizarte modernoaren hiritartasun eredia osatuko lukete. Indibiduoari diziplina ezarri behar zaio produktibo eta hiritar egokia izateko —sistema kapital eta politikoari erantzuteko—, eta espazioa dispositibo ezin hobea da —tresna politiko bat den heinean— jendartearen ekintzen aurrean autoritatearen presentzia ezartzeko. Kontrolak hiriaren konplexutasuna sinplifikatzea beharrezkoa egiten du, horretarako estrategia boteretsu bat aplikatuz: hiriaren organikotasunaren aurrean, hiria osatzen duten osagaien segregazioa eta espezializazioa.

Hiri modernoak Erdi Aroko hirietako kalearen izaera desitxuratu du; hiriari berezkoa zaion bizipen aberatsa deskafeinatuaz joan da. Hiriaren bizitza aurrera eramateko funtzioak

2 Amaia Pérez Orozco ekonomialariak merkatu ekonomikoaren eraikuntzan artikulatzen diren botere harremanak aztertu ditu, zenbait subjektu pribilegiatzen direla baieztatuz. María José Capellín-ek subjektu politiko onuradunari erdaraz BBVA izendatu du (erdaraz zuria, burgesa, gizonezkoa, heldua) eta Pérez de Orozco H bat gehitu dio, heterosexuala gehituz. PÉREZ OROZCO A., *Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*, Madril, Traficantes de Sueños, 2004.



(lana, ikasketa, aisialdia, hezkuntza, erosketak, kirola...) espazialki banatuak izan dira; baita adin eta klase aldetik hiriko espazioak espezializatu dira. Non-zer egin daitezkeen lekutu eta arautu egin da, autoritate *demokratiko* baten izenean. Zati hauen artean egon daitezkeen lotura eta sinergiak moztu egin dira, eta aldi berean funtzio guztien arteko integritasuna galdu egin da. Hiria erlazionatzeko, esperimintatzeko eta eraldaketa sozialerako espaziotik produkzio eta eraginkortasunera salto egitearen ondorio. Hiriak eraikitzen zuen komunitate sentsazioa eta balore kolektiboa pixkanaka galduz joan da, ibilgailua kaleak inbaditzerakoan, hazkuntza-eskala handitzerakoan eta espazioen aurre-programazioa ezartzerakoan, besteak beste. Bat batekotasunerako eta ziurgabetasunerako espaziorik ez da gelditu hirietan.

### **Eskola eraikina hiri modernoan**

Beldurgarria iruditu beharko litzaiguke hezkuntza eraikin eta kartzela baten artean egin daitezkeen analogiak. Michael Foucault-ek zioen ospitalea, kartzela eta eskola direla gizartearen diziplina antolatzeako funtsezko erakunde-antolaketak eta beraz, diziplinaren tipologia arkitektonikoak (Foucault, 1976). Hiru arkitektura eredu hauetan guda testuinguru baten logikak aplikatzen dira: indibiduen menderatzea lortzeko helburuz, diziplina eta kontrola eragiten duten dispositiboak sortzen dira barne zein kanpo espazioetan. Barne espazioetako korridore luzeak, zelda unitatearen errepikakortasuna, sirena baten soinuarekin konbibentziak, guztiek, indar-botereak —autoritate bat— eta doktrinamenduen balioak transmititzen dituzte. Kanpo espazioei dagokionez, diziplinaren erakusle diren tipologia hauetan, kanpo eragileetatik isolatzeko nahia nagusia da eta horrela adierazi daiteke indarkeria eta botere espazioak direla.

Historikoki hezkuntzako barne espazioetan diziplina, kontrol eta doktrinamendua aplikatu den bezala, hezkuntzako eraikinek hirian sortzen duten irudian pareko ezaugarriak irakurriko ditugu. Ohikoa da eskola hesitua agertzea; hau da, eskola eta kalearen arteko lehen hizketaldia babespen elementu arkitektoniko bat da. Muga honek kontaktzen digu barnealdean dagoenari ekidin behar zaiola kanpora ateratzea, eta kanpotarra barneratzea ere desegokia dela. Horma batekin alderatuz, hesiak badu perbertsoa den ezaugarri bat, hesiak banatzen dituen bi munduak ikusgai uzten dituelako baina agerian uzten du bi munduen arteko lotura ez dela posible. Hirian hesiak agertzen direnean kanpoko eraoetatik babesteko izaten dira.

Hesiak abeltzaintzan animaliak ihesaldian ez egoteko jarriak dira, eta helduek hurrekin antzerakoa egiten dute: hesiak aske ibiltzea ekiditen du, bahituta baleude bezala. Mugimenduari erlazioan dago mugaketa hau, beti ere, *haurraren mesedetan*, esango digu pertsona helduak. Haurraren pertzepzioa bestalde, eskola hiritik deskonektaturiko espazioa dela nabari du, eta hesi barnean bere mugimenduak kontrolatuak eta menderatuak daudela esaten ari gaitaio.

Ikastetxeek hirian duten presentzia, eskola eta haurren heziketa errealtatetik banandu izatearen adierazpena besterik ez da. Haur eta helduen munduen artean harremanik ez balitz bezala, batak bestearen beharrik ez balu bezala, botere-harreman baten erlazioa eraikitzen da espazioan. Hiri modernoak eskolei heziketa funtzio zehatza esleitu dio, ez du komunitatearen eraketarako pieza gisa tratatu. Horregatik eraikinen kokapen eta diseinuan zatiketa eta bereizketa ageri dira, bai erakunde bai espazio-eraikin bezala.

## Haurrentzako espazio publikoak hiri modernoan

Espazio publikoak —plazek eta kaleek—, lehenengo ibilgailu pribatuaren sarrerarekin eta egun pribatizazio prozesuarekin, bere funtzio politikoa galdu du. Kaleak tradizionalki erlazio eta politika gune izan dira; bertan debatitu, manifestatu, elkartu eta jolastu egin izan da (Delgado, 1999). Honen aurrean, zibismoaren izenean espazio publikoak arautu ditugu (debekuak eta baimenekin) eta hiper-diseinatu ditugu (nola eseri eta jolastu, non eta zer egin daitekeen espazioak zuzentzen gaitu). Espazio publikoetan nabari da ez da-goela ezusteko egoeretarako lekurik eta gatazka aukerak garbitu dira. Espazio publikoa gune sortzailea izatetik, kontsumitzeko gune izatera pasa da.

Oso esanguratsua da hirietan hurrei egokitzen zaien espazioen diseinua. Hiri modernoaren egituraketarako aipatu diren estrategia oro aurkituko ditugu jolas-parkeen eta parke tematikoen diseinuan: segregazioa, isolamendua, funtzio-programazioa. Hirigileek erabaki dute hurrek non jolastu behar duten, leku bereizi eta mugatu batean. Eta jolas parkeen enpresek zehaztu dute nolakoak izango diren jolasak, jostailu espazialak hirietan kokatuz, kontsumo objektuak bailiran. Haurren beharrak eta desioak kultura eta lekuaren arabera berdinak balira bezala, hiri baten barnean eta hiri ezberdinen artean ez dago jostailu espazialen artean ezberdintasunik, homogeneitatea nabari da: ez dute lekukotasunaren ezaugarri eta nortasunik. Garai batean hiriaren euskarri fisikoa abenturarako eta esploraziorako erabiltzen zen, amaigabeko jolas mota egiteko aukerarekin bukatu egin dira, hirietako espazioek beste funtzioetarako pentsatuak baitaude, eta beraz, haurrak gogaikarriak gertatzen dira.

Hiriaren pentsamenduan pertsona heldu eta produktiboaz hitz egin badugu, orain pertsona heldu arduratsuen figura ekarriko dugu hizketaldira. Izan ere, haur eta gazteen presentzia eta egitekoa espazio publikoan pertsona helduen ardurarengatik (guraso, zaintzaile, hezitzaile) baldintzatua dago. Haurren desioak arautzeko beharra ez da hiri modernoaren pentsamenduaren ondorio. Honen anekdota erakusgarria da, 1924ean orduko Madrilgo alkateak bota zuen bandoa: “Gurasoek, euren erantzukizunik estuenarekin zainduko dituzte euren seme-alabak, hauek bakarrik parke eta lorategietan jolas dezaten, hauek baitira haurren jolaserako leku egokiak (...)” (Romás eta Salís, 2010). Sinetsita gaude haurra babestu egin behar dela kanpoko eragileetatik, haurren txokoak leku abiotikoak bilakatuz (Freire, 2011).<sup>3</sup> Haur eta gaztea kanpo arriskuetatik (espazio publikoan dagoen orotik: pertsonetatik, materialetatik, partikuletatik) babestea lehentasuna bilakatu da, heziketarako arduraren gainetik. Haur jolasaren diseinuan autoritatea —pertsona heldua— seguritatea eta arduraren izenean —espazio publikoan zibismoa erabiltzen den era berdinean— kontrol eta babes espazioak bilakatu dira, non haurrak subjektu pasibo gisa pentsatuak diren gorputz diziplinatuen dinamika praktikatuz.

Jolas-parke eta parke tematikoen konfigurazioak agerian uzten dute gizartearen jolas kultura eta ulermena. Jolasa ez da ekintza seriotzat hartzen, ikasgela batean gertatzen denaren aurrean, jolasa denbora pasa da —eskoletan hurrek patioan igarotzen duten denbora mugatua honen erakusgarri da—. Jolasak ez omen du ezer ekoizten. Hartu

.....  
3 Heike Freirek eskoletako patioen *desnaturalizazio* prozesuaz hitz egiten du; naturarekin harremanean diren materia eta inguruneak desagertu egin dira. Lurra, zuhaitza, landareak kendu eta hormigoia gailendu da. Azken urteetan patioen birnaturalizazio fenomenoak gertatzen ari da ere.



1968.urtean Palle Nielsen-ek Stockholm-eko Moderna Museet-en egindako The Model esperimentu soziala. 20.000 haur museoko gelan sartzeko aukera utzi zuen, heldurik gabe, araurik gabeko jolasak baimenduz.

museoetan haurrei zuzendutako aktibitateak edo herrietako jai programetan haurrei egiten zaien eskaintza: entretenimendura zuzendutako ekintzak dira. Haurren sormen, puskatze edo eraldatzeko gaitasuna mugatua da, aisialdia doktrinamendu eta kontsumo tresna bilakatu dugu.

Jolasaren esentzia ez da soilik haurren ikasketa prozesutik lapurtua izan, baita gai-nontzeko gizakien baitatik ere. Izan ere, jolasa ez da haur eta gazteei soilik dagokien esparrua. Egun ludikotasunaren ideia berreskuratzea beharrezkoa da proiektu urbanoaren tresna pedagogiko eta ideologiko gisa.<sup>4</sup> Hiri espazio publikoan ezusteko ekintzak, egitura aldakorak, dinamikoak eta aurrekusi gabeko ekitaldiak burutzeko gunea izatea galdu egin da, hain justuan, espazioa jolas eremu ez izanagatik. Horregatik *helduen mundutik*, mugimendu artista, filosofo eta arkitektoek hiriaren espazioak pentsatzeko garaian jolasaren gaineko aldarria egin da behin baino gehiagotan. Adibidez, Guy Deborden hirietan *deribetan* mugimenduen desorientazioa eta desbideraketaren apustua zegoen, aurrez aurkitu gabeko hiriaren alde. Jolasa ziurgabetasuna, ametsa, ezezaguna, ezustekoaren aldarria da; jolasak iradokitzeko ahalmena du, baina ez du zentzu itxi eta jakin bat proposatzen. Hiri modernoaren kontrol eta diziplina ikuspegiaren aurrean, jolasa ekintza politiko bihurtu da.<sup>5</sup>

.....

4 Alfredo Hoyuelosek homo ludens-aren aldeko aldarria egiten du, jolasen helburu didaktikoa ludikotasunetik alden du direla esanez. Ludikotasunak jolas dinamikoak eskatzen ditu, mugagabeki moldatu daitezkeen jolasak, sinbolikoki lurraldearen eraldaketa ekarriko dutenak. HOYUELOS A., *Estrategias de juego en la escuela. Territorios de la infancia: diálogos entre arquitectura y pedagogía*, 137-142.

5 1968.urtean Palle Nielsek haur jolasa Copenageko espazio publikoaren berreskurapenerako leku bihurtu zuen. Ezaguna da Moderna Museet-ean burutu zuen ekintza artistiko-politikoa, “modelo erakusketa pedagogiko”. Erakunde kulturalak bere espazioak ireki zituen soilik haurrentzat, modu askean jolastu zezaten.

## Hiri hezitzaile baterantz

Nola erantzun diezaioke hiri baten espazioak (kaleak, plazak, aterpeak, atariak) haur baten beharrei, espazioak hezitzaile izan daitezen? Eta horrek ze erlazio du hiriaren beharrekin? Biek bat egiten dutela ohartuko gara.

Bestelako eredu bat definitze aldera, hiri hezitzaile gisa adieraziko duguna, haurrak ere bai parametro gisa hartuko lukeena da, ez bakarrik haurrentzako egokia den hiria diseinatzeko, baizik eta haurrentzat egokia den hiria egokia izango delako beste edozein kolektiborentzat ere. Segurua, atsegina eta lagungarria izango da emakumeentzat, aniztasun funtzionala dutenentzat, etorkinentzat, pertsona nagusientzat...

Aipatu bezala, hiriaren espazioetatik baztertutako gorputz mota bat, ume/gazteena da. Hiriak ume eta gazteen irakurketa zehatz baten ulerpenarekin hartzen ditu erabakiak, eta haurrekin zerikusia duten gai askotan eragin handia duen interpretazioa da: bere kabuz erabakitzeko aukerarik ez duen subjektua dela, helduek beraien ordezkariak direnez geroztik. Haurren hirirako eskubidearen lemaren atzetik haurren gaitasunen aitortpena dago eta hirian haurrak subjektu aktiboak —erabakiak hartzeko eskubidea onartua— izateko aldarria.

Horretarako beharrezkoa da haurrak eta gazteak subjektu politikotzat hartzea, pertsona osotzat, eta ez etorkizuneko hiritartzat. Aldarri honek esan nahi du, haur eta gazteen beharrak komunitatea eraikitzeke unean aitortu, galdetu eta aintzat hartu behar direla. Hiriaren eraikuntzan haurrak subjektu politiko gisa ez jasotzeko bi arrazoi nagusi daude: pertsonak kontrolatzeko duen beharra eta helburua (umeei txikitatik erakutsi behar zaie interes globalen arabera funtzionatzen) eta gaur egun zaintzaren atzean dauden beldurrak eta dependentsia-harremanak (gurasoen rola kolokan jartzen da euren seme-alabak autonomoak direnean).

Jendarte, auzo zein hiri barneratzailea eta anitza eraikitzerakoan, guztien beharrak asetzeaz gain, adin tarte ororen rola ere aitortu beharko ditugu. Horrela, haurrei eta gazteei ere, euren gaitasunen arabera, sistemaren garapenean betetzen duten funtzioa onartu eta egiten utzi beharko diegu. Auzolan ekintzak, adibidez, aproposak izan daitezke kolektibo bakoitzaren lana aitortu eta betearazteko.

## Mugitzeko eskubidea: autonomian hasi eta hezi

Haurrak eta gazteak gaur egungo subjektu politiko aktibotzat hartzen ditugun momentutik hirigintzak kontutan izan beharko zeintzuk diren pertsona horien behar eta desira zehatzak. Nabarmenetako bat izango da (edozein gizakik sentitzen duen moduan) bere ingurunean aske eta era autonomoan mugitzeko beharra. Mugitzeko askatasunak haurrengan sortuko dituen onurak hainbat dira: ingurune fisiko eta sozialarekiko loturak sortzea, identitatea eta testuinguruarekiko pertenezia errotzen joatea, gaitasun pertsonaletan konfiantza garatzea eta autoestimua sendotzea, adibidez.

Egungo hiriaren diseinuan, baina, ez daude txikienen beharrak txertatuta: kaleak arrotzak eta arriskutsuak bilakatu dira haurrentzat, batez ere, bi arrazoiengatik: autoen presentzia ugariaren eraginez eta egoera edo pertsona arrotzak sor ditzaketen arriskuengatik. Txikien kolektiboak kaleetan zehar lasai ibil daitezzen, beraz, eraldaketa prozesua bizi beharko dute auzo eta hiriek, zeinetan diseinu egokiago batek haurrak kalean

ibiltzera gonbidatuko dituen, eta era berean, haurren presentziak hiriaren arteriak berregokituko dituen.

Eraldaketa horretan hezkuntza zentroak protagonista izan daitezke, 'Eskola Bidea'<sup>6</sup> bezalako egitasmoak martxan jarritz. Eskola Bidea ekintzak sustatuko luke ikasleak eskolara bakarrik joatea, euren kabuz, oinez, patinetez zein bizikletaz, gurasoen autoetan joan ordez. Hasiera batean sinplea dirudien arren, aldaketa sakonetik landu dezakeen egitasmoa da, hezkuntza komunitatea inplikatzeari gain, auzo-komunitate osoaren erantzukizuna eskatzen duelako; baita hirigile eta politikariena ere. Izan ere, ikasleak eskolara euren kabuz joaten hasi orduko, alde batetik, inguruko kale eta bideak aztertu behar dira segurtasuna bermatzeko, eta beste aldetik, bizilagun guztiengan kontzientzia sortu behar da bizikidetzara arauak errespetu handiagoz bete ditzaten (ibilgailuen abiadura arauak, ondo aparkatzeko arauak, etab.).

Prozesu honek, eraldaketa fisikoa eska dezake zenbaitetan (hala nola, espaloi bat zabaltzea edo aparkaleku batzuk kentzea), eta horrek gatazkak sor ditzake aurrekontua behar delako, hirigintzako administrazio-prozesuak luzeak direlako, herritar guztiaren adostasuna bilatzea ezinezkoa delako, etab. Kasu hauetan, aukera interesgarria litzateke behin-behineko neurriekin frogatzea egitea aldaketak funtzionatzen duen edo ez ikusteko. Adibidez, kale bat ibilgailuentzako ixtea beharrezkoa dela ikusten bada, zoladura guztia aldatu beharrean, ibilgailuen sarrera oztopatuko duen elementu bat jar daiteke (hirlorontzi bat, adibidez) eta hilabete batzuetan frogatzea egin. Horrelako neurriek, bizkortasuna eskaintzeaz gain, eraldaketa giro lasaiagoan egitea ere ahalbidetzen dute, ez direlako inposatzen behin-betiko neurriak egun batetik bestera; prozesu kolektiboa egiteko aukera ematen dutelako.

Haurtzako ibilbide seguruak lortzen ditugunean, euren hirirako eskubideak bermatzen hasiko gara. Askatasun horrek euren garapenean hainbeste behar duten autonomia berreskuratzen lagunduko die, pertsona moduan hazten, komunitatean parte hartzen, sozializatzen eta erronka pertsonalak autoestimuz gaintzen (Tonucci, 2002).

Aske mugitzeko askatasuna aztertzen ari garenean kontutan izan behar dugu baita ere haurtzako igarotzeak duen zentzuaz. Heldu produktiboaren ikuspuntutik, joan-etorriak balio digu leku batetik bestera mugitzeko; gauden tokitik egon behar dugun tokira joateko. Haurtzako, ordea, batez ere bizitzaren lehen urteetan, igarotzeak esploratzea esan nahi du. Abiatu garen tokiaren eta helmugaren artean, hainbat leku interesgarri daude ikertzeko, mundua ezagutzeko, ukitzeko, usaintzeko, asmatzeko eta sentitzeko. Beraz, hiri hezitzailean egonaldiak errespetatu eta zainduko dituzten ibilbide seguruak egongo dira.

## Jolasa eta haurtzaroren kultura hirian

1989an Nazio Batuek Nazioarteko Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmena sinatu zuten New Yorken, eta bertan jasotzen diren 15. eta 31. artikuluek diote neska-mutil guztiek

.....  
6 Eskola Bidea bezala ezagutzen dugun lehen esperientzia 70eko hamarkadan Danimarkan, Odensen herrian, izan bazen ere (Romás eta Salís, 2010), azken hamarkada hau arte ez da gurean horrelako proiekturik gauzatu. Hasierako praktika haiek bide-segurtasuna lantzea eta osasun-arazoak ekiditea zuten helburutzat, baina gurean gaur egun martxan jartzen diren Eskola Bidea gehienak Tonucciren proposamenetik datoz, askoz eraldaketa sakonagoa eta sozialagoa bilatzen duen proposamena, hain zuzen.

elkartzeko eskubidea dutela, atsedena hartzeko, ondo pasatzeko eta eurei gehien gus-tatzen zaiena egiteko. Izan ere, umeek euren inguru fisiko eta sozialarekin erlazionatzeko duten baliabide intuitiboa jolas librea da. Jolas librearen bitartez, fisikoki eta emozionalki pertsona autonomoak izaten ikasteko tresna eta baliabideak garatzen dituzte.

Hiri modernoak zehaztasunez definitu du haurrek non eta nola jolastu behar duten, jolasa aisialdi kontsumistarekin erlazionatuz eta ekintzaren bat-batekotasuna guztiz ukatuz. Berez, baina, jolasteko beharrak lehen aitortutako mugitzeko askatasun behar-rrarekin du zerikusia, garapen pertsonalean esplorazioak eta autonomiak duten garran-tziarekin, hain zuzen. Horregatik, hiri hezitzaileak jolaserako bestelako espazioak eskaini behar ditu: igaro, esploratu, elkartu, jolastu, asmatu eta mundua ezagutzeko aproposak diren kale eta plazak.

Bizikidetz handiko auzoetan eta dendaz beteriko kale bizietan sortzen da, hain zuzen, haurrentzat aproposa den giro segurua eta lasaia egunerokotasunean. “Kalera begira dauden hainbat begi” (Jacobs, 1961) behar dituzte herritar txikiak aske eta lasai jolasteko.<sup>7</sup> Aske, begira dauden heldu horiek ez daudelako jolasa ikuskatzen eta behatzen, intrusoak bailiran. Eta lasai, etenik gabe behatzen ez egon arren, zaintza egiten ari direlako, edozein unetan laguntzeko prest. Beraz, umeak ez dira kontrolatuta sentitzen, baina bai babestuta. Egoera horretan, komunitate osoa ari da haurrak zaintzen; hezkuntza komunitatearen ardura bilakatzen da. Aldiz, umeak parkera jolastera eramaten ditugunean, etxeko txikiak zaintzaileren (guraso, aitona-amona, zaintzaile, etab.) propietate bihurtzen dira, ardura guztia heldu horrengan geratzen delako, eta askotan, haurraren jolasaren protagonista ere izaten da.

Jolasak, bere jatorrian, esplorazioarekin batera espazioaren okupazioa ere ekarriko du, batez ere talde-jolasetan. Jolasaren bitartez, haurrek ingurune fisiko zehatza ezagutuko dute, eta ezagupen horrek, aldi berean, bideratuko du jolasa: inguruko txokoak bikain ezagutzen dituenak aukeratuko du ezkutaleku ederrena. Beraz, haurren sormenerako aproposagoak izango dira espazio ireki eta malguak, hasiera batean ezer ez diren eta edozer izan daitezkeen elementuekin, espezializatutako jolas-parke hiper-diseinatuak baizik. Ezaugarri guzti horiek biltzen dituzte, hain zuzen, espazio naturalek: bertan aurki ditzakete haurrek sormena lantzeko elementu anitzak eta hainbat neurritako txokoak.

Jolasa eta haurtzaroaren kultura aztertzerakoan jabetuko gara baita ere kolektibo txi-kienaren interes handienetako bat dela, erronkak gainditzeko grina. Izan ere, mugimendu askea eta jolas librea praktikatzeko aukera dutenean, haurrak, etengabe bilatzen dituzte euren gorputzaren mugak eta egunez egun erronka berriak gainditzeko irrikaz izaten dira. Eskalatzea, eskailerak igotzea, tente jartzea, salto handiak ematea, bizikletaz ibiltzen ikastea, korrika egitea, zintzilikatzea, hanka bakarraren gainean aritzea, zuhaitzetara igo-tzea... edozein mugimendu berri izan daiteke interesgarria, guztiz zirrargarria. Praktika horretarako ere naturak hainbat aukera eskaintzen dituen arren, haurrek gaitasuna dute

.....  
7 1961.urtean Jane Jacobsek *The Death and Life of Great American Cities* liburuan aztertu zuen 50. hamarkadan Estatu Batuetan praktikan jarri zen hirigintza eta horren ondorio latzak, batez ere, espazio publikoaren erabi-leran. Metodologia berritzaileez baliatuz baieztatu zuen nabarmena zela hiri egiturak erabiltzaileengan zuen eragina, eta egunerokotasuneko biolentzia kasuen jatorria identifikatu zuen abandonatutako auzoak kale bizi eta seguruekin aldatuz.



8 urteko haur batek bere herriko espazio publikoa azaltzeko egindako marrazkia (Markina-Xemeingo Zelaia). Iturria: Ianire de Andres Olabarria (Hirideak)


ezaugarri aproposak ez dituzten espazioetan ere haien erronkak bilatzeko: ingurua euren interesen arabera erabiltzeko, alegia. Horrela egiten dute jolas-parkeetan ere: Munitibarko haurrek, adibidez, aitortu zuten euren jolas-parkeko elementuak erabiltzen zituztela *zirkuituak* sortzeko. Hau da, alde batetik bestera igarotzeko lurrik ukitu gabe, hainbat froga pasatuz (zintzilikatuta, egurren gainetik oreka mantenduta, etab.). Horregatik, euren ametsak jolas-guneak diseinatzerakoan konposizio linealak sortu zituzten, hain zuzen, zirkuitu luze eta anitzak.<sup>8</sup>

### Haurrak eta gazteak protagonista: parte-hartzea

Hiri hezitailerantz egin beharreko bidea benetan sakona eta erreala izan dadin, beharrezkoa da agente guztien ekarpenak kontutan izatea, eta horretarako ezinbestekoa da lehen pertsonan aritzea. Hezkuntza zentroen eraldaketa prozesuetan, adibidez, hezkuntza komunitate osoak parte hartu beharko luke: irakasle, ikasle, guraso, zuzendari, garbitzaile, zaintzaile, sukaldari, etab. (gorputz aniztasunaren adierazgarri bezala). Aldiz, espazio publiko baten eraldaketaz ari garenean, herritar kolektibo guztiek izan beharko dute presentzia; haur eta gazteek ere bai.

Haurren parte-hartzeaz aritu aurretik, zehaztu beharko litzateke parte-hartzearen helburuak zeintzuk diren. Izan ere, parte-hartze prozesu baten xedea eraldaketa da, horregatik, fokua jarri beharko da prozesuaren garapenean, eta ez hainbeste, aterako den

.....  
8 Testuan egindako adierazpen batzuk baieztatzeko, haurrekin izandako esperientzia errealean adibideak jarriko dira. Esperientzia hauek, Ianire de Andres Olabarriak haurrekin egindako parte-hartze tailerretan oinarrituta daude.



Munitibarko 4-5 urteko haurrek diseinatutako jolas-parkeak (zirkuituak). Iturria: Ianire de Andrés Olabarria (Hirideak)

emaitzan. Horrela, prozesu parte-hartzaile bat esperientzia kolektibo bat izango da, non komunitatearen baliabideak guztion artean kudeatzeko tresnak barneratuko diren. Hau da, parte-hartzea ez da izango bakoitzak nahi duena eskatzeko bidea, aurrekontu eta baliabide kolektiboak guztientzako onuragarri izateko nola erabili erabakitze eskubidea baizik. Prozesua benetan modu aberasgarrian egiten bada, interes handiena izango du eraldaketaren kudeaketak berak, eta emaitza, lanaren ondorio positiboa izango da, ez alderantziz.

Parte-hartzea ondo gidatzea izango da, beraz, arrakastaren gakoetako bat. Horretarako, mediazioa era egokian egingo duten teknikari, aditu eta dinamizatzaileen presentzia beharrezkoa izango da, bai helduekin eta baita haurrekin ere. Bitartekariak prozesuaren bi dimentsioak ezagutu beharko ditu: taldean erabakiak hartzeko tresnak eta dinamikak eta espazioa eraldatzeko eta kudeatzeko teknikak.

Haurren kasuan, ezinbestekoa izango da adin-tarte bakoitzean erraztasunez komunikatu eta lan egiteko gaitasuna. Behin hori horrela, uste baino errazagoa izango da umeekin parte-hartze prozesuak lantzea, izan ere, uste baino gaitasun gehiago dituzte, eta komunitatea osotasunean ulertzeko kontzientzia nahikoa ere bai. Baliabideak mugatuak direla ulertzeko gaitasun osoa dute, eta koherentzia erabakitze gogoia eta erantzukizun sentipena ere bai. Kolektibo ahulena direla jabetzen dira, horregatik, komunitate guztiaren presentzia beharrezkotzat jotzen dute euren bizipoza bermatzeko, eta ondorioz, guztion beharrak aseko dituzten azpiegituretan pentsatzen dute.

Finean, hirien espazioak birpentsatzeko parte-hartze prozesuek hiri modernoak inposaturiko printzipioak eraldatzeko aukerak izan daitezke. Hiria osatzen duten gorputz guztiekin bat egitean gorputz produktiboaren paradigma saltatu daiteke, behar eta desio ezberdin guztien agerraldia ez bada, ez da parte hartze erreala izango, eta espazioen erabilera araudiak guztien artean arautu ezker gorputz diziplinatuaren paradigmarekin





Ondarroako Kamiñazpiko Parkeko diseinu berria sortzeko 4 eta 11 urte bitarteko haurrek sortutako gatazken eta lehentasunen zuhaitza. Enborrean adierazten da parkera zertara joaten diren, 3 adarretan eurentzako beharrezkoak diren ezaugarriak, loreetan egindako proposamenak eta hostoetan jasotako aipamenak. Iturria: Ianire de Andres Olabarria (Hirideak)

aritzeko bidea legoke. Hezkuntza eraikin eta espazioak hiritartasun ariketa honen gauza-penerako komunitate ezin hobea dira, bertan zeharkatzen baitira hiriarekin harremanean diren eragile ezberdin asko eta honela, hiria behingoz hezitzailea izateko bide gerta daitekeelako.

### Erreferentzia bibliografikoak

BANG LARSEN, M.B. y NIELSEN P., *El Model. Un Model per a una societat qualitativa*, Bartzelona, MACBA bilduma, 2010.

CABANELLAS I. y ESLAVA C., *Territorios de la infancia: diálogos entre arquitectura y pedagogía*, Bartzelona, Grao, 2005, 1999.

FOUCAULT M., *Surveiller et punir: naissance de la prison*, Paris, Gallimard, 1975.

FREIRE H., *Educar en verde: ideas para acercar a niños y niñas a la naturaleza*, Bartzelona, Graó, 2011.

JACOBS J., *The Death and Life of Great American Cities*, New York, Random House, 1961. Traducción al castellano: *Muerte y Vida de las Grandes Ciudades*, Madrid, Capitán Swing, 2013.

LEFEBVRE H., *La Production de l'espace*, Paris, Anthropos, 1974.



Haurrak euren auzoko atari aurrean jolasten, babestuta baina aske (Markina-Xemein).  
Iturria: Ianire de Andres Olabarria

PÉREZ OROZCO A., *Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*, Madril, Traficantes de Sueños, 2014.

ROMÁN RIVAS, M. y SALÍS CANOSA, I., *Camino Escolar*, Madril, Sustapen Ministerioa, 2010.

TONUCCI F., *La Città dei Bambini*, Bari, Laterza, 2002. Itzulpena euskaraz: *Haurren Hiria*, Txatxilipurdi Elkartea, 2013.

# Jolastoki biziak. Eskola birnaturalizatzeko aukera

Heike Freire

Hartzaroan eta berrikuntza pedagogikoan aditua

Eskoletako jolastokien inguruko ikuspegia pixkanaka aldatu da azken bi hamarkadetan eta, azken bi urteetan, aldiz, bat-batean. Gutxiengoek gehiengoan ikuskeran, pentsaeran eta jardunbidean duten eraginaren froga egokia da hori. Denbora lapsus labur horretan, eskolen kanpoko espazioak gelen betetasunari erritmoa ematen dioten orube gutxi gorabehera “normalizatu” izatetik ikastetxeen eraldaketa aukeren muinean egotera igaro dira. Horien posizio estrategikoa dela eta, eskolaren kanpoaldearen eta barrualdearen arteko lotailua izan daitezkeela ohartu gara.

**Gako-hitzak:** barnealdea, kanpoaldea, eraldaketa, naturalizazioa.

Baina duela “hilabete gutxira” arte, oso pertsona gutxik ikusten zuen horien gainean esku hartzeko beharra. Arkitekturaren profesionalek ere ez zuten interes handirik erakusten. Arkitekturaren Goi Eskola Teknikoko (Unibertsitate Politeknikoa) Fernando Casqueiro irakasleak 2016an aitortu zuenez, hamar urtez ikerketan aritu ondoren, berak koordinatzen duen ARKRIT Eskola Arkitektura Konparatuari buruzko Ikerketaren Nazioarteko Taldeak datu kopuru izugarria bildu zuen eskola-eraikinen arkitekturaren inguruan, munduko hainbat tokitan, baina datu bakar bat ere ez jolastokien inguruan.<sup>1</sup>

Haurrek, oro har, hainbeste itxaroten dituzten hogeita hamar minutu horiez azkar eta ahopeka mintzatu ohi ziren helduak, eta ezjakintasuna, axolagabekeria, ezintasuna eta lotsa suma zitekeen horretan, “hustubide” izatearen funtzio deserosoa egotzitako espazio-denbora horren aurrean: tarte horretan desagertu behar ziren lan akademikoari eskainitako ordu luzeetan zehar pilotutako nekea, frustrazioa eta tentsioak. Hori bai, ahalik eta modu ordenatuenean.

.....  
1 Ikastetxeetako kanpo-espazioen diseinua. Diseinuaren Goi Eskolak antolatutako mahai-ingurua (2016).

Hezkuntza-helburu espliziturik ez dutenez, “garapena eta ikaskuntza, barruan hobeto” oinarri ahuleko ustea dela kausa,<sup>2</sup> neutroak diruditen espazio horiei funtzio ez hain noblea eta, askotan, deserosoa esleitzen zaie, alegia, zaintza- eta jagoletza-funtzioa, hain zuzen, eskolek bigarren maila batean eta ez beti hala nahita betetzen dutena. Zainzarako edo kontrolerako –eta beraz, deskontrolerako– lekuak izan dira eta dira.

## Cava efektua

John Dewey, Célestin Freinet, Loris Malaguzzi eta Rebeca Wild pedagogo ospetsuak, besteak beste, duela mende bat hasi ziren inguruneak hezkuntza-faktore gisa duen garrantzia azpimarratzen, baita gizakiaren dimentsioak (gorputza, sentsazioa, emozioa, esfortzua, plazera, desira, motibazioa, memoria, irudimena, pentsamendua) ikuspegi holistiko batean bateratzeko beharra ere. Bitartean, eskola gehienetako jolastokiek hezten jarraitu zuten, helduok horretaz ia jabetu ere egin gabe. Pieza garrantzitsua izan dira –eta dira– espazioen eta denboren ehundura estankoan, eta arintasuna, jarraitutasuna, integrazioa eta, finean, bizitza kentzen diote irakaskuntzari eta ikaskuntzari.

Haurtzaroarekin konprometitutako hezitzaile gutxi batzuen lan isil eta jarraituari eta eskola-jolastokietako erabilerari eta haurren esperientziei buruzko bi txosten, bata katalana eta bestea eskoziarra,<sup>3</sup> komunikabideetan argitaratu eta hedatzeari esker hasi zen aldatzen hezkuntza-komunitatearen ikuspegia.

Azterlan horien ondorio nagusietako batzuk honako hauek dira:

- *Cava efektua* delakoa: sedentarismo behartuko, arreta iraunkorreko eta, askotan, nahitaezko isiltasuneko ordu luzeetan pilotutako energiak zurrustaka kanporatzea. (Erre)presio energetiko hori askatzean, oihu, lasterketa edo borroka itxurako agerpen zaratatsu eta kaotikoak gertatzen dira, eta, haurtzaroko adierazpen arrunt eta naturalak diruditen arren, eskola-ekintzen espazio-denborazko antolamenduak berak, alegia, arkitektura-egiturak eragindakoak dira. Hartara, ikasgelaren eta jolastokiaren arteko osagarritasunak betetzen duena iragartzen du: haurtzaroa eta ikaskuntza ulertzeko modu bat proposatu, gauzatu eta, aldi berean, egiaztatzen du.
- Espazioaren erabilera –nagusiki, kirola eta lehia– instalazioen erdigunean kokatutako futbol-pisten mende dago, eta ekintza horietan parte hartu nahi ez duten pertsonak, genero femeninokoak, oro har, ertzetara bideratzen ditu. Heziketa fisikoari buruzko kontzeptu zaharkitu bat sustatzen dute,<sup>4</sup> eta balio maskulino-patriarkalak sustatzen dituzte isilean, besteak beste, indarra, abiadura eta norgehiagoka. Haurrak norabide bakarrean garatzera behartzen dira, eta interes edo gaitasun horiek erakusten ez dituztenak baztertu egin ohi dira.

2 Naturak haurren garapenean eta ikaskuntzan dituen onurei buruzko bibliografia zientifiko oparoa dago. Ikus, adibidez: COLLADO, S. eta CORRALIZA, J.A., *Naturaleza y bienestar infantil*, Hércules eta Salgueiras Fundazioa, 2012.

3 Mac Kendrick, J., *School Grounds in Scotland*, Research Report, 2005. Fundació Bofill (Arg.), *Els patis de les escoles: espais d'oportunitats educatives*, 2010.

4 Tena, I., *Hacia un patio de recreo como espacio natural de juego y aprendizaje. Una mirada desde la educación física*, (argitaratu gabea), 2018.

- Zati handi batean, *cava efektuaren* ondorioz eta inguruan oinarritutako hezkuntza-planteamendu faltaren ondorioz, gatazka kopuru handia gertatzen da jolastokietan, eta horien kudeaketa erabat errektiboa egiten dute zaintzaileek nahiz irakasleek. Kontrola eta zaintza ardatz harturik, debekuan eta hertsaduran oinarrituz portaera erregulatzeko eredia onesten eta iraunarazten du helduen esku-hartze mota horrek, eta ez ditu bultzatzen gatazkari buruzko ikuspegi prebentiboago edo positiboak, ikas-terko aukeratatzat hartzen dutenak.
- Hezkuntza-aukerak ez aprobetxatzea. Haurrek jolastokian igarotzen dituzten ordu kopuruari –ikastetxeetan daudenen ia erdia, eta zenbait ikasgaitan baino gehiago– espazio horiek –eskola-eraikinetan eraikitako metro guztien ehuneko handia hartzen dutenak– hutsik eta erabilerarik gabe dauden denbora gehitu beharko litzaioke. Bitartean, zenbait lekutan, geletan pilaketa-egoerak gertatzen direla salatzen dituzte familiarek, irakaslek eta ikasleek.
- Oro har, ikasle askoren desorientazioa, espazio erraldoi eta huts batera bota dituztela sentitzen baitute bat-batean, eta ez baitakite ondo nola orientatu. Era berean, ez dute aukerarik, ezta nahikoa denborarik ere, erabakiak hartzeko, eta askotan, nahiago izaten dute gelan geratu edo antolatutako ekintzaren batera joan.<sup>5</sup>

## Natura defizita

Analisi hauetan oinarrituz, eskola batzuek ekintza-eskaintza zabala jarri dute abian, inklu-siboagoa eta parte-hartzailleagoa, jolas-orduetarako: tailerrak, jolas tradizionalak, hormen eta zoruen dekorazioa, mugimendurako eta topaketarako guneak diseinatzea, ekipa-mendu ludikoak material birziklagarriekin eraikitzea, etab.

Ekimen hauek guztiak positiboki balioesten ditugun arren, gure ikuspegiaren arabera, eskolako jolastokien eraldaketa aukera paregabea da *eskola birnaturalizatzeko*. Aurrerago ikusiko dugun bezala, *birnaturalizatzeko* ideia hainbat modutara uler daiteke. Errazena, hau: espazioen jatorrizko *ezaugarri biologikoak eta paisaia-ezaugarriak ahal den neurrian lehengoratzeko* urbanizatu, itxi eta zementatu aurreko egoerara. Helburu nagusi hauek ditu:

- Gaur egungo haurrek eta nerabeek jasaten duten *natura defizita*<sup>6</sup> arintzea.
- Ingurune naturalen onura anitzak eta ordezkaezinak aprobetxatzea, haurren garape-nerako eta ikaskuntzarako.

Kanpoan egotea ingurumenarekin egunero kontaktuan<sup>7</sup> haurtzaroko funtsezko es-kubide bat da, baina bizi-estilo modernoaren eraginez (horma barrukoa, sedentarioa eta hiperteknologikoa), gaur egun ez da bermatzen. Zenbait adituren ustez, gabezia hori gaur egungo haur zein nerabeei eragiten dieten nahasmendu eta gaitz fisiko, psikiko

5 Fort Williamen (Highlands-Eskozia) 2006an bisitatu nuen ikastetxe publiko bat gogoratzen dut bereziki. Arte-estudio bat zeukan, ikasleek beren sorkuntzak egin ahal izateko. Jolas-orduan, ia ikasle guztiak joaten ziren hara, jolastokiak hutsik jarraitzen zuen bitartean.

6 Gabezia hori gaur egungo haurtzarokoari eragiten dieten gaitz askoren erantzule izan liteke. Ikus nire liburua *Educar en verde*.artzelona, Graó, 2011, 25. orr.

7 Adituen arabera, 12 urte baino gutxiago dituzten haurrak hiruzpalau orduz jolastu behar dira bere kasa naturan, beren osasunerako eta ongizaterako. FREIRE, H., *Estate quieto y atiende. Ambientes más saludables para prevenir los trastornos infantiles*, 2017, 168. orr.

eta, oro har, garunaren garapenarekin lotutako gaitz askoren arrazoietakoa bat izan liteke.<sup>8</sup> Bereziki garrantzitsua da familia behartsuetatik datozenentzat eta berdeguneetara egunerokoan joateko aukera gutxi dituztenentzat.

Gabezia hori gainditzeko, familiak, eskolak eta hiriak (haurren bilakaerarako hiru inguruneek) beren erantzukizuna onartu beharko dute, haurrei modu osasungarrian hezteko eta garatzeko aukera emateko.

## ***Berdearen abantailak***

Ahaztu ohi dugun arren, biosferaren sorrera geldoaren emaitza da giza espeziea; lehen zianobakterioak<sup>9</sup> duela 4.400 milioi urte inguru sortu ziren, eta eguzki-argiaren bitartez, ur-atomoak deskonposatu, hidrogenoa erabili eta oxigenoa atmosferara askatzen dute. Aurrerago, "estalki bizi" horretan, organismoek ingurunearekin interaktuatzen dute, eta haren ko-sortzaile dira, eta lehen primateak agertzen dira, duela 65 milioi urte, eta, azkenik, *homo sapiensa*, orain 150.000 urte, estrategikoki heldu gabe jaioa: gure garunaren garapenaren bi heren umetokitik kanpo gertatzen da. Irekiera horrek ingurunera moldatzeko aukera ematen digu, baita ingurunea eraldatzekoa ere, baina, era berean, ingurunearen ezaugarriekiko zeharo sentibera bihurtzen gaitu; haren mendeko, gure behar oinarrizkoenak, fisikoak, afektiboak, sozialak, intelektualak eta espiritualak, asetzeko gaitasuna duenez,<sup>10</sup> bizitzako lehen urteetan bereziki. Natura gara; izan ere, nolabait, hura dugu "iturburu"; gure organismoak naturan oinarrituta osatu dira, eta ezin hobeto kalibraturik daude harekin hazi eta garatzeko. Erabat sofistikatua izanda ere, modu artifizialean sortutako espazioek ezin digute mundu naturalak ematen diguna eskaini. *Ez du ordezkorik.*

Ingurune naturalekin dugun *afinitate estuaren* emaitza gisa, norbanako bakoitzak *espeziearen memoria genetikoa* du, bizitzaren hastapenetan bereziki aktibo dagoena. Haurrei naturan askatasunez jolasten uzten badiegu, espeziearen eboluzioaren historiako aldiak berez birsortzen dituztela ikusiko dugu: zuhaitzetara igotzen dira (iraganean izan ginen primate zuhaitzarrak bezala); ehizatzen, arrantzatzen eta baiak nahiz fruituak biltzen dituzte (ehizatarien eta biltzaileen aldiak bezala); begetalak landatzen eta animaliak zaintzen dituzte (Neolitoko nekazariak eta abeltzainak bezala). Gainera, lurrarekin eta urarekin jolastea gustatzen zaie, lokatza modelatzea, babeslekuak eraikitzea, ibiltzea, salto egitea, eskalatzea eta arriskuak hartzea, esploratzea eta misterioak deskubritzea, sua egitea eta beren elikagaiak prestatzea... errealtatean edo modu sinbolikoan.

Hainbat azterlanen arabera, haurtzaroan naturarekin kontaktuan egoteak onurak dakartza, hainbat alderdiri dagokionez:

- Haurren ariketa fisikoak, gaitasun psikomotorrak eta espazio-adimena areagotzen dira, mugimendu-aukera berriak eta konplexuagoak eskaintzen zaizkielako.

8 Juan Antonio Ortégaren eskutik, Espainiako Pediatría Erakundea ingurune naturala aldarrikatzen hasi da haurren garapen osasungarriarako.

9 Zianobakterioetatik zelula begetalak sortu ziren. Bio-esferaren sorrera ezin hobeto azaltzen da Yann Arthus-Bertrand *Home* (2009) dokumentalean.

10 Atmosferaren kontaminazioak, adibidez, arnas funtzioaren garapenari eragiten dio (asma), baita arretaren eta kontzentrazioaren funtzio kognitiboei ere.

- Haien osasun orokorra hobetzen da: naturarekin kontaktuan egotean, alergia, obesitate, miopia.... gutxiago dute, eta hobeto elikatzen dira eta hobeto lo egiten dute.
- Antzietatea eta estresa murrizten ditu. Espazio irekiek eta biodibertsitateak erlaxazioa hobetzen dute. Lasaiago daudenez, areagotu egiten dira autokontrola eta erresiliencia, hau da, bizitzako gertaera zailei aurre egiteko eta horiek "gainditzeko" gaitasuna.
- Haien funtzio kognitiboei egiten die mesede eta, bereziki, arretari (klase-orduek sortutako neketik indarberritzen dira), kontzentrazioari eta memoriari.
- Sormena garatzen du. Azterlanek frogatzen dute haurrek, naturarekin kontaktuan, sormen gehiago erabiltzen dutela jolastean, arazoei soluzio berriak aurkitzen dizkietela eta elkarri gehiago laguntzen diotela.
- Harreman sozialak sustatzen ditu. Aire zabaleko bere kasako jolasaren bidez, modu positiboan erlaxatzen ikasten dute, gatazka gutxiago izaten dituzte eta modu autonomoan konpontzeko gaitasun handiagoa dute.

Abantaila horiek guztiak nahikoa arrazoi izango liriteke natura eskoletan sartzeko, eta zenbait eskolek beren instalazioak berdetzea erabaki dezakete, arrazoi guztiz instrumentalengatik: frogatuta dago errendimendu eta emaitza akademikoak hobek direla leihotik zuhaitzak eta landareak, besterik gabe, ikusten badira edo klase-tartean lorategira minutu batzuk irteteko aukera badago.<sup>11</sup>

Hala ere, jolastokien birnaturalizazioa askoz harago joan daiteke (eta joan beharko litzateke): hezkuntza-sistemaren eraldaketa kulturealean lagundu behar luke, *hezkuntza biofobikotik*<sup>12</sup> *hezkuntza biofilikora*<sup>13</sup> igarotzeko, lurrarekiko maitasuna eta (etorkizuneko) hiritarren kontzientzia ekologikoa lantzean oinarrituta.

Jakin badakigu jasangarritasunaren pedagogiak, ingurumen-hezkuntza "klasikoaren" ardatz izan ohi denak, onenean jokabide-ohiturak (energia aurrezte, hondakinak murriztea, birziklatzea...) aldatzeko balio duela, baina ez da nahikoa pertsonen izakiekiko eta, oro har, planetaren ongizatearekiko konpromiso-jarrera sendoak izateko. Horretarako, ezinbestekoa da pertsonen dimentsio emozionala modu positiboan mugiaraztea.

## Maitasunarekin ikastea

Europar, XIX. mendean, orokortzen diren diziplina-instituzioen (ospitale psikiatrikoa, kartzela, fabrika... eta eskola) gainean egindako analisi sakonean, Michel Foucaultek go-goeta egiten du subjektu modernoaren eraikuntzaz; espazio itxi batean giltzapetuta, eta gorputzaren kontrolaren eta menderatze-sumisio erlazioen bitartez gauzatzen da. Zentro mota horien ezaugarri nagusietako bat da *aisialdiaren eta lanaren erabateko banaketa*, eta eraikinen egituraren bertan zertzen da hori, baita denboraren eta espazioaren antolamenduan ere. Sarien eta zigorren bidez sustatzen da obedientzia; besteak beste, *denbora librearen* edo horren ukapenaren bidez eta, zehazki, jolastokian, *kanpoan*, atsedena gozatzeko aukeraren bidez. Baina, gizarte modernoaren kritikari horrentzat,

11 <http://www.pnas.org/content/112/26/7937>

12 Bizitzari beldur diona.

13 WILSON, E.O. eta KELLERT, S., *The Biophilia Hypothesis*, WA, Island Press, 1993.

*aisialdia/lana banaketaren* eta horren ondoriozko botere-harremanaren okerreana, zehazki, derrigorrezko hezkuntzan, ez da banakoak esaneko bihurtzea, baizik eta jakinduria *dese-rotizatzea*. "Ikasteko zereginari" ematen dion garrantziarekin eta hori ez betetzeak ezinbestean dakarren erru-sentimenduarekin, irakaskuntza konbentzionalak ezagutzari eta ikasten duen subjektuari ikastearen berezko plazera kentzen dizkie: aurkikuntzarekiko pasioa, gogo bizia eta berezko jakin-mina, guztiak ere giza ezaugarri natural direnak. Hel-duen munduan, askotan, beharrak ezinbestean eraginda lan egiten bada, eta ez goza-menak, *ikasteko plazera alde batera utzi al dezake benetako ikaskuntzak?*

Ezagutzarekiko maitasuna naturarekin harremanean daudenean izakiengan (eta giza-kiengan) pizten den maitasunaren alderdi bat baino ez da. Xalotasuna eta harridura ditu sorburu, bizitzarekin liluratzeko gaitasuna, haren sorkariekin txunditzekoa, magiarekin sorgintzekoa, ederrarekin gozatzekoa eta misterioekin irrika sortzekoa. Harreman eta emozio horiek, jakintza-arlo askotako profesional garrantzitsuen biografien analisisen arbera, gaitasun zientifikoen nahiz eskumen artistikoen garapenaren oinarrian daude. Natura jolastokietan berriz sartzea izan daiteke jakintza berriz erotizatzeo giltzarria, ikas-leei pasioa berreskuratzen laguntzeko; izan ere, hezkuntza-sistemak, zoritxarrez, pasio horren falta handia du gaur egun. Hori egingarria izango da, baldin eta eskolak prest badaude birnaturalizazioaren kontzeptuan sakontzeko eta kontzeptu hori azken ondoreetara iraino eramatera ausartzeko.

## Birnaturalizazioa prozesu gisa

Eskola-instituzioa birnaturalizatzeo, instituzioaren egitura eraldatu behar da, organikoagoa izan dadin, ingurunean txertatuagoa, eta bere baitan hain itxita egon ez dadin. Zelula bat balitz bezala (eta ez makina bat edo bunker bat) birpentsatzeko eta berrantolatzeo aukera dugu; nukleoa (barne-espazioa), zitoplasma (kanpo-espazioa) eta porodun mintza (muga fisikoak, baina baita mentalak eta sozialak ere), zeina ingurunearekin etengabeko harremana baitago. Irekiera hori pixkanakako prozesu moduan ulertu behar da (eta ez emaitza puntual moduan), aurrera egiten duen bi norabide hauetan:

- Barrurantz, barne eta kanpo espazioak antolatuz, ikasleen ongizatea lortzeko eta beren benetako beharrak asetzeko (mugimendua, parte-hartzea, konpetentzia, autonomia, erlazioa...); eta ikaskuntzarako ingurune dinamiko, malgu eta arinagoak sortuz, gizakiaren dimentsioak modu harmonikoan bateratu ahal izateko.
- Kanporantz, hezkuntza komunitate zabalaren sorrera eta/edo sendotzea babestuz, familiak, irakasleak, ikasleak, ingurune asoziatiboa eta abarrak bateratzeko, elkarri laguntzeko sarea eratuta. Klima-aldaketari eta biodibertsitatearen galerari aurre egiten lagunduz, eta, horretarako, auzoei, herriei eta hiriei berdeguneak eskainiz, horiez goza dezaten, zuzenean edo zeharka, bai gizaki ez diren izakiek bai bai hiritarrek.

Prozesu geldoa da, ezinbestean. Aldaketa azkarregiek ez diote mesederik egiten ikaskuntza kolektiboari. Komunitate osoak beharrezkoa du eszenatoki berrira moldatzea, beldurak galtzea, sinesmen eta jarrera biofobikoetatik askatzea, zenbait trebetasun bereganatzea... Irakasleek gaitasun berriak garatu behar dituzte, banakoak nahiz taldeak kanpo-espazioetan laguntzeko eta kudeatzeko. Haurrek eta gazteek beldurak galtzen, autonomoagoak eta arduratsuagoak izaten, arriskuak kudeatzen... ikasi behar dute. Fa-



miliek haurren eta nerabeen (eta irakasleen) trebetasunekiko konfiantza landu behar dute, segurtasun aktiboa eraikitzeko, modu espontaneo eta naturalagoan hazi eta ikasteko, energiak eta emozioak autoerregulatzeko, gatazkak kudeatzeko... Kanpo espazioetako hezkuntzak barne-espazioetakoa baino kaotikoagoa eta ordena gutxiagokoa dirudi, baina, era berean, errealagoa, ez hain simulatua, biziagoa... da. Horregatik, funtsezkoa da pixkanaka-pixkanaka aurrera egitea, nahi den norabidean urrats txikiak ematea eta, batez ere, lorpenak ospatzea, txikiak izan edo hala iruditu arren.

.....  
Oharra: Artikulu hau *Patios vivos: una oportunidad para renaturalizar la escuela* liburuko lehen kapituluko pasarte bat da. Carme Colls, Pitu Fernández eta Jordi Sargatal egileen lan-kidetzarekin argitaratuko da aurki, Octaedro argitaletxearen bidez.

# Sarrigurengo lorategi tematikoa

Hermanas Úriz Pi HLHIP, Sarriguren

Eva Esther Blanco de Miguel, irakaslea eta idazkaria  
eblancod@educacion.navarra.es

Sarrigurengo Hermanas Úriz Pi HLHIPko hezkuntza komunitatearen ezinegon eta berehalako beharrari erantzuten dio proiektu honek. Bi ikasturte daramatza abian, eta iaz, 2016-2017 ikasturtean, ireki genuenetik bertatik, jolastokiak zer arazo sortu behar zuten ikusi genuen.

**Gako-hitzak:** jolasguneak, natura, zentzumenak, parte-hartzea.


## Nola sortu zen

Jolastokiaren egitura, zer espazio eta material ditugun, haurrek jolastokian zenbat denbora pasatzen duten, non jolasten diren, nola jolasten diren eta norekin eta zerekin jolasten diren aztertu ondoren, espazio horren egungo beharrei konponbidea ematea da asmoa.


Behar guztiei erantzuten dien jolastokia sortuz gero, ibarreko komunitate guztiari egiten zaio mesede, pertsona guztientzako jolastoki bilakatuko baita. Hala, bizikidetzari, harmoniari, komunikazioari, jolasari... mesede egingo dion ingurunea sortzea da helburua, lasaitasuna, gozamina, sosegua eta ikaskuntza eskainiko dituen heziketa-espazioa, hain zuzen.

## Gabeziak, hutsuneak eta eragozpenak


Lurzoruak gehiegi islatzen du eguzkiaren argia eta, gainera, oso irristakorra da. Jolasgune eta landare gutxi daude. Babesten eta freskotasuna ematen duten eta ingurune fisikora moldatzen diren itzal gutxi ditu. Inguruneko tenperaturak gora egiten duenean, haurrek eta helduek eguzkiaren eragin zuzenaren efektu negatiboak jasan behar dituzte. Jolastokira begirako leihoak dituzten geletan, tenperaturaren igoera nabarmena frogatu da. Ez dago euriaren edo elurraren aurkako babesik. Jolas autonomoa, sormena eta garapen fisiko, motor edo emozionala sustatzen duten espazio gutxi daude.



Hermanas Úriz Pi Ikastetxearen goitiko bista. Iturria: SITNA-Nafarroako Gobernua




JARDÍN TEMÁTICO EN SARRIGUREN  
PLANTA ESTADO ACTUAL



JARDÍN TEMÁTICO EN SARRIGUREN  
PROPUESTA DE DISEÑO ORIENTATIVA

Lorategi tematikoaren proiektua



Zoruan jolasak margotzeko proposamena

## Zergatik, zertarako

Naturatik hurbilago dagoen eta adeitsuagoa den ingurune bat lagungarria da haurrek unean uneko gaitasunak modu naturalagoan garatzeko, bere kasa, aurkikuntza bidezko ikaskuntzaren bidez. Esperientzia sensorialek haurren kanpo mundua bere barne mundu afektiboarekin lotzen dute; zentzumenen bidez ingurunea esploratzeko eta horrekin jolasteko askatasuna beharrezkoa da haurren garapenean.

## Nola hasi ginen

Gabezia eta behar guztiak bildu ondoren, ikastetxearen zuzendaritzak eta irakasle talde batek arazo guztiak aztertu genituen eta proiektu bat sortu genuen jolastokian zer konfigurazio nahi genuen zehazteko.

## Zer nahi genuen

Eskolako jolastokia espazio atseginagoa eta integratzaileagoa izatea nahi dugu, haurrentzat eta haurrek pentsatutako espazioa, ikastetxearena soilik izan beharrean, Sarrigurengo biztanle guztiena izango dena, jarduera ludikoak eta hezkuntzakoak sustatzen dituen.

Horretarako, zer espazio eta elementu natural eta jolaserako zer gune, giro eta txoko nahi genituen erregistratu eta zehaztu genuen:

- Enborren eta gurpilen gunea.
- Uraren gunea.
- Malden gunea.
- Etxetxoaren gunea.
- Zuhaitzen eta landareen gunea.
- Rokodromoa.
- Pista amerikarra.
- Lurzoruan jolasteko gunea.
- Lasai jolasteko gunea.
- Jolas sinbolikoaren gunea.
- Gurpilen gunea.
- Musikaren gunea.
- Hesiko arbelen gunea.
- Lurzoruko guneak, material naturalekin.

Jolasguneak sortzeko, Hezkuntza Departamentuari berrikuntza proiektu bat aurkeztu genion, eta, aldi berean, lau espazio eraiki ahal izan ditugu, eskolako familiekin egin ditugun tailerretan: liburutegia-atsedenerako gunea, uraren gunea, musikaren gunea eta sukaldearen jolas sinbolikoaren gunea.

Era berean, proiektu bat aurkeztu genion Volkswagen enpresari, eta, horri esker, 50 palet eman zizkiguten jolaserako eremuak eta guneak eraikitzeko.

## Nola lortu genuen

Batzorde parte-hartzaile bat sortu genuen gurasoekin, irakasleekin eta zuzendaritzarekin; proiektua aztertu eta hobetu genuen, eta guraso batek "Egues Ibarreko aurrekontu parte hartzaileak" proiektua aurkeztu zuen, hiritarrek bozka zezaten. Gehiengoa gure proiektuaren alde agertu zenez, udalak 60.000 € emango ditu Sarrigurengo lorategi tematikoa eraikitzeko.

## Zertan datza gure proiektua

Sarriguren hiriko espazio natural adierazgarrienak eraikiko ditugu jolastokian, hiritarrei horiek ezagutarazteko eta,aldi berean, jolaserako espazio bat izan dadin. Maldek eta jolasek inguruko paisaiako espazio ezagun batzuk iradokiko dituzte: Lakua (harea kutxa), Barranco Grande ubidea eta Karrobide (bideak), Malkaitz, Irigarai eta Bordalarre mendiak (maldak), Iruñeko eta Badostaingo ateak (pergolak), behatokiak (maldak), zubiak, herria (etxetxoak), landaredia (zuhaitzak, zuhaixkak...) eta hiriko animalia autoktonoak (rokodromoa).

### Lorategi tematikoaren garapena eta sorrera

1. fasea: Jolastokia naturalizatzeko lanak: lurra aldatzea-naturalizatzea, zuhaitzak landatzea, identifikazio-zutoinak jartzea.
2. fasea: Ikasleekin zuhaixkak landatzeko tailerrak.
3. fasea: Lurralde finkatzea, hautatzea eta higiezinak kokatzea: etxetxo, pergola nagusia, enborren eta gurgipen jolasak, basoko pista amerikarra. Identifikazio-zutoinetan kartelak jartzea. Jolaserako eremuak eta guneak kokatzea eta amaitzea. 2018ko maiatzerako edo ekainerako amaitzea aurreikusi da.
4. fasea: 2018-19 ikasturterako aurreikusia: hesian arbelak jartzea, rokodromoa eta lurzoruko jolasak margotzea.





## Hausnarketa eta ondorioak

Espazio horren eraldaketak haurren garapen fisiko, sozial eta emozionala laguntzen eta sustatzen du. Horrez gain, gure jolastokia udalerrri osoko gurasoen eta seme-alaben bizikidetzeta eta gozamena hobetzeko funtsezkoa dela uste dugu.

Jolasteko nahia eta gaitasuna fisiologikoki ezinbestekoak dira, eta helduei dagokigu ikastetxeetan jolasteko egoerarik hoberenak ahalbidetzea.

# Auzotik ibiltzeko ideiak

Mendillorri Haur Eskola, Iruña  
Concha Gaztelu Albero, hezitzailea  
congaztelu@hotmail.com

Askatasunean ibiltzeko aukera eskainita, haurrek norabiderik eta helbururik gabe ibiltzea hautatzen dute. *Hemen eta orain* bizi dira, bizi osoa doakie egoera eta une bakoitzean. Horregatik, ikuspegi *situazionista* gure eginda, auzoan noraezean ibiliko gara.

Ez daude bi esperientzia berdin. Ez da ezer iragartzen, ez da ezer aurreikusten, zer gerta daitekeen behin gertatuta jakingo dugu, baina ezustekoa pizgarri izango dugu bi- zipen osoan.

**Gako-hitzak:** haurtzarora, errespetua, auzoa, deriba, urratzea.

IDEA aldizkariaren 45. zenbakian, 2016an argitaratu zen proiektu batez ari gara. Esperientzia horrek bizirik jarraitzen du eta, nolabait, Iruñeko beste udal haur eskola batzuetara zabaldu da. "*Huellas de infancia*" izeneko dokumentalean, horietako bi ekimen jasotzen dira: Izartegi eta Mendillorri.

Martxan erraz jar daitekeen esperientzia da, bitarteko gutxi behar dituelako. Auzoa du ardatz, eta gure esku dugu une oro. Aukera sorta zabala eskainiko digu, eta haurrek badakite horiek aurkitu, sortu eta berrasmatzen.

Hala ere, konplexua da. Hainbat aldagai dago tartean, eta zaila da horiek banakatuta aztertzea. Mamira hurbilduko gaituzten oinarritzko hainbat ideia ateratzen saiatuko naiz, independenteak ez direla ahaztu gabe; aitzitik, nahasi, gainjarri egiten dira, elkarri darraioten, osotasun interkonektatu batean.

## 1. "L'occhio se salta il muro"

Malaguzziren metafora hartzen dut, gure esperientzia islatzeko.

Bai, eskolak murruren gainetik egiten du salto; horma fisikoen gainetik ez ezik, ohi- turen, errutinen, ideia errotuen, eredu ezagunen eta abarren murruren gainetik egiten du



Mendillorri HEren kokapena. Iturria: SITNA-Nafarroako Gobernu

salto. Eta auzora ateratzen da esperientzia berrien eta behatzeko, deskubritzeko, ulertzeko, harritzeko, sentitzeko, hunkitzeko, partekatzeko zein bizitzeko modu berrien bila.

Esperientzia honen funtsezko bi alderdi nabarmendu nahi ditut:

- Auzo berean bizi gara. 37 urte lanean eman ondoren, inoiz ez nuen ikuspegi horretatik ikusi, eta harritu egin naiz ohartu gabe nengoen horrenbeste alderdi ikusita, eta hurrei eskeri horiek berraurkituta. Bertako ingurunerekin harremanetan sartzen gara:



- Natura oso presente dago Mendillori auzoan, eta baliabide anitz eskaintzen ditu, haurren berezko irrika eta jakin-mina asetzeko. Urtaeroekin aldatzen den landaredia antza, lurra, ura, animaliak, gertakizun meteorologikoak...
- Hiri-guneak, bertako ibilbideek, altzariek, eskailerek, arrapalek, eskudelek, iturriek eta eraikinek jolas-guneak sortzen dituzte, neska-mutilek hamaika modutara baliatzen dituztenak.
- Ingurune sozialean gertatzen da oinezkoen, merkatarien, profesionalen eta jarduera-zentroen arteko trukea.
- Haurtzaroak presentzia hartzen du auzoan. Haurrak jada ez dira pertsona helduen mende mugitzen batetik bestera, *bere kasa* baizik. Jolasetan, ibilbideetan, jardueretan, manifestazioetan ikus daitezke maiz. Hau da, auzoa bere kabuz bizi dute, beren existentziari balioa ematen diote eta, neurri batean, gizartean dagokien tokia aldarrikatzen dute.

## 2. Deriba ludikoa

*Deriba* deritzogu nora ezera lerratzearen kontzeptu *situazionistari*. Haurrak ikuspegi horren arabera bizi dira. Haurren ibilera gidatzen du bidean aurkitzen duenak, gertatzen denak, interesgarria denak edo une bakoitzean sentitzen duenak. Ez du axola ibilbidea luzea den edo eskolako atetik harago ez doan. Interesa eta bizipena edozein lekutan aurki daitezke, edozein unetan eta edozein egoeratan. Igaroan datza guztia.

Aurrez ezarritako ibilbiderik gabe abiatzen gara, haurrek hautatzen duten noraezean. Ibilbide itzuleran bakarrik jakingo dugu, dagoeneko burutu dugunean.

Batzuetan elkarrekin jarraitzen dute, baina, bestetan, hainbat bulkaden eraginez, ibilbide desberdinak egiten dituzte. Ez du axola, beti dute atzetik doan norbait.

Helduak haurra laguntzen du, eta haren interesak eta denborak errespetatzen ditu, esku hartu eta zuzendu gabe. Haurrak behatu, eta horien zergatiak eta nolakoak ulertzen saiatzen da.

Presaren eta denboraren presiorik gabe, haurtzaroa ezaugarritzen duten ezustekoaren, emozioaren, aurkikuntzaren, sormenaren eta graziaren plazera kutsa diezagukete haurrek.

Baiki, helduek laguntzea komeni da, haurrek bizi-esperientziarik ez dutenez, balizko arriskuak saihesteko. Errespetuzko laguntza da, haien bizitzaren, interesen, proiektuen edo erabakien jabe ez dena.

Maiz, funtsik gabeko beldurrak ditugula erakusten digute. Era berean, beren mugak ezagutzeko eta behar bezala erabiltzeko gai dira, horiek egiaztatzeko aukera ematen badiegu.

Hausnarketa horrek eztabaida handiak pizten ditu haurren segurtasunaren arduradun uste garenon artean *erronka eta arriskua* bereizten dituen lerroa ezartzeko orduan.

## 3. Elkarrizketak

Parte-hartzaileok banakotasun guztiekiko errespetu handiz bizi dugu esperientzia, adinari garrantzirik eman gabe, ezta haur, senide edota hezitzaile izateari ere.



Bizipen guztiek garrantzi berbera dutela azpimarratzeko eta helduek maiz gureganatu dugun rolari uko egiteko diot hori. *Egiten jakitearen* jabeak garela pentsatu dugu, eta haurrak, ordea, ezgauza direla. Hala, haurrak gidatu eta bideratu behar genituen, eta haien ordeaz erabaki, haurrei protagonismoa kenduz eraikuntza pertsonalean.

Praktika horrek haurren gaineko ikuspegi desberdin bat dakar, gu guztiak berdinduta. Bizipen bakoitzak banakotasun pertsonal bakoitzaren balioa hartzen du, eta gainerakoan aitopenarena. Adinak ez du axola.

Ikaskuntza etengabe, anitz eta desberdinen bultzatzailea da parte-hartzaile bakoitzarentzat, eta guztiak dira baliotsuak. Haurtzaroan, esperientziatik bertatik jaiotzen dira. Helduok, gainera, hausnarketaren laguntza ere behar dugu. Irteera bakoitzaren aurretik eta ondoren, familiak eta hezitzaileak elkartzen gara, errespetuzko laguntzaren jarrerak gogoratzeko eta, itzultzean, bizitakoaz hitz egiteko.

Oso estu lotuta gaude haurtzaroaren gaineko ikuspegi tradizionalera. Ohiturek, norberaren bizipenek, gizarteko presioek eta inguruneak haurrekin ditugun erlazioen kanon zehatz batzuetara eramaten gaituzte, baina horiek krisian jartzen hasi da praktika hau.

Ikuspegiak, zalantzak, ziurtasunak, kolokan dauden segurtasunak eta emozioak partekatu behar dira, haurtzaroaz dugun irudia eta horrekin erlazionatzeko dugun modu pertsonala eraiki eta berreraikitzeko. Eta ez dago ezer hoberik esperientzia partekatuan oinarritzea baino.

Jardunbide errotuak aldatzea, aldaketa hori egokitzen edo desegokitzen jo dezakegun arren, ez da beti erraza. Askoz egingarriagoa da gure hurbilekoen konpainian egiten badugu, gure egoera berean eta antzeko zailtasunetan daudenean, kritikatu eta epaitu beharrean, ulertzen, laguntzen eta proiektu komun baten kide sentiarazten gaituztenekin. Hau da, proiektu honetan parte hartzen dugun pertsona helduen multzoa.



#### 4. Haurtzaroaren kultura

Haurrak gaitasunak dituztela hartuko dugu abiapuntutzat, eta ahalmen ugari, bizi ikuskera berezkoa, eta eskubidea dutela zerizan hori errespetat dakien, baita beren bilakaeraren ibilbidea zehazteko ere.

Haurtzaroa garrantzi gutxiko etapa dela uste dute zenbait sektorek oraindik, eta, edukiak bereganatu ahala eta helduaroa (etapa garrantzitsua) hurbildu ahala, haurtzaroak geroz eta balio gehiago duela. Ideia hori, hala ere, bazterrean utziko dugu.

Geroz eta pertsona gehiago dago ideia horren aurka, baina lehenengo irudia defendatzen dugunok ere haurren izaeraren azterketa etengabea egin behar dugu, horren inguruko ezagutza handiagoa eta hobea izateko, eta behar den neurrian balioesteko. Une oro harritzen eta hunkitzen gaituzten eta oraindik deskubritu ez ditugun alderdi, ertz edo ñabarduren mundu amaiezina da. Beti dago zerbait berria, zerbait gehiago.

Gure esperientziak interes berezia ematen dio helduen mundua haurren bizipenetara hurbiltzeari. Gure begiradak oharkabea joan diren xehetasun horietara bideratzen saiatzen da; izan ere, horiek antzeman orduko, balioa hartzen hasten dira. Balizko erantzun desberdinak dituzten galderak egiten dizkigu, eta erantzunok hainbat interpretazio izan ditzaketenez, haurtzaroari buruzko ikuspegia aberasten da, eta konplexutasuna nabarmentzen ikusten dugu.

Haurtzaroaren inguruan dugun ikuspegia aldatuz doa, eta zentzu eta balio gehiago hartzen hasi da. Haurrek, beren aldetik, senideen eta hezitzaileen interes, balorazio eta errespetua jasotzen dute, eta azken horiek haurren jardunbide, aitoren eta identitateaz poztzen dira. Baina ez da hemen amaitzen. Esperientzia ez da senide zuzenetara mugatzen; izan ere, aitona-amonek edo osaba-izebek laguntzen gaituzte maiz. Eta, esperientzia parte hartu ala ez, biztanle zirkulu zabalagoetara ere heda daiteke.

Praktika honek, agian, hazitxo bat landatuko du, oro har, haurtzaroaren eta, zehazki, lehen hiru urteen aitoren handiagoa lortzen laguntzeko.

Bestalde, helduok –senideek, hezitzaileek edo gertukoek–, gure seme-alaben bitartez, *haurtzaroaren mundu* berri batekin egiten dugu topo. Ikertzeko, berreraikitze eta



aintzat hartzeko esparru interesgarria da, eta ezin daiteke ahaztu bi munduen artean ezartzen den interrelazioa, haurren eta gizarteko beste sektore batzuen aldebereko bila-kaera dakar eta.

## 5. Dibertsioa eta transgresioa

Hezkuntza-praktika batek zentzua izan dezan, interesgarria eta erakargarria izan behar du parte-hartzaileentzat.

- Haurrek etengabe erakusten digute auzotik ibiltzeak eragiten dien plazera; egoera berriak, makina bat aukera eta zer ikertu franko.  
Eta hori guztia askatasunean, ohikoa den horretatik kanpo, ohitura urratuz maiz. Egoera zehatzen aurrean haurrek helduei baimen eske zuzentzen dizkieten begiradek agerian uzten dute oinarririk gabeko muga inplizituak daudela. Horrek zer pentsatu handia ematen du.
- Familiek ere interesa adierazten dute haurrak beste ikuspegi batetik ikusteko. Haurrez eta haurrekin gehiago gozaten dutela aipatzen dute. Ezartzen dituzten harremanak eta jarrerak birplanteatzen dira. Irteerak esperientzia interesgarria eta dibertigarria direla adierazten dute, “mendekotasuna” sortzen dutela.
- Nik, hezitzaile naizen aldetik, praktika bat edo irteera bat hastera goazen bakoitzean, dualtasun emozional bati egiten diot aurre.
  - Alde batetik, eskolak sortutako zeregin baten ardura nire gain hartzen dudanean, dena kontrolpean izateko beharra sentitzen dut. Nora joango garen, zer gerta daitezkeen, zer zailtasun sor daitezkeen, nola konponduko ditudan... Pixka bat galduta eta urduri sentitzen naiz. Erantzunik gabeko galdera horiek nire irakaskuntza tradizionalarekin aurrez aurre jartzen nauten, eta haurrekiko mesfidantza halako bat uzten didaten agerian.

- Bestalde, ziurgabetasunak berak abenturaren eta ezustekoak topatzearen plazera eragiten dit. Esperientzia bakoitza desberdina da, eta itzulera bakoitzak hurrengo ibilbide ezezagunarekiko interesa pizten dit.

Praktikak errepikatuz doazen neurrian, haurrengan dudan konfiantza areagotuz doa, geroz eta gehiago sentitzen dut beraiekin nagoela –eta ez, besterik gabe, beraien ondoan nagoela– eta esperientzia komun baten kide naizela. Nire beldurrak murriztuz doaz, bizipen hori partekatzeak sortzen didan plazera areagotzen den bitartean.

Baina esperientzia ez da hemen amaitzen. Ekartzen dizkigun onurak ez dira irteeretara soilik mugatzen, ez dira kanpoan geratzen; aitzitik, itzultzen garenean, guregan sartzen dira, eta gure irakaskuntza blaitzen dute.

### **Erreferentzia bibliografikoak**

Hainbat egile, *Internacional situacionista*, I. liburukia: *La realización del arte*. Madril, Literatura Gris, 1999.

MALAGUZZI, L., *L'occhio se salta il muro*, Madril, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa, 1985.

TONUCCI, F., *La ciudad de los niños*, Madril, Germán Sánchez Ruipérez Fundazioa, 1997.

FREIRE, H., *Educar en verde*, Familia y educación bilduma, Bartzelona, Graó, 2011.

# Gure ingurunea habitatzea

## Haurtzaroaren presentzia hirian.

### Iruñeko pasealekuak eta lorategiak

San Francisco HLHIP, Iruña

Haur Hezkuntzako lantaldea: Marisa Aldaz Igoa, Itziar Arriazu Arrondo,  
Bárbara Beriain Sanz, Joaquín Escaray Lozano, Pilar Gonzalves  
Calatayud, Saioa Lecumberri Galdeano, Josu Mendioroz Senao  
jescaray@educacion.navarra.es

Nola bihurtu hiria haurrentzako atsegino? Nola lortu haurtzaroaren presentzia eta ikusgarritasuna handitzea espazio publikoetan? Nola lortu jolasa eskolako geletatik harago joatea eta kalera ateratzea? Gure eskolako haurrek Iruñeko espazio publikoak ezagutu eta habitatu ditzaketela ardatz harturik, proiektu hau planteatu genuenean, galdera horiek eta beste batzuk bururatu zitzaizkigun, haurren jolaserako eta ikerketarako aukerak zabaltzeko helburuarekin.

**Gako-hitzak:** presentzia, ibilbideak, habitagarritasuna, kanpoko jolasa, erronkak, konfiantza.

## Testuingurua

Gure ikastetxeak hiru hizkuntza-eredu ditu, familia oso heterogeneoekin, jatorriari, kulturari, hizkuntzari edo erlijioari dagokienez. Gure proiektua, hain zuzen, Haur Hezkuntzako A ereduko ikasleetan ardatzen da (euskara irakasgaia duen gaztelaniazko irakaskuntza). Gure ikasleen % 99 beste herrialde batzuetako familietatik dator. Egoera horrek kultura-aberastasuna dakar, baina, ikusi ahal izan dugunez, egoera konplexuak sortzen ditu, atzerriko familiek hiriko espazio publikoak bizitzeko duten moduari dagokionez.

Familiei hainbat ikasturtetan egindako elkarrizketetan ikusi dugunez, atzerriko familietako haurrek hiriko espazio publikoak erabili ahal izatea eta horietan presentzia izatea eragozten dute zenbait isolamendu-egoerek. Zentzu horretan, *migrazio-doluaren* kontzeptuak presentzia hartzen du gure familietan, gurasoek, eskolaren ondoren, jolasteko aukera bakarra etxe barruan dagoela erabakitzen dutenean, etxea espazio segurua dela eta bizi duten errealitatetik isolatuta dagoela uste baitute.

Egoera horren ondorioz, familiek eta seme-alabek ez dute ikusgarritasunik gure hiriko plazetan, parkeetan eta lorategietan. Bestalde, eskolaren osteko jolasa etxean ardatzen



San Francisco HLHIPren kokapena. Iturria: SITNA-Nafarroako Gobernu

denean, ingurunean egoteko eta hori esploratzeko aukerak murrizten dira. Jolasa, zentzu horretan, etxeko jostailuetan eta gailu elektroniko nahiz informatikoetan ardatzen da.

San Francisco ikastetxeko ikasleak kanpoko espazio publikoetan jolastea, eta horietan esperimintatu ahal izatea du helburu gure proiektuak, ikertzeko eta beste gizarte-harrem-  
man batzuk garatzeko aukera izan dezaten eta aukeraz beteriko espazio batean ibiltzea eta habitatzea zer den bizitzen lagun diezaien.

Haurrek familiei kanpo-espazioan habitatzeko beharra kutsatzeko ahalmena dutela sinesten dugu. Hori dela eta, gurekin batera aritzeko eta esperientzia hau gertutik bizi-  
tzeko aukera eskaintzen zaie familiei.

Espazio desberdinak eta, aldi berean, osagarriak hautatzen dira. Ingurunean gertatzen diren aldaketak ikusteko eta bizitzeko aukera ematen digute. Haur Hezkuntzako lantaldeak hautatu eta egiaztatu ditu espaziook, eskaintzen dituzten jolaserako aukerak eta segurtasun baldintzak aintzat hartuta. Espazio horiek, era berean, klima baldintzen arabera erabiltzen dira.

Haur Hezkuntzako lantaldearentzat oso garrantzitsua da proiektuak espazio bakoitzera etengabe itzultzeko aukera ematea. Ezaugarri horri esker, aurreko astean hasi ziren jolasekin hurrengo astean jarraitzeko aukera ahalbidetzen da eta, ikasitakoarekin, espazioak ematen dituen aukera guztiak ezagutzeko eta esperimintatzeko aukera dute ikasleek. Espazio berdinerantz itzuli ahal izateak aukera ematen die hasitako proiektuak egiten jarraitzearekin edo berregitearekin amesteko.

Espazio bat habitatuta dagoela uste dugu bertan ordu asko pasa eman badira, emozioak eta sentimenduak lekuaren irudi mentalekin lotuta badaude, inguruko guztia norberaren larrua bada.

Francesco Tonuccik maiz hitz egiten du hiri atseginoak sortzeko behararen inguruan. Bere liburu eta hitzaldietan aipatzen duenez, "haurrentzako onuragarria dena guztiontzako onuragarria da". Zentzu horretan, haurtzaroak hirietan ikusgarritasun handiagoa izatea lortzen baldin badugu, helduren bat konturatuko da, agian, haurrek, baita helduek ere, espazio atseginoak behar ditugula.

Haurrek espazio publikoetan presentzia izan behar duela aldarrikatu nahi du gure proiektuak. Horretarako, jolaserako espazioak handitu behar dira, eta alde batera utzi behar da haurrak jolaserako eraiki diren espazioetan soilik, hau da, parkeetan, jolas daitzkeen ideia.

Haurrek eta haurrentzat pentsatutako espazioak gaitu behar dira hirietan. Bisitatzen ditugun espazioetan haurrak behatuz gero, beren jolasteko interesen, beharren eta espazioa habitatzeko moduaren berri izan dezakegu.

Haurrak entzutea beharrezkoa da hiriaren eraldaketarekin jarraitu ahal izateko.

## **Konpetentzietan planteatu diren helburuak eta edukiak**

- Nork bere gorputza ezagutzea, nork bere jarduteko eta adierazteko aukerak deskribituz: pasealekuetan bertan edo bisitatzen ditugun parke edo espazio naturaletan garatzen diren jolasetan, beren gorputzaren eta ingurunea osatzen duten elementuen jarduketarekin esperimintatzeko aukera dute haurrek. Adibidez, sokasaltoan jolasten ikasten dutenean, zabuan igotzen saiatzen direnean edo zuhaitz batera igo nahi direnean.
- Eguneroko egoerak eta arazoak konpontzeko ohiko jarduerak geroz eta autonomia handiagoz egitea: irteeretan gertatzen diren ohiko egoeretan, nolabaiteko gaitasuna eta ekimena behar da horiek konpontzeko. Adibidez, komunera joan behar dutenean, erori egiten direnean edo berdinen arteko gatazka bat sortzen denean.
- Autoestimua-sentimendua eta ekimen pertsonalerako gaitasuna areagotzea helduaren laguntzaren eta gidaritzaren bidez: aurretik aipatutako egoeren konponbideak haurrak bere buruarengan eta bere gaitasunetan duen konfiantza sendotzen lagun dezake.





- Ingurunea modu aktiboan esploratzea eta behatzea: funtsean, haurrei ateratzeko eta ingurunearekin esperientzia zuzena bizitzeko aukera ematean datza.
- Zenbait egoera eta gertakari nabarmenen interpretazioak eta hipotesiak egitea, eta horien ezagutzarekiko interesa adieraztea: helburu garrantzitsu honen bidez, espiritu zientifikoa eta ikerketarekiko jakin-mina sendotzea bilatzen dugu. Adibidez, zuhaitzetako hostoak erortzen direla, iturriko ura izozten dela edo parkeko zenbait lekutan lokatza sortu dela ikustean, egoera horien zergatiaz galdegiten diogu gure buruari, eta balizko arrazoen inguruan hausnartzen dugu.
- Gainerakoekin erlazionatzea, portaera sozialerako jarraibideak pixkanaka barneratuz eta jokabidea horietara egokituz: gainerakoekin ingurune ireki batean erlazionatzen garenean, zenbait jokabide sozial orokortzeko eta portaera egokituz joateko aukera sortzen da. Hainbat egoera suerta daitezke, adibidez, norbaiti laguntza emateko edo elkarrekin jolasteko egoerak, baita gatazka egoerak ere, non portaera egokitu beharko baitute.
- Gertuko beste gizarte-talde desberdin batzuk ezagutzea: ingurunea eta bertako elementuak behatzeaz gain, bertako gizarte taldeak ezagutu ahal izango dituzte.
- Elementuak eta bildumak funtzionalki manipulatzeko, horien ezaugarriak eta nolokotasunak identifikatzea, eta multzokatzeen, sailkapenen, ordenaren eta kuantifikazioaren araberako erlazioak ezartzea: naturak eta inguruneak aukera eskaintzen dute bertako elementuak zuzenean manipulatu eta horiekin esperimendatzeko. Adibidez, harriekin, makilekin, hostoekin, landareekin, zuhaitzekin, etab.
- Ingurune naturalaren oinarriko osagarriak eta horien erlazio, aldaketa eta eraldaketa batzuk ezagutzea eta baloratzea: klimatologiaren edo urtaro-aldaketen ondorioz inguruneko elementuetan gerta daitezkeen zenbait eraldaketa zuzenean behatu eta frogatu ahal izango dituzte.
- Ingurumenarekiko zaintza, errespetu eta erantzukizun jarrerak garatzea: inguruneari balio handia ematen diogunez, horren zaintzari eta kontserbazioari mesede egingo



dioten jarrerak ere garatu behar ditugu. Adibidez, zaborra zaborrontzietara botatzea, loreak eta landareak zaintzea eta inguruneko beste elementu batzuk ez zikintzea.

- Hainbat lengoaiatan adierazitako artelanen ezagutzara hurbiltzea: pasealekuetan ikusi ahal izango ditugun hainbat adierazpen motaz ari gara; izan ere, habitatzen dugun ingurunean, arkitektura bera, grafitiak, eskulturak eta beste artelan batzuk aurkituko ditugu.

## Jardueraren deskribapena

Ibilaldiak astearte arratsaldero egiten dira, 15:00etatik 16:40etara bitartean.

Ibilaldien aurretik, Haur Hezkuntzako irakasleek zer espazio publiko bisitatuko diren erabakiko dute. Urtaroak eta klima-baldintzak hartuko dira kontuan.

Joan-etorriko ibilbidea kontuan hartu beharrekoa da, halaber. Segurtasun-baldintzak dituzten ibilbideak bilatzen ditugu, ikasleek lasai ibiltzeko aukera izan dezaten, bai bakarrik bai bikoteka bai taldean.

Haur Hezkuntzako 1. mailako ikasleak urtarrilean hasiko dira ibilaldiak egiten. Eskolatik hautatutako espaziora dagoen distantzia kontuan hartu beharrekoa da, halaber.

Proiektuaren ezaugarrietako bat urtaro aldaketak bizitzea da; hori dela eta, ibilaldiak mantenduko ditugu, hotza egin arren. Ondo jantzitako hurrek errealitate horiekin kontaktua izan dezaketela eta izan behar dutela uste dugu. Zentzu horretan, Budapesteko Lóczy eskola dugu gogoan; bertan, hilabete gutxiko haur jaioberriek kanpoan egiten dute lo-kuluxka. Eskolak egiaztatu duenez, praktika hori modu sistematikoan egitean, eskolako ikasleek hotzaren ondorioz jasaten dituzten gaixotasunek behera egin dute. Euriaren edo elurraren ondorioz soilik atzeratzen ditugu ibilaldiak.

Euskarazko eta ingelesezko espezialistek, baita eskolako musika-irakasleak ere, dagoen hizkuntzan parte hartuko dute jardueran. Hartara, heldu gehiago, sei orotara, joango dira ibilaldira, eta errazago lagundu ahal izango zaio ikasle bakoitzari. Antolamendu horren ondorioz, tutoreak adituarekin egon beharko du.



Ibilaldian zehar, eta hautatutako espazioaren barnean, ikasleek askatasunez erabakiko dute non eta norekin jolastu. Espazioa ikertu eta habitatuko dute, betiere heldu baten zaintzapean. Interesatzen zaien hori biltzeko eta gelara eramateko aukera izango dute, eta, horretarako, kartoizko kaxak eta poltsa gardenak emango zaizkie. Jolasteko materiala eramango dute irakasleek, eta ikasleek edozein unetan erabili ahal izango dute (pilota, tenis-erraketak, soka).

Irakasleak, une oro, behatzaile rolaekin bat datozen jarrerak mantenduko ditu, eta argazki kamerarekin dokumentatuko ditu une bereziak, gertatzen diren prozesuak, espazioarekiko eta haurren arteko erlazioak, etab.

Ikasleekin batera aritzeko aukera izango dute familiek, jolasetan eta ikerketetan hurrekin batera parte hartuz. Beste guraso batzuek segurtasun rola mantentzen dute, hau da, espazio jakin batean egoten dira, eta haurra bertara hurbil dadila eta kanpo espazioa ezagutzera berriz ere irten dadila uzten dute.

## Ebaluazioa eta ondorioak

Espazio publikoetara irtetean, ikasleak beste testuinguru batzuetan behatzeko aukera sortzen da, eta, hala, informazio gehiago eskuratzen da ikasleek ingurunea ezagutzeko eta gainerakoekin harremanak sortzeko duten moduaren inguruan.

Behaketak proiektuaren barnean planteatutako helburuak hartzen ditu kontuan. Ebaluazio-saioetan, ikasle bakoitza ebaluatzen da, eta, horretarako, ibilaldietan eta lorategietan behatu ditugun alderdiak aintzat hartzen dira. Ebaluazio bilera hauetan, ikasle bakoitzak zer presentzia mota behar duen hartzen da kontuan. Zentzu horretan, haur bakoitzak behar duen laguntza hartzen da kontuan, bai barne espazioetan bai kanpokoetan.

Kanpo espazioko laguntzaren tipologia alderdi hauetan zehazten da:

- Laguntza fisikoa, haurrarekin egotea, buru eta bihotz.
- Heldurik ez egotea.
- Laguntza presentziala: egotea.
- Haurrak begiradak behar ditu ibilaldian zehar eta espazio publikoan.

- Erronken beharra: fisikoak, zientifikoak, etab.
- Laguntza. Elkarrizketa eta hitza: galderekin desafiatzea.
- Jolasean zehar laguntzea.
- Mugen beharra.
- Eusteko beharra.
- Emozioaren beharra.
- Dokumentazioa: Ikasleen jarraipena, argazkiekin nahiz idatzizko dokumentazioarekin.

Ikasleen balorazioari dagokionez, irakasleek alderdi horiek zehaztuko dituzte, eta ikasle bakoitzak behar duen laguntza nolakoa izango den ezarriko dute. Era berean, informazio horren berri emango zaie familiei, beren seme-alabek dituzten beharrak zeintzuk diren jakin dezaten.

Finean, haurrek espazio publikoak habitatzeko aukera izan dezatela eta horietan ikusgarritasuna lor dezatela sustatzen ari gara proiektu honekin. Porlanezko gure eskola-jolastoki txikiaren gabeziak gutxitzen ari gara, gure hiriko espazio natural eta irekietara joateko aukerari esker. Bestalde, eta gure hezkuntza-proiektuaren oinarriak aintzat hartuz, ohartu gara aukerak ugaritu egiten ditugula praktika hau gauzatuta, haurren jolasari eta beste espazio batzuetan proiektuak abiatzeari dagokienez.

### **Oharrak eta erreferentzia bibliografikoak**

BARUDY, J y DANTAGNAN, M., *Los buenos tratos a la infancia: parentalidad, apego y resiliencia*, Bartzelona, Gedisa, 2009.

BONÁS, M. y otros, *Entramados. La experiencia de una comunidad de aprendizaje*, Bartzelona, Graó, 2007.

CABANELLAS I. y ESLAVA, C., *Territorios de la infancia. Diálogos entre arquitectura y pedagogía*, Bartzelona, Graó, 2005.

FREIRE, H., *Educación en Verde: ideas para acercar a niños y niñas a la naturaleza*, Bartzelona, Graó, 2011.

RITSCHER, P., *El jardín de los secretos*, Bartzelona, Octaedro, 2006.

TONUCCI, F., *La ciudad de los niños. Un modo nuevo de pensar la ciudad*, Madril, Germán Sánchez Ruipérez Fundazioa, 2004.

TRUEBA MARCANO, B., *Espacios en armonía: propuestas de actuación en ambientes para la infancia*, Bartzelona, Octaedro, 2015.

WILD, R., *Libertad y límite. Amor y respeto*, Bartzelona, Herder, 2009.

— *Aprender a vivir con niños*, Bartzelona, Herder, 2013.

# Espazio publikoa haurren erabileran txertatzea: Zizur Nagusiko bi adibide

José Javier Esparza Unsain

Arkitektoa eta Zizur Nagusiko Erreniega HLHIPko Guraso Elkarteko kidea  
josejavier.esparza@warqs.com

Zizur Nagusiko udalerrian bi jarduera gauzatu dira helburu berarekin: espazio publikoaren erabilera haurrei hurbiltzea eta erraztea, hau da, haurrei aukera ematea udalerriko kaleak eta espazio publikoak autonomia handiagoz erabiltzeko.

**Gako-hitzak:** integrazioa, autonomia, parte-hartzea, eraldaketa.

## Eskolarako bide seguruak


Zizur Nagusiko ezaugarriek dinamika eta helburu komun hori errazten dute.

15.000 biztanleko udalerrria da, eta konurbazio handiago batean kokatzen da, Iruñeko Bailaran, hain zuzen. Zizur Nagusiko ezaugarri horri esker, hiriko bizitzaren abantailak eta onurak ditu, horri lotutako zailtasunetako batzuk izan gabe. Hau da, aipatzen ari garen Zizur Nagusiko hiri-eremuak bizitegi-erabilera soilik du. Etxebizitzak eta auzoaren dimentsioari egokitzen zaion oinarritzko ekipamendua daude (hezkuntza, osasuna, kultura), eta, gainera, abantaila bat du; izan ere, eremu horretara sartu behar duten ibilgailuen zirkulazioa besterik ez dago.

Hala ere, autobia kategoriako bideak sortzen duen arazoa aipatu behar da, oinezkoentzako ibilbideek hori gurutzatu behar baitute, baina, arazoari dagokionez, konponbide nahiko egokia aurkitu da eremua urbanizatzean.

Oro har, hiri-ordenantzak oinezkoentzako ibilbide babestuen erreserbak eraiki ditu, ibilgailuen ibilbideek zeharkatzen ez dituztenak. Hartara, irlak eta erreserbak eratu dira, hiritarrek –bai helduek bai haurrek– ibiltzeko, korrika egiteko, paseatzeko, erosteko eta baloiarekin jolasteko aukera izan dezaten, ibilgailuen trafikoa gertu izan gabe.

Zizur Nagusiko udalak, Kontziliaziorako Toki Itunaren bidez, Eskolarako Bide Seguruen helburu hau landu du 2015etik, udalerriko lau ikastetxeekin, bertako Guraso Elkartekin eta udal teknikariek batera.



Lehenik eta behin, diagnostikoa egin zen. Horretarako, inkesta bat egin zitzaion ikastetxeetako ikasleei, eta, horri esker, *mugikortasunaren armiarma* irudikatu ahal izan zen. Bertan, haurren eta gazteen ohiko mugimenduak kuantifikatu ziren, ikastetxetara joateko eta horietatik itzultzeko zikloari arreta berezia eskainiz.

Bigarrenik, diseinua landu zen. Bide seguruak definitzeko lantaldeak eratu ziren. Udaltzaingoarekin ere aritu ziren elkarlanean, bide batzuen eta besteen arriskuak edo abantailak identifikatzeko.

Kontziliaziorako Toki Itunaren lan-mahaitik proposamen bat aurkeztu zitzaion Zizur Nagusiko ikastetxeei, hori berrikus eta onar zezaten. Proposamena 8 urtetik gorako adin-tarteari zuzenduta zegoen, Lehen Hezkuntzako 3. ikasturtetik aurrerako ikasleei, adin horretatik aurrera haurrak helduen edo adostutako taldeen laguntzarik gabe ibiltzen has zitezkeen. Ikuskatzaileak sortzea behar zuen sistema baztertu zen, eta estrategia simple eta espontaneoago baten alde egin zen.

Eta hori abiarazteko unea heldu zen. Horretarako, diptiko baten bidez zabandu zen informazioa, eta Zizur Nagusiko postontzietan azalpen-gutunak banatu ziren. Era berean, informazioa argitaratu zen tokiko bi aldizkaritan.

Espaloietan ibilbideak errotulatu ziren, oinatzen marrazkiekin, eta trafiko seinaleak jarri ziren, eskolarako bide seguruen eta trafikoaren arteko bidegurutzak nabarmenduz.

Lehen funtzionamendu astean, boluntario gazteak aritu ziren elkarlanean. Petoen bidez identifika zitezkeen, eta haurrak lagundu zituzten Eskolarako Bide Seguruen hasiera eta abiarazte horretan.

Horrez gain, argazki rallya egin zen Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleekin, adierazitako ibilbideak ezagutu zitzaizkien.

Ikasturte honetarako, Kontziliaziorako Toki Itunaren bidez, hainbat jarduera proposatu dira Eskolarako Bide Seguruaren erabilera sendotzeko helburuarekin; izan ere, proposamena modu iraunkorrean bizirik mantendu behar dela ulertzen da.

## **Erreniega HLHIPko eskola-jolastokiaren aldaketa**

Zizur Nagusiko Erreniega ikastetxe eskola-komunitateak, ikastetxeko metodologia pedagogikoa dinamizatzea helburu duen hezkuntza proiektuaren garapenarekin bat etorriz, ikastetxeko jolastokian esku hartzeko beharra planteatzen du.

Pixkanakako prozesua da, gaur egun aktibo dagoena, aldaketak irekita jarraitzen baitu; izan ere, egitekoak eta ikuspegiak asko dira.

Alde batetik, arazo funtzional bat zegoen, hormigoizko espazio hutsa erabiltzen ez zelako, eta, eskola-jolastokiko elementu nagusia izan beharrean, toki nahiko desatsegina zelako. Ikasleek nahiz gurasoek toki hori erabiltzea saihesten genuen, besteak beste, udan, argi gehiegi islatzen zuelako eta beroegi egoten zelako, eta neguan, berriz, gainazala izozten zelako.

Bestalde, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasle eta irakasleen proiektu pedagogikoa, naturan aurkitutako geometriak eta gizakiak eraikitakoak lantzen zituena. Material horri esker, gelan lantzen zituzten formak eta ideiak eskolako jolastokian bertan islatzeko nahia erakutsi zuten haurrek, eta, hala, gertaeraren protagonista sentitu ziren. Espiralaren eta mendiaren geometria landu ziren, eta elementuok ikasle guztien interesa erakarri zuten.


Geroztik, jakin-min eta bultzada hori eskola-komunitate osora hedatu zen, Gurasoen Elkartea eta gurasoak barne. Bultzada horrek ez zuen indarririk galdu; aitzitik, oihartzuna eta erantzuna jaso zituen.

Jolastokia antolatzeko ideiak landu ziren ikasleekin: eskolako jolastokian zer jolas, elementu eta geometria eduki nahiko litzuketen.

Eta hirugarrenik, azkeneko urratsa eman behar zen, ideiak egiazko eraikin bihurtzea; izan ere, espazio hori udalaren jabetzakoa da, espazio publiko irekia, eta Zizur Nagusiko haurrek eta gazteek eskola ordutegietatik kanpo erabiltzen dute. Udaleko zerbitzu teknikoekin lan egin zen, eta aurrekontu erabilgarria zein gauzatze eta mantentze irizpideak proposatu zituzten.

Bultzada horien guztien ondorioz sortu zen jarduera, ezaugarri hauekin:

- Espazio lau, huts eta baztertzaila zena eraldatzea. Lehen ezer ez zegoen tokian leku bat eraikitzea. Espazioaren interpretazioa aldatuko duen elementu simple bat txertatzea.
- Hainbat funtzio betetzen ditu, besteak beste, haurren jolasleku eta eskola orduen aurreko, arteko eta ondorengo unetarako gunea.
- Ez zen norabide bakarreko gidoirik idatzi; aitzitik, ekintzak iradoki ziren, haurrek pixkanaka deskubrituko dituztenak.
- Haurrek gogoan hartutako elementu sinbolikoa eta adierazitako nahia kontuan hartu zen (espirala eta mendia), ikur horiek jolastokian marrazteko.
- Eraikuntza iraunkorra, ekonomikoa eta sendoa da, mantentze lan gutxikoa, eta inguruko gazteek asteburuetan erabiltzen dute.



Eskola-jolastokiaren proiektuaren planoak

Multzoa, eraikuntza-prozesuan oraindik, haez osatuta dago: mendi bat, udaberrri honetan ipiniko den espiral itxurako eserleku bat eta bi elementu horiek lotuko dituen jolas bidexka bat.

Horren guztiaren emaitza da, nagusiki, espazio hori neska-mutikoez hamaika modutara erabiltzea; eskolara iristean, irtetean, gainera igo eta jolastokiari begira egoteko, irristatzeko, lagunekin biltzeko, kolore batetik bestera korri egiteko, baloia saskiratzeko, jauzi are luzeagoak egiteko, etab.



# Hezkuntza partekatu baterantz murrak suntsituz: arreta guztiei, baina gehiago gehien behar duenari

Hijas de Jesús Ikastetxea, Iruña  
Diego Ezcaray Echalecu, arkitektoa eta irakaslea  
Javier Martínez Baigorri, zuzendaria  
diego.ezcaray@jesuitinaspamplona.org

Hezkuntzan behar diren aldaketa arkitektonikoak ez dira izan behar aurpegi garbitze, irudi aldaketa edo helburu; aitzitik, eredu pedagogikoaren aldaketei laguntzea eta mesede egitea izan behar dute xede. Aldaketa horiek, era berean, erantzuna eman behar diote egungo eta etorkizuneko gizarterako hezi nahi dugun ikasle motaren inguruko galderari. Gure kasuan, hezkuntza lagungarri izan behar da ikasleek beren burua norbanako gisa aurkez dezaten besteen aurrean eta beldurrik izan ez diezaioten bizitzea egokitu zaion munduan eragin eta eraldaketa positiboak sortzeari; hala, pertsona autonomoak, sortzaileak eta konprometituak izango dira.

**Gako-hitzak:** arkitektura, eraldaketa, hezkuntza partekatua, murrak.

Kongregazioa hezkuntza-arloan lanean hasi zenetik, Hijas de Jesús ikastetxeen berezko estiloak eta izaerak ezaugarri jakin batzuk izan dituzte. Ezaugarri horiek denboran zehar irauten dute, eta eskuliburu pedagogikoak honako hauek nabarmentzen ditu:

- Gizarterako kide erabilgarriak sortzea.
- Pertsona bere osoan heztea.
- Ikasle guztientzako arreta, baina batez ere, gehien behar dutenentzat.
- Hezkuntza pertsonalizatua.
- Zentzu kritikoa garatzea.
- Sormena bultzatzea eta balioestea.

Gizartea asko aldatu da Hijas de Jesús kongregazioak lehen eskola ireki zuenetik, eta, azken hamarkadei begiratzen badiegu, aldaketa hori oso azkar gertatu da. Horrenbestez, kongregazioko eskolek, eta zehazki gureak, geure buruari galdetzen diogu zein erataria izan gaitzkeen lehen intuizioarekiko fidelak, eta galdera hori aldaketaren motor bihurtu nahi dugu, aipatutako ezaugarri horiek gure hezkuntza jardueraren bereizgarri izan daitezen aurrerantzean ere.



Beraz, gure aldaketa eta berrikuntza prozesuak sustraietara itzultzea baino ez du xede, sustraiok egungo testuinguruan adierazgarriak izan daitezten. Aldaketak ezin da sekula bere horretan helburu izan; aitzitik, gure esku utzi den xedeari hobeto eta modu zintzoagoan laguntzeko tresna izan behar du.

Gako horiekin, elkartzen diren bi bide sortu dira: alde batetik, Espainian, instituzio osoaren mailan hausnartu da eta, bestetik, Iruñean, gure eskolan.

Duela gutxi, “jatorria galdu gabe orainaldiari erantzuteko” aukera eta metodoa ematen digun instituzioaren bi dokumentu argitaratu dira. Lehen dokumentuak, *Nuestro Horizonte*, erdigunea beti ere pertsona dela gogorarazten digu; pertsona ideal bat, laburbilduz honelakoa dena: *autonomoa*, *konprometitua* eta *sortzailea*. Bigarrenak, *Manual Pedagógico*, ikuspegi tekniko eta pedagogikoago batean funtsatzen du aldaketa, eta, horretarako, hezkuntzari askotariko adimenen paradigmatik eta ikasleen oinarrizko eskumenen garrantzi aurre egiteko gakoak ematen ditu.

Bi dokumentuetan, aldaketari aurre egitearen garrantzia nabarmentzen da, ez gauzak gaizki egin genituelako, baizik eta “hezkuntzan dugun zereginari zentzua ematen” laguntzen digulako, baita “bizi dugun une zehatzera zeregin hori egokitzen eta mundua aldatzeko konpromisoa hartzen” ere. Horretarako, ziurtzat jotzen du “pertsona autonomoak, konprometitua eta sortzaileak sortzeko, ikaslean ardazten den hezkuntza ereduan egin behar dugula gaur ahalegin osoa, eta eredu horrek, pedagogia berritzeko gai izateaz gain, eskolaren eta curriculumaren antolamendua berritzeko gai ere izan behar duela, gure xedearekin bat eginez”.

Pertsona gure hezkuntzaren erdigunean jartzea eskatzen diguten gako horiek oinarri hartuta, hezkuntza berrikuntzarako ibilbide paraleloa egin dugu Iruñeko gure eskolan. Hamarkada bat baino gehiago daramagu zeregin hori lantzen, intuizioak eta ebidentzia zientifikoak oinarriztat hartzen, prestakuntza eta abiarazte prozesu bat gauzatzen eta, batez ere, guk nahi dugun eskolari forma ematen. Ibilbide horretan, kongregazio mailan erabili diren gakoak aitortzen ditugu. Jabetu gara aldaketak ez direla ekintza txikien sorta



bat; aitzitik, beharrezkoa da curriculum eta eskola berrantolatzea. Artikulu labur honetan, eskolaren aldaketa fisikoak landuko ditugu arkitekturaren ikuspegitik.

Gure eskolaren arkitekturaren analisisan oinarrituz, ikusi dugu hezkuntzarako jaso ditugun espazio motek bide ematen diotela irakaskuntza-ikaskuntza mota jakin bati: banakakoa, lineala, diziplina bakarrekkoa eta kanpotik barrurakoa. Horrek ez du zertan desegokia izan, baina nahikoa ez dela uste dugu, lankidetzan oinarritzen diren, norabide anitzak dituzten eta barrutik kanpora doazen diziplinarteko ikaskuntzetara birmoldatu behar baitu. Murrak eta eskema horiek suntsitzeko beharra sentitzen dugu; beharbada, garunaren hemisferio bati erantzuten diote, baina bestea ahazten dute, eta, gainera, hainbat pertsona baztertzen dituzte.

Hezkuntza-espazioen eta irakaskuntza-ikaskuntza ereduaren arteko erlazioa zehazten saiatzen bagara, agerikoa da ez dela erraza (baina ezta ezinezkoa ere) jaso ditugun espazioetan beste nolabait heztea. Zatikaturik daudenez, hezkuntza zatikatua bultzatzen dute. Eskema horren arabera, oso gutxitan sar daiteke irakasle bat baino gehiago ikasgelan, eta ikaskuntza zatikatua, indibiduala eta beste jakintza eta pertsona batzuetatik isolatua eragiten du. Finean, ikasleak *beren munduan* hazten dira.

Hausnarketa horiek direla medio, arkitektura berriak bilatu nahi ditugu, irakaskuntza-ikaskuntza eredu berriak ahalbidetzeko. Irakaskuntza partekatura bideratutako zubiak eraikitzeko aukera emango diguten espazioak ditugu xede. Lehen holtzak erori eta jada irakasle eta jakintza bakarra baino gehiago sartzen da gelan, eta hori ikaskuntza partekatu eta kolektiboaren, beste jakintza eta pertsona batzuei lotutakoaren mesedetan delakoan gaude, eta ikaslea *munduan* kokatzen du.

Espazio berri malguak, metodologiaren arabera aukeratzeko bide ematen digutenak, eta ikaslea munduko hiritar bihurtzea dutenak xede, bere buruari begiratuko diona (bokatzea) eta bestean ezagutuko dena (enpatia), autonomian, sormenean eta konpromisoan oinarrituta. Ikasleek beren ikaskuntzaren protagonista izan behar dute, eta bizitza egokituz zaien gizartea eraldatzeko gaitasuna eduki.



Hartara, “arkitektura-teknologia berriak” binomioak ikaskuntza eta irakaskuntzaren mugak lausotu ditzala nahi dugu, eta, beraz, prozesuak berak norabide anitzak har ditzala. Ikasleek ez dute nahitaez hartzaile izan behar, eta irakasleek, beren zeregina gauzatzeko, laguntza eman beharko diete ikasleei. Hala, ikasleek jarrera proaktiboa izan beharko dute. Jakintza, noiz edo noiz, norabidez aldatu ere egin daiteke, eta ikasleek beraiek irakasleak gida ditzakete zenbait prozesutan. Irakasleek diziplina anitzeko taldea osatzen dute, eta taldean nola lan egiten den, batzuek besteengandik nola ikasten duten eta besteen diziplinetatik nola aberasten diren erakusten diete ikasleei. Irakasleak ez dira orojakileak; aitzitik, beraiek ere prozesuan daude, beren zailtasunak onartzen dituzte, eta beren espezialitatea lankideentzat ere konplexua izatera irits daitekeela antzematen dute. Espazio berrien gardentasuna dela eta, inoiz baino ageriago dago gure eredu-izaera, baita korridoretik doanarentzako ere.

Horrekin guztiarekin, eredu berriari erantzun behar dio arkitekturak, baina, horrez gain, eredu zaharra errespetatu behar du, eta etorkizuneko moldatzeko gaitasuna izan. Espazio malguak eta moldaerazak bilatzen dira, protagonistek, hau da, ikasleek zein irakasleek, horietan eroso sentitzeko aukera izan dezaten. Horretarako, espazio arkitektonikoa beren beharretara egokituko dute edo beraiek egokituko dira espaziora, horren diseinuaren funtsezko printzipio metodologikoei sekula uko egin gabe.

DBHren kasuan, ikasgela berriak launaka multzokatzen dira; hala, gelak, binaka, gela bikoitz bilaka daitezke, eta korridorearen bidez, beirazko itxitura berri bati esker, gela bikoitzak aurrez aurre jar daitezke. Era horretan, korridorea geletan txertaturik geratzen da ia, ez hainbeste espazio erabilgarri gisa, baizik eta espazioaren beraren eta espaziotik bertatik izaten den pertzepzio eta kontrolari dagokionez. Ikasgelen nukleo ia karratuak bi bulego ditu, eta tutorearen ekintza eraginkorra eta zuzena ahalbidetzen dute hori behar denean, ikasgelaren ikuspegia une bakar batez ere galdu gabe. Espazio bikoitzek aukera ematen dute bertako altzarien antolaketa hainbat modutara erabiltzeko. Horri esker, elkarlanerako, banaka aritzeko eta lan-mahai handiekin edo espazio zabal erabilgarriekin



lan egiteko balia daiteke ikasgela. Harmaieriak aukera ematen du talde handiak une zehatz batzuetan espazio txikietan multzokatzeko eta proiektoreak zein arbelak moldaezintasunez eta norabide batean baino gehiagotan erabiltzeko.

Labur-labur gogorarazi behar da espazio aldaketa horiek, testuaren hasieran aipatzen zen moduan, ez direla modu isolatuan gertatu; aitzitik, hezi nahi dugun pertsona ereduaren inguruko hausnarketa sakonaren emaitza dira. Horretarako, espazio antolamendua hezkuntza ildo bereko denbora-antolamendu berriarekin batera diseinatu da. Hartara, ikasleen eskola-eguna erdibituta geratzen dira praktikan: % 50 ikasgaietara bideratuko da, eta beste % 50 proiektuetara. Irakasgaiek, oraindik ere, ezagutzaren transmisio linealago bati erantzuten diote, eta ikasgela bakoitzeko irakasle bakarraren egitura errespetatzen dute. Proiektuetan, aldiz, irakasle kopurua areagotzen da: hiru irakasle bina ikasgelako. Irakasleek, hartara, ikasleei lagunduko diete proiektuak beren diziplinetatik garatzen. Une horietarako izan da beharrezkoa, hain zuzen, eraldaketa arkitektonikoa, gelak binaka erabil daitezten ikaskuntza kooperatiboaren metodologietan oinarritutako lana egin ahal izateko, momentu komunekin, zeregin anitzetako momentuekin, tutoretzarako espazioekin eta abarrekin, eta, batez ere, guztiontzako espazioarekin. Une horietan, ikasle arruntak (sinplifikatzearen), curriculum bereziko unitateetako ikasleak eta ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetakoak aritzen dira batera, eta, horrela bai, horrela hezkuntzaren benetako murrak suntsitzen dira, artikulu honetan hezkuntza partekatuaz hitz egitean behin eta berriz aipatu ditugun horiek, eta norberak ahal duena eskaintzen du dakien horretatik eta, batik bat, den horretatik.

Azkenik, eraberritzeak okupazio espazio edo erabilera libreko espazio deituriko zenbait toki errespetatu dituela aipatu behar da. Horiei loturiko bizipenak eta ikasleen erabilerak lagungarri izango ditugu espazioen etorkizuneko erabilera bideratzeko moduaren inguruan. Horrez gain, "askatasuna-errespetua" binomioaren pedagogiari bide emango diote, gazteei autonomian hazten laguntzeko. Espazio antolamendu berri horretara egokitzeko



prozesua bera ere aberasgarria da, eta hezkuntza aukera gisa bizi behar da, irakasleek beren pedagogiaren inguruan hausnartzeko.

Finean, hezkuntza eredu aldatzearen ondoriozko aldaketa arkitektonikoak dira, ikasleak erdian jartzea xede dutenak, haien jakintzak eta nortasunak gainerako ikasleekin eta irakasleekin partekatzeko, eta ikaslea ereduaren xedeko eraldaketa sozialerako eragileetako bat dela jakitun eginda.

# Espazioak habitatzea

García Galdeano HLHIP, Iruña  
Miguel Cosme Echeverría, zuzendaria  
cpgarcia@educacion.navarra.es

Gure iritzian, gure espazioak habitatzea bertan ibiltzeko, behatzeko, bidaiatzeko, amesteko... aukera ematea da. Hori guztia egingarria izan dadin, esfortzua, meditazioa, partaide guztien elkarlana, uste osoa, indarra, jarraitutasuna, aldaketarako gogoia, errealitate bilakatzen diren ametsak eta beste alderdi ugari behar dira.

**Gako-hitzak: komunitatea, gogo bizia, eraldaketa, ametsak, eskerrak**

García Galdeano ikastetxe publikoa Iruñean dago, Txantrea auzoko bigarren Orvina etxe multzoan. Inguruan hainbat natura-gune ditu, hala nola Ezkaba mendia, Aranzadi gunea, Magdalena parkea, Arga ibaia eta Munduaren parkea. Guztiak ere ikasleekin irteerak egiteko moduko lekuak dira, hiriaren barruan naturarekin harremanetan egoteko.

Iruñean A eredia (gaztelaniazko irakaskuntza euskara irakasgaiarekin) eta G eredia (euskarazko irakaskuntzarik gabe) duten lau ikastetxeetako bat da, eta horrek izaera berezia, aberatsa eta anitza ematen digu.

Egunero-egunero gure ikasgelak hamaikatxo konturekin betetzen duten neska-mutilak ditugu: 55 Haur Hezkuntzan (3 ikasgela) eta 171 Lehen Hezkuntzan (10 ikasgela).

Gure ikastetxea Ikaskuntza Komunitate bat da, eta partaidetza, gizarte-kudeaketa eta bizikidetzatza ditu oinarrian, guztia ere balioak eta helburuak elkar hartuta.

Hala, 2014-2015 ikasturtean berrikuntza metodologikoko proiektu baten aldeko apustua egin genuen, azken urteetan hezkuntza aktiboan oinarrituta sortu diren korrante pedagogikoetan babes hartuta.

Honako hauek dira proiektuaren ardatzak:

- Jolasa izango da eskola-jardunaldian nagusituko den jarduerak, izan ere, hainbat emaitza lortzeko bidea ematen du, hala nola ikasleen ikaskuntza-prozesuak sortzeko, komunikatzeko, emozioak adierazteko eta kudeatzeko, edota euren burua zein ingurunea ezagutzeko eta konkistatzeko.

- Neska-mutilen indibidualtasuna errespetatzea, baita beren behar eta interesak, edota euren ahalmen eta zailtasunak ere.
- Erabakiak euren beharrezan, sentimenduen eta desioen arabera hartzeko aukera ematen dien askatasuna, euren prozesuen arduradun egiten diren aldi berean. Hori guztia segurtasun-muga batzuen barruan eta norbere buruarekiko zein besteekiko errespetuz.
- Beren estrategiak sortzeko behar dituzten aukerak, denborak eta espazioak eskaintzen dizkien autonomia, hura lortzeko trebetasunak garatuz.

Abiapuntu horretatik, ezinbestekoa da gure espazioak eraldatzea ikuspegi pedagogikoaren arabera, ematen diegun forma koherentea izan dadin. Hala, honako erabaki hauek hartu dira: gure materialak naturalak izan behar dira; gure espazioetako koloreak neutroak izan behar dira, eta kolore primarioak, baita sekundarioak ere, atzean utzi behar dira; espazioek aukera ugari izan behar dituzte, mugimendurako, elkarrekintzarako, harremanetarako eta atsedenerako.

Nafarroako Eskola Kontseiluko Jardunaldietan berriz parte hartzea proposatu zitzaigunean, zaila iruditu zitzaigun gure zentroan bizi dugun eraldaketa-proiektua bost ideiatan laburbiltzea. Gai nagusia kontuan hartuz, Hezkuntza eta Arkitektura, ezinbestekoa zen habitatzen dugun espazioaren inguruan hausnartzea.

Manuel Saraviak, Iván Illichen testuei aipamen eginez, habitatzea bizitzaren arrastoa uztea dela idatzi zuen. Illichek "habitatu" kontzeptuaz hitz egiten zuen bere testuetan: "*Piztiak gordelekuak dituzte; ganaduak, kortak; gurdiak estalpeetan gordetzen dira, eta autoak, garajeetan. Gizon-emakumeek soilik habitatu dezakete. Habitatzea artea da. Gizakiek soilik ikasten dute habitatzen*".

Idea horretan oinarrituz, lurralde bat habitatzea bertan oinez ibiltzea dela zioen Saraviak. Horrela soilik sor daiteke ingurugiro bat ibilbidean zehar.

Lurralde bat habitatzea bertan bidaiatzea ere bada. Bidaiatzean, bilatzeko beharra asetu nahi dugu; hutsuneak eta isiltasunak erakusten dutena eta ebidentziak erakusten ez duena bilatzen dugu.

Lurralde bat habitatzeak, era berean, bertan luzaz geldu egotea esan nahi du. Lekueta ezer egin gabe egotea: behatzea, ekinik ez izatea, atsedean hartzea, arnastea.

Espazio bat habitatzea hura gogoratzea da, amestea, eta aukeretara irekitzea. Illichen hitzetatik ere, habitatzea amestea dela berreskura dezakegu: "*Ametsek beti eman diete forma hiriei, eta hiriek, era berean, ametsak iradoki dituzte*".

Gure kasuan, ametsek gure eskolari eman diote forma eta, era berean, eskolak gure ametsak iradoki ditu. Bide horretan zehar, bost hitzetan egin behar dugu geldituena, gure proiektuaren bost zutabeak baitira.

## Komunitatea

Erlazio eta ekintza sozialerako modu gisa ulertzen dugu, hezkuntza- eta kultura-proiektu propio bat antolatzen, eraikitzen eta bertan parte hartzen duena, komunitatea bera eta bertako haurrak, gazteak eta helduak hezteko, elkarlanean eta elkartasunean egiten den esfortzu endogeno baten esparruan.

Irudi hauek, guri bezala, "elkarlana", "lana", "esfortzua" eta antzeko beste hitz batzuk gogora ekarriko dizkizuetela espero dugu. Gainera, ez lirateke berdina izango Fá-





tima, Ana, Mohammed, Ali, Óscar, Nabiha, Birane, Lidia, Babanding, Agustín, Amelia, Javier, Ramata eta beste hainbat pertsona ez baleude tartean, hainbat material sortu baitituzte beren seme-alabek eta gainerakoek eskolan arrastoa utz dezaten.

### **Gogo bizia**

Gauzak aldatzeko eta mundua zein errealitatea eraldatzeko gaitasunean eta indarrean, gudan eta gainerakoengan sinesteko izan duguna. Gogo biziak bizitzaren ikuspegi berria ematen du.

Inmak eta biok haren ahizpa Tere gogoratzen dugu, baita haren lobak ere, Sara, Amaia eta Irati, ikastetxeko ama ohia eta ikasle ohiak. Marianekin eta Adriánekin, arraska eskuan hartuta etortzen ziren, gogo eta ilusio handiz, 1978. urteaz geroztik hormak esaltzen zituen kortxoak kendu eta horren ordez, Haur Hezkuntzako 2. mailako ingurunea sortzeko.

### **Eraldaketa**

Hurrek eta helduek maneiatzeko eta eraldatzeko modukoak izan behar dute espazioek, eta hainbat erabilera motarako eskuragarri egon behar dute. Egunean eta urtean zehar aldatzen da eskola, ikasleen eta irakasleen esperimintazioaren ondorioz. Eskola egituren proiektuek, ahal den heinean, eraldaketak aurreikusi behar dituzte, bai epe laburrera bai epe luzera.



Ez genituzke apalategi original hauek izango, gure atezainek ez balituzte altzariak birziklatu eta eraldatu, eta, noski, Toñak, gure lagun eta artistak, ez balu bere sormena erabili mahai, palet, habi, ontzitegi, loreontzi-euskarri eta abarretan, gure espazioak leku atseginago bilakatzeko.

### **Ametsa**

Eskola benetan eraldatzeko, esna egin behar da amets, eta nostalgia eta alferrikako esperantza alde batera utzi behar dira. Eskola eraberritu nahi duenak bere ametsa helburu bilakatu behar du, eta bere helburua, ekintza. Beraz, bide bakarra dugu: nahikoa ez diren helburu, neurri eta erabaki behin-behinekoak lantzen jarraitzea, modu iraunkorrean. Bidea bilaketa ere bada. Esna amets egitea geratzen zaigu, eta betiere behin-behinekoa den eskolan jardutea, aurreko ikasturtekoa, duela zenbait urtekoa eta gure haurtzarokoa baino pixka bat hobea eta desberdina izan dadin.

### **Eskerrak**

Eskerrak Aitor Etxarteri, beti baitu denbora garrantzia dugula erakusteko. Eskerrak Yoli, Paz, Isabel, Itxaso eta Piliri, eguna alaitzeagatik eta pertsona bakoitza guretzako berezi izan dadila egiteagatik; eskerrak Óscarri eta Inmari, erokeria hau sekula utzi nahi ez izateagatik; Alfredo Hoyuelosi eta Ainara Muruzáballi, ez zuten zertan egin, baina, hala ere, asko eskertzen dizuegu egin izana; eta Toña Maríni, inoiz ahaztuko ez dugun zerbait be-



rezia egin baitu guregatik. Eskerrik asko: hitz horiekin eman nahi dizkiegu eskerrak, bi-hotz-bihotzez, Alberto Vidali eta Alfredo Prietori, gure arotzei, eskolari eskainitako ardurarengatik. Irakasleei, boluntarioei, ikasleei eta zaintzaileei, buru-belarri aritzeagatik. Idoia Sarari, bere laguntzagatik. Mendigoiti, San Francisco eta Hermanas Úriz Pi eskola publikoei, hezkuntzaren inguruan hausnartzeko topaketa horiengatik. Cardedeuko Can Manent eskola publikoari, posible zela ikusarazteagatik. Eskerrik asko hau guztia posible egin duzuen guztioi.

Zuen espazioak okupatzeko eta habitatzeko gonbita luzatzen dizuegu.

# Nafarroako Etorkizuneko Ikasgela

Elena Osés Urteaga

Hezkuntzako Aholkulari Teknikoa.

Hezkuntza Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzua

eosesurt@educacion.navarra.es

Etorkizuneko Ikasgela ekimen europarrean sartu da Nafarroako Hezkuntza Departamentua. Guneen arabera antolatutako ikasgelan teknologia txertatzea da ekimenaren azken helburua. Ikasgelak, era berean, altzari malguak izango ditu, espazioak berrantolatzeko, eta irakasle nahiz ikasleen beharrei erantzungo die.

**Gako-hitzak:** espazioa, teknologia, pedagogia, etorkizuneko ikasgela.

## Jatorria

2012ko urtarrilean, Bruselan, European Schoolneten egoitzan, "Future Classroom Lab" delakoa edo "Etorkizuneko Ikasgela" abiarazi zen.

Europako Hezkuntza Ministerioen partzuego bat da European Schoolnet, eta, horien artean, Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak parte hartzen du. Ikasgelak eraldatzea da horren helburu nagusia, ikasleek XXI. mendeko konpetentziak gara ditzaten, besteak beste, konpetentzia digitala.

Abiapuntu gisa, European Schoolneten iTEC proiektua (Innovative Technologies for Engaging Classrooms, 2010-14) hartzen da. Europako 20 herrialdetan abiarazi zen hori. Ikaskuntza-jarduera berritzaileak diseinatuta, eta horietan teknologia erabilia, irakas-kuntza- eta ikaskuntza-prozesuei balioa erantsiko badie, ikasgeletan teknologiaren erabilera orokortu nahi zen eta, gainera, aldaketa metodologikoa sustatu. Emaitzek erakusten dutenez, helburuak lortu egin ziren.

Proiektuari hasiera emateko, ikaskuntzarako eszenatokiak eta jarduerak diseinatu ziren. Jarraian, lehenbiziko "Etorkizuneko Ikasgela" sortu zen, Bruselan, hezkuntza-altzari eta -teknologiaren enpresen elkarlanarekin. Aurrerago, ikasgela hori Europako herrialde askotan erreplikatu da. Gure kasuan, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Teknologia

Berrien eta Irakasleen Prestakuntzaren Institutuak (INTEF) "Etorkizuneko Ikasgela" bat eraiki zuen Madrilgo bere instalazioetan, joan den ikasturtean.

Ikasgela horiek motor eta inspirazio iturri gisa balia ditzakete irakasleek, aholkulariek, hezkuntza-administrazioko arduradunek eta, oro har, bisitariak. Irakasleak liluratzea da xedea, baita beren ikasgelak edo ikastetxeak nola antolatu pentsaraztea ere, bizitzan behar diren kompetentziak ikasleengan garatzeko.

Etorkizuneko Gela funtsezko eta ezinbesteko hiru euskarritan oinarritzen da: espazioa, teknologia eta pedagogia.

## Pedagogia

Oinarrizkoena irakasleak dira; irakaslerik gabe ez dago eraldaketarik ez balizko hobekuntzarik. Pedagogiarik, lan-proiekturik, benetako ikaskuntza esperientziarik, helburu zehatz eta ebaluagarriak eta helburuok lortzeko metodologiarik gabeko ikasgelak hezkuntza-baliorik gabeko erakusketa-gelak dira.

Irakasle gisa, ez zaigu interesatzen puntako teknologiarekin ezin hobeto hornitutako espazioak edukitzea, baldin eta ez badaukagu inolako ikuspegirik irakasleek espazio horietan garatu eta ikasi behar dutenaren inguruan.

Metodologia aktiboak ezinbestekoak dira ikasgela mota hauetan; ikasleak beren ikaskuntzaren jabe dira, eta gelan hartzen duten rola aldatu egiten da, irakasleen rola aldatzen den bezala; izan ere, gidari, aholkulari eta laguntzaile bilakatzen dira prozesu konplexuagoen ikasketetan, besteak beste, sormenaren, kuriositatearen, ikasteko grinaren, erantzukizunaren, hausnarketaren eta behaketaren garapenean. Hala, ezagutza-igorlearen rol eksklusiboa alde batera uzten dute. Ikerketaren bidez, ikaskideekin elkarlanean, frogak eginez, hausnartuz eta aurkikuntzak aurkeztuz eta horien berri emanez ikasten da ikasgela honetan.



Etorkizuneko Ikasgelaren eremuak

## Espazioa

Gallup azterlanak (2014) adierazten duenez, itzaropena, konpromiso maila eta ongizatea dira eskola arrakastarako gako-faktoreak. Inguruneak ikasleen konpromisoa eta ongizatea areagotzen du, eta, hala, arrakasta errazten du.

Orain arte, espazioak oso gutxi aldatu dira joan den mendetik, eta ez dituzte gure ikasleen beharrak islatzen. Ikasgela tradizionalak ez du aukerarik ematen ikuspegi pedagogiko berritzaileak, talde lana, proiektuen arabeko lana edo elkarlana gauzatzeko.

Diana Oblingerrek (2006) "espazioak aldaketa-eragileak direla" aipatzen du; ikastetxeko geletako edo gune komunitario aldaketa txikienez ere inpaktu handia izan dezakete ikaskuntzan. Espazioek pedagogiari erantzun behar diote; ezin dira ikasteko oztopo edo zailtasun bilakatu. Aintzat hartu behar da, era berean, soluzio bakarra ez dagoela, hau da, baliteke leku batean funtzionatzen duenak beste batean ez funtzionatzea. Ez dugu nahi altzari astunak dituen ikasgela zurrunik, ia ezinezkoa baitzaigu horietan espazio librea edo lan txokoak sortzea.

Espazioak aukera emango digu ikasgelak gure beharren arabera antolatzeko eta espazio komunak gureganatzeko, ikasteko lekuak ere badirelako. Hala, banaketa isolatuak atzean uzten ditugu, eta gure ikasgelak gainontzeko ikastetxeari eta komunitateari irekitzen saiatzen gara. Aldaketa zaila da; izan ere, ezin dugu hormarik suntsitu, baina gure ikastetxeetako eremuei ematen diegun erabilera birpentsatu edo ikasgelak hainbat eremutan berrantolatu ditzakegu.

*Etorkizuneko Ikasgelak* altzari malguak eta beharrezko teknologiaz hornitutako 6 gune proposatzen ditu, hainbat ikaskuntza mota gauzatzeko.

Honako hauek dira guneak:

- Ikertzea: aurkikuntzaren bidez ikasteko lekua, non ikasleek modu aktiboan parte hartuko baitute beren ezagutza eraikitzeko.



FCL Bruselas



- Sortzea: ikasleak ahalduntzen ditugu, sortzaile bilaka daitezten eta beren sormena gara dezaten. Gune honetan, talde-lanen eta proiektuen arabeko lanaren bidez, "soft skills" direlakoak lantzen laguntzen da, hau da, komunikatzeko, denbora kudeatzeko, gatazkak konpontzeko, motibatuzeko, negoziatzeko eta elkarrekintza pertsonalerako trebetasunak; izan ere, guztiz garrantzitsuak dira bizikidetzarako eta hurreman pertsonaletarako.
- Aurkeztea: egindako lana gainontzeko ikaskideei edo komunitateari erakusteko espazioa. Entzute aktiboa eta komunikazioa ezinbestekoak dira gune honetan.
- Elkarri eragitea: ikasleek ikaskuntza prozesuan parte hartzen dute, tresna digitalen bidez irakasleekin eta gainontzeko ikaskideekin elkarri eraginez. Iritzia adierazten dute eta iruzkinak eta galderak egiten dituzte.
- Trukatzea: elkarlanerako, kooperaziorako eta erabakiak taldean hartzeko lekua.
- Garatzea: ikaskuntza informalarri, hausnarketari eta norberaren erritmoaren arabeko ikaskuntza independenteari eskainitako espazioa. Ikaskuntza pertsonalizatzeko balaia dezakete ikasleek, baita aniztasunari erantzuna emateko ere.

## Teknologia

Teknologia da azken euskarria, ez gehiago edo gutxiago gustatzen zaigulako, baizik eta dagoeneko gure gizartearen estandar bilakatu delako eta bizkar eman ezin diogulako.



Tresnen kit-a

Jose Antonio Marinak hau aipatzen du “Ikaskuntzarako Lege Unibertsalean”: “Pertsona, instituzio edo gizarte orok, bizirauteko, ingurunearen aldaketa-abiadura berberarekin ikasi behar du, gutxienez. Eta, aurreratu nahi izanez gero, abiadura azkarragoarekin egin beharko du”. Ikasleak oraingo zein etorkizuneko bizitzarako prestatzea da gure zeregina, beren gaitasunak ahalik eta gehien gara ditzaten. Horretarako, eskumen digitala ezinbestekoa da eta izango da haientzat.

Teknologiaren erabilera berritzailea eta ikaskuntzarako espazioak loturik doaz. Ikasgela honetan, teknologia izango dugu eskuragarri, eta tresna horretaz baliatuko gara balio erantsia ekartzen eta gure lana aberasten duenean. Agian, eskolatik kanpo nahikoa teknologia eta pantaila dagoela pentsatuko dugu, baina horiek behar bezala erabiltzen erakutsi behar diegu ikasleei, arriskuak ezagutu ditzaten, beren identitate digitala kontrola dezaten eta, teknologia kontsumitzaile izan beharrean, teknologia sortzaile izan daitezten.

## Tresnen kit-a

Zeregin zaila da, irakasleen praktikaren aldaketa sakon eta iraunkorra bilatzen baita, moda iragankorretatik urrun. Eszenatoki inklusiboak nahi ditugu, guztiontzako ikaskuntza esperientziak dituztenak eta teknologia barne hartzen dutenak, eskola gizarte errealitatetik isolatuta egon ez dadin.

European Schoolnet zailtasun horren jakitun denez, tresna kit bat eskaintzen du aldaketa hau egiteko interesa duten ikastetxeentzako edo irakasle taldeentzako. Bost modulu daude horretarako:

- Interesdunak eta joerak identifikatzea.
- Etorbizuneko ikasgelarako lanketa-ereduak sortzea.
- Gidoi pedagogikoa sortzea.
- Jarduera pedagogiko berritzaileak diseinatzea.
- Ikasgelaren eraberritzea ebaluatzea.

Ikasgela gure ikastetxeetan nola abiarazi planteatzen has gaitezke.

*Etorbizuneko Ikasgelen* enbaxadoreen INTEFeko saretik, tresnen jatorrizko kit-aren bertsioa landu da, gure testuingurura egokitzeko asmoz.



## Erronka

*Etokizuneko Ikasgela* ez da kopiatu beharreko eredu bat. Aitzitik, inspirazio-iturri da, eta hezkuntza komunitate bakoitzak eskola birpentsatu behar du, horren beharren, testu-in-guruaren eta aukeren arabera.

Nafarroan, *Etokizuneko Ikasgela* sortzearen aldeko apustua egin dugu Hezkuntza Sailean, eta teknologia ikasgelan txertatzearen inguruko gure ikuspegia emateko eta irakasleak prestatzeko erabiliko dugu hori.

Ikasturte amaierarako prest eduki nahi dugu, eta 2018-19 ikasturterako abian jarri. Espazio-arrazoak direla-eta, ikasgela bi espaziotan planteatu dugu. Horietako batean, gune hauek biltzen dira: Aurkeztea, Elkarri eragitea eta Trukatzea. Eta bestean, honakoak: Garatzea, Ikertzea eta Sortzea. Gune horiek garrantzitsuak direla uste dugu, horietan garatzen den ikaskuntza mota dela medio; hala ere, guneen antolamendua erabat malgua da. Guneak ez dira derrigorrez espazioan mugaturik egon behar; aitzitik, denboran muga daitezke, ikaskuntza mota bati edo besteari egun batzuk eskainiz. Ikasgela malgua edu- kitzea da xedea, teknologikoki eraginkorra, XXI. mendeko eskumenak lantzeko.

### Erreferentzia bibliografikoak

iTEC, Creación del aula del futuro, datos del proyecto iTEC, 2014. Hemen eskuragarri: [http://fcl.eun.org/documents/10180/18061/iTEC+evaluation+report+2014\\_ES.pdf/5e9c4b15-e2e2-4a25-ac8f-c2cdc866b46a](http://fcl.eun.org/documents/10180/18061/iTEC+evaluation+report+2014_ES.pdf/5e9c4b15-e2e2-4a25-ac8f-c2cdc866b46a)

OBLINGER D., *Learning Spaces*, 2006. Hemen eskuragarri: <https://www.educause.edu/ir/library/pdf/PUB7102a.pdf>

Gallup azterlana, Gallup Student Poll 2014 U.S. Overall Report, 2014. Hemen eskuragarri: <http://www.gallup.com/services/180029/gallup-student-poll-2014-overall-report.aspx>

MARINA, J.A., *Un país de aprendices*, 2017. Hemen eskuragarri: <http://www.joseantoniomarina.net/noticias/un-pais-de-aprendices/>

European Schoolnet, *Etokizuneko ikasgelarako tresnen kit-a*. Hemen eskuragarri: <http://fcl.eun.org/es/toolkit>

El Aula del Futuro, educaLab tresnen kit-aren bertsioa. Hemen eskuragarri: [http://fcl.educalab.es/?page\\_id=135](http://fcl.educalab.es/?page_id=135)

Artikuluari jasotzen diren irudiak hemendik atera dira: <http://fcl.educalab.es/baimenarekin>



# Jolastokia eraberritu. Porlanezko patioetik jolastoki natural eta aberasgarrira

Bernart Etxepare HLHIP, Iruña  
Mikel Larraza Arbizu, zuzendaria  
zuzendari@bernartetxepareip.com

Bernart Etxepare duela zortzi urte eraikitako ikastetxe publikoa da. Hasiera-hasieratik geure patio berri horrek zituen gabeziez jabetu eta prozesu parte-hartzaile baten bidez, komunitate guztiaren elkarrekintzaz eraldaketa bultzatu eta prozesuak berak eskaini digun kohesioa baliatu dugu geure hezkuntza jarduna aberasteko.

**Gako-hitzak:** komunitatea, parte-hartzea, eraldaketa, ametsa, bizikidetzeta.

## Justifikazioa

Bernart Etxepare ikastetxea Txantrea auzoan kokaturiko D ereduko eskola publikoa da. Iruñerrian diren ikastetxeekin parekatuz ez da oso handia baina ezta txikia ere. 465 ikasle ditu egun. Aipatutako ikasle hauetatik jantokian 300 bat ikaslek bazkaltzen du eta, beraz, patioa eskola orduko jostalditik haratago ikasle askok erabiltzen du.

Bernart Etxepare auzoko D ereduko bi eskola elkartzean sortu zen 2010. urtean eta beraz, eraikin nahiko berria dela esan genezake.

Garai hartan, jolastokiari dagokionez, honakoa izan zen topatu genuena: patio estetiki hotza, huts hutsa, hiru zuhaitz soilik (lehengo eskolatan zeudenak moztu zituzten), batere elementu naturalik gabe, porlanaz beteta, eguzkia dagoenean ere begietan min ematen duena eta espazio gehiena futbol eta saskibaloiz zelaiek beteta. Lau porteria, lau saski saskibaloian aritzeko, iturria eta frontoia. Futbito zelaietako baten atzeko aldean Haur Hezkuntzako gelen parean, pasabide estu bat sortzen zuen hesi bat genuen, geletako kristalak baloietatik babesteko. Eserlekurik gabe, hotza egiten duenean oso desatsegina eta beroa egiten duenean ere jasanezina bihur daitekeena.

Gure ustetan eskolako patioak hezkuntza sistemaren eta hiriaren egitura garrantzitsu bat izan behar du eta behar duen garrantzia eman behar zaio, jolas librearen edota haurrak harremanetan jartzeko bizikidetzarako espazio garrantzitsua delako. Eskola or-

dutegitik kanpo gainera, hezkuntza komunitatearen zati handi baten bizikidetzarako gune ere bihurtzen da, bertan pasatzen baitute arratsaldearen zati handia ikasleen familiek ere, belaunaldi ezberdinetako pertsonak espazio bera partekatuz eta erabiliz.

Aurreko guztia aintzat hartuz, patioa eraldatzeko beharra ikusi genuen hasieratik, bai ikasleek, irakasleek, zein gurasoek.

## Faseak eta helburuak

### 2011-12

Ikasturte horretan egoeraren diagnostikoa aurrera eraman genuen. Galdeketa komunitate osoari egin zitzaion, baita ikasleei ere. Ateratako ondorioen gainean egindako hausnarketak geure proiektuan ezinbestekoak izanen ziren kontzeptuak identifikatzera eraman gintuen: elkartasuna, errespetua, ardura, integrazioa, zorientasuna, maitasuna, laguntasuna, kooperazioa, partaidetza, ekologia, hezkidetzeta, sormena eta haurren segurtasuna, besteak beste. Beraz, helburuak balio eta kontzeptu hauetan guztietan oinarrituta daude.

Sortu nahi dugun espazioak honako baldintzak bete behar ditu:

- Lasaitasuna eta mugimendua bermatu behar ditu.
- Haurren aniztasuna eta behar ezberdinak errespetatuko ditu, adinaren edo interesen arabera.
- Elementu naturalak izango ditu, esperimentazioa, naturarekiko errespetuzko jarrerak, eta jakin mina bultzatzeko.
- Gela barruko lanak kanporatu eta eskola komunitate osoari zabaldu eta landutako edukietan sakontzeko espazioa izango da.
- Patioa eraldatzeko orduan hezkuntza komunitate osoaren elkarlana eta partaidetza bultzatuko ditu.
- Hezkuntza komunitate osoaren topagune eroso eta atsegina bilakatuko da.
- Eremu segurua izango da, maila fisiko nahiz afektiboan.

Hauetaz gain, Bernart Etxepareko Hezkuntza Proiektua zehazten duen dokumentuko

6.5 puntua ere izan genuen oinarri eta helburu:

*“6.5. Espazio komunaren erabilera eta izaera:*

*Alderdi horretan bi espazio mota ezberdinak ditzakegu. Betebehar edo helburu zehatz baterako eremuak (liburutegia, soinketa gela, informatika gela, jantokia...) eta erabilera anitzetarako dauden espazioak (patioa eta aterpea).*

*Espazio horietan guztietan ondoko printzipioak bermatuko dira:*

- *Toki horiek erabiltzeko arauak ezagutu eta errespetatzea.*
- *Inolako bazterkeriarik ez onartzea eta horretara eraman gaitzaken edozein elementutik aske izatea.*
- *Eremua erabiliko duen edonoren segurtasun fisiko zein psikologikoa babestea.*

*Erabilera anitzetako espazioak, gainera, bizikidetzeta-giro aproposa sortuko duten elementuz hornituko dira. Bertan izango diren pertsona guztien nahiak eta beharrak asetzeko eran egituratuko dira, batzuen eta besteen aisialdirako eskubidea bermatzeko”.*

## 2012-2013

Batez ere beste esperientziak ezagutu nahi genituen eta bi mahai inguru antolatuta genituen. Lehenengoa eskola ezberdinetako hezitzaileekin eta bigarrena pedagogia, psikoterapia eta hezkidetzaren adituekin, Aitor Etxarterekin eta Alfredo Hoyuelosekin, besteak beste. Hegoalde Ikastolako patio eraldatu berria ikustera bisita bat egin genuen. Helburu nagusia informazioa biltzea eta gaiarekiko komunitatearen sentsibilizazioa bultzatzea izan zen.

## 2013-2014


Lehen Hezkuntzakoentzat patioa eremuka banatu zen batez ere futbolaren esparrua mugatzeko eta beste jolas mota batzuk bultzatzeko. Bai LHko eta baita HHko jostaldietarako material ezberdinak prestatu ziren: sokak, gomak, zanko txikiak, txapak, botila kuxkak e.a. Hementxe konturatu ginen zeinen aldaketa handia ekar dezakeen erabaki txiki batek. Haurrak zoriontsu ziren garagardo botilen kutxa batean sartuta eta beste batzuk soka batez lotuta, kutxa trineo moduan arrastaka eramanez, adibidez, edota kar-toizko tutu eta kutxekin zer-nolako sormen interesgarriak egin zitezkeen. Patioaren garbitasunaren inguruko hausnarketa eta kanpaina ere egin ziren.

## 2014-2016

Tarte honetan impasse batean izan ginen, hasierako ilusioek errealitatearekin talka egin baitzuten behin eta berriro, proiektua gauzatzeko dirua behar zelako. Udalarekin harremanetan jarri ginen, baina aurrekontu faltagatik, ez zen proiektua gauzaterik izan.

Tarte hau egina zegoen proiektua osatzen eman genuen eta baita osagarriak ziren beste planteamendu batzuk proposatu udalari. Ikastetxe ondoan dagoen eta erabilerarik ez duen Salestarren patioa erabiltzeko baimena eta sarrera ikastetxetik bertatik egiteko beharrezkoa zen obra eskatu genituen, esate baterako. Patio hori askoz zaharragoa da eta gainera lorategi zein zuhaitz gehiago ditu, ureztatze sistemaz gain eta gainera egun udalarena da. Horrek, geure ikasleen aisia ezer eraiki gabe, askoz ere elementu natural gehiago dituen patioa eskaintzen digu, baina oraindik ez dugu aukera hori gauzaterik izan.

Aldi horretan ere, ikastetxeko Eskola Kontseilutik pasata, futbito pista bateko bi ateak kentzea erabaki genuen. Hau ia kosturik gabeko aldaketa izan arren, erabateko iraultza ekarri zuen, hasierako ikasle batzuen kexengatik (kentzearekin ados ez zeudelako) baina, batez ere, ondoren, patioaren erdia baino gehiago kirol jarduera espezifikoko horri eskaintzea galarazi zuelako eta guztiontzako atseginagoa zen espazioan bihurtu zuelako. Aurretik jada pista horretan jostaldietan futbiton aritzea debekatua zegoen, baina eskola ondorengo orduetan patioaren erdia baino gehiago ikasleen ehuneko 20 baino gutxiagok betetzen zuen. Bitxia izan zen udalera deitu genuenean ateak kentzeko eskatuz, hori eskatzen zitzaizen aurreneko aldia zela erantzun zigutenean. Harrituta ziren hartutako erabakiarekin eta ea ziur ginen galdetu ziguten.



Patioko proiektuaren plana

## 2016-2017

Prozesuari bultzada berri bat emateko taldea berri zen, guraso elkarteko partaide berriak eta irakasle berriekin. Patioa hornitu eta eraldatzeko proiektua birplanteatu zen eta Iruñeko Udalarekin harremanetan jarri ginen berriz eta elkarlanean oinarritutako prozesua martxan jarri zen.

Patioko hormak marrazteko proiektu "txiki handi" bat aurrera eramán zen. 3 marrazki aurkeztu ziren, prozesu parte-hartzaile baten bidez euren proposamenak aurkezturiko guztien artean. Komunitateak bozkatu ondoren, bat aukeratu eta auzolanean marraztu eta margotu egin zen. Pauso txiki bat izan zen baina guretzat oso garrantzitsua, ilusioa berreskuratu genuelako eta proiektuan sinesten hasi ginelako berriro.

## Amestu duguna

Ibilbide luze honen ondoren, irudian ikus daiteke zein izan den guztion artean eraiki dugun ametsa.

Udalarekin harremanetan izan garenez, geure irudikapen honen berri izan zuten eta euren zenbait zerbitzu geure esku jarri zituzten. Lorategien zerbitzuko arduraduna, ikastetxera bertara etorri zen lorategi bertikalak egiten laguntzeko eta udaleko bi arkitekto ere, rokodromoa non jarri eta hesi bat nondik eta nola kentzeko aukera ikusteko. Horretaz gain, arkitekto horietako batek geure amets horretatik abiatuz, aurreproiektu plano bat egin zuen.

Ikusteko dago hori aurrera eramateko aukerarik izanen den, aurrekontuen arabera, baina bitartean ikastetxeko balia bideekin geure amets horretarantz doan bidea jorratzen jarraituko dugu.



## Egiten ari garena

- Loreontzi bertikalak prestatzen aritu gara, udaletxeko espezialista baten laguntzaz.
- Neurri ezberdineko gurpilak garbitu eta prestatu ditugu jolas zirkuituak egiteko.
- Udalak rokodromo bat eraiki digu.
- Egurrezko bobinak prestatzen ari gara jolas ezberdinetako euskarri bihurtuz.
- Egurrezko mahaiak patioan jarri dira.

Hala ere, proiektua gauzatzen den modua zein den hainbeste axola gabe, bide horretan aurrera eraman dugun prozesuak eta guztion parte-hartzea ardatz izan den tarteak bizitzeak soilik, merezi izan du, komunitateak noranzko berean lan egitea ariketa ezin hobea baita kohesioa lantzeko eta zentzu askotan, geure hezkuntza eskaintza askoz aberasgarriagoa egiteko.

# Askatasun giroak haurren garapenerako

Mendigoiti HLHIP, Iruña  
Ane Arribillaga Sagastibeltza, zuzendaria  
cpmendi4@educacion.navarra.es

Haurtzaroaz dugun irudiak eskolaren jokaera zehazten du. Gure ondoan dugun haurra gaitasunez beteta dagoen pertsona bezala begiratzen badugu, orain arte garatu dituen eta aurrerago garatuko dituen gaitasunez betea bezala ikusten badugu, orduan haurra erdigunean jarriko dugu eta gure zeregina bere beharrak aseko dituen testuinguru, giro on bat eskaintzeko adi egotea izango da. Berez etorriko zaion garapen horren bidelagunak izanen gara irakasleak, konfiantza dugu norbera bere erritmoan, bere desberdintasunekin haziz eta heziz joanen dela, norberaren garapen propioa errespetatu nahi dugu.

Gako-hitzak: haurtzaroa, askatasuna mugitzeko, jolasa, iniziatiba eta autonomia, giroak, errespetua.

## Testuingurua

Mendigoiti ikastetxea, Iruñeko Mendillorri auzoan kokaturik dago, goialdeko auzoan, Gorraizko Kontzejuaren kalean. Berdegune ugari ditu inguruan eta aintzira txiki bat ere. Hiriko ur biltegitik hurbil dago eta bertan parke botaniko txiki bat, pasealekuak, zuhaitziak eta behatokiak daude. Aisiarako ingurune, naturarekiko lotura bermatzen duen espazioa dugu hau.

Ikastetxe honek 2.000 urtean bere hezkuntza lana hasi zuen auzoko hezkuntza eskariari erantzuteko eta euskaraz kalitatezko hezkuntza eskaintzeko. Gaur egun 237 haur dira eskolan, horietatik erdiek txikien komunitatea osatzen dute eta beste erdiek Lehen Hezkuntzako komunitatea.

Mendigoiti eraldatze prozesu batean sartuta dagoen ikastetxea da. Eskola tradizional batetik, non espazioa eredu pedagogiko bakar baterako antolatua zegoen eta irakaslearen irakaskuntza magistralean begirada jarria zuen, pentsamendu aldaketa bat ematen ari den eskola batera aldatzen ari da. Pentsamendu aldaketaren bidea luzea da.



Azken urte hauetan irakasle taldeak egindako ibilbideak beste errealitate batzuen aurrean kokatu eta eskoletan egiteko modu ezberdinak ezagutzera eraman gaitu. Finlandiako hezkuntza sistema, Ripolleteko *El Martinet*, Bartzelonako *Congrés Indians*, Montessori gelak, Trokonitzko Waldorf, Reggio Emiliako hezkuntza proposamenak eta Antzuolako eskola, besteak beste, ezagutu ditugu.

Bidaia pedagogikoekin batera Montessori pedagogian oinarritutako prestakuntza sendoa egin dugu, Montessori gida baten akonpainamenduak, proiektuka lanean aritzeko prestakuntza koherenteak, eta Arno Stern edo Hezkuntza Sortzailearen printzipioetara hurbiltzeko prestakuntzak posible egin dute aldaketaren bidea. Haurrari heziketarako giro antolatuak eskaintzea eta proiektuka lanean aritzeak zehaztuko du ikastetxean garatzen ari garen metodologia bizia eta aktiboa.

Ikaslea erdigunean dagoenean, ikaskuntza ez da irakaskuntzaren fruitua, irakaslea ez da jakinduriaren jabea. Aldaketa metodologikoak begirada aldaketa dakarrenean pentsamendu aldaketa bat ere ematen ari da. Berrikuntza haurtzaroarekiko begirada aldaketaren eskutik etorriko da eta honek nahitaez hezkuntzarekiko sinesmenaren aldaketa ekarriko du.

## Hezkuntza oinarriak

Mendigoitiko proiektuaren ardatza nagusiak dira:

- Haurtzaroaren irudia. Gaitasuna duen haurra bezala hartzen dugu, erlazioak sortzeko, beste pertsonekin, materialekin, inguruarekin.
- Jolasaren garrantzia. Esperimentazioa, irudimena, sormena, manipulatzeari lehentasuna ematea. Umeak jolastuz ikasten du, ez du bereizten jolastea eta ikastea (André Stern).
- Mugitzeko askatasuna haurraren eskubide bezala hartua. Denbora luzez arreta mantentzeko zailtasunak ditugu, mugitzeko beharra dugu.



- Norberaren autonomiaren konkista. Bere kabuz egitearen lorpena. Montessorik zioen bezala "Utzi nik egiten, zure laguntzarik gabe". Giroetan dauden bizitza praktikoarekin lotutako proposamenekin lotzen dugu.
- Norbanakoaren ikasketak. Haurrek bere erritmoari errespetatuz ikas dezakete. Haurrei behar dutena eskaintzeko adi egon behar dugu.
- Erabakiak hartzeko ikastea. Haurra bere beharrekin lotuta egotea ahalbidetzen badugu, haiek asetzeko erabakiak hartuko ditu. Montessorik zioen, "Haurrak ez du nahi duena egiten; baizik eta nahi du, egiten duen hori".
- Ikasteko jakin-mina, motibazioa, emozioa, ongi izatea eta errespetua. Gizakiak berezkoa duen ikasteko gaitasuna, motibazio eta emoziorik gabe galtzen joaten da. Metodologia aktibo eta biziak motibazioari, ongi izateari, errespetuari eusten diote. Neurozientziaren ekarpena da emozioa beharrezkoa dela ikasteko.
- Naturarekiko lotura. Gizakiak naturarekiko lotura berezkoa du. Baratza espazio egokia da mugitzeko, jolasteko, aurkikuntzak egiteko. Lur sail txikietan banatua dago, laborantza mahaiak ditu, eremu sensoriala landare usaingarriekin, konpostagailua. Landart edo aldi baterako sormen lanak jasotzeko espazioa ere bada.
- Irakaslea bidelagun bezala. Dokumentazioa. Irakaslea errespetuz banakakoa aintzat hartzen duen laguntzaile gisa hartuko dugu. Haur bakoitzaren prozesuaren behatzailea izanen da. Adi egonen da. Haurrek egiten dutena argazkien bidez, haurren arteko bat-bateko elkarriketa bat idatziz dokumentatzen du. Dokumentazioak haurtzaroaren kultura jaso eta zabaltzea ahalbidetzen du.

## Heziketarako, garapenerako giro antolatua


Espazioak ikaskuntza erraztu edo mugatu dezakeelako, metodologia aktiboak landu nahi dituen eskola batek eskola tradizional bateko arkitektura eta espazioen erabilera tradizionala gainditu egiten ditu. Espazio fisiko malguak, askotariko erabilerearako inguruak eta material anitzak ere eskaini behar ditu.

Espazio fisikoa objektuak, materialak eta altzariak jasotzen dituen da. Giroa, berriz, bizitzen dugunaren ingurua da. Bertan garatzen dira afektuak, emozioak, sentimenduak edo pertsonen arteko harremanak.

Haurra, ingurunean bizitzen duenarekin, aurkitzen duenarekin, bere esperientziarekin, beharrekin, emozioekin eta ahalmenekin garatzen da. Gaitasuna duen pertsona bezala hartzen badugu, beste pertsonekin harremanak izan dezakeena eta materialekin harremanak dituen, bere erreferentea ez da pertsona bakarra, ingurua bera ere bada. Beraz, espazioa tresna pedagogikoa da (Loris Malaguzzi).

Eskolako espazioak informazio asko ematen digu bertako jardura hezigarriari buruz. Eskolaren hezkuntza oinarriak agerian uzten ditu hezkuntzari buruzko duen sinetsmena eta bere pentsamendua komunikatzen du. Bertan, haurrek esploratzeko, aurkitzeko, harremanak sortzeko eta jolastuz ikasteko aukera izan behar dute, bere garapen osoa sustatuz.

Haurra eskolara joaten denean ongi sentitu behar da. Sarrera egoki bat izan behar du, harrera ona egin behar zaio, behar duen denbora emanez, familiarekiko urruntze



prozesu on bat izan behar du. Espaziora ohitu behar du, ziurtasunik ez badu ez baitu espazioa esploratu eta aurkikuntzarik eginen behar duen askatasuna eta autonomiarekin.

Mendigoitiko giro antolatua heziketarako inguruneak dira. Haurtzaroaren ikuskera bati erantzuteko prestatuak, non umeen erritmoei, benetako beharrei, interesei, errespetu osoz eta material anitz egokiekin erantzun nahi zaien.

Ohiko gelaren kontzeptua gainditzen dute. Ikasleek modu aktiboan, eginez, biziz eta helduen esku-hartze eta zuzenketatik urrunduz, ikas dezaten bilatzen dugu.

Giroetan dagoenean, haurrak egiten duen hori nahi du eta honek adierazten du bere benetako beharrek lotuta dagoela eta hauek asetzen ari dela. Giroa segurua izan behar da, arriskurik gabekoa. Honetarako, mugak ezinbestekoak dira. Muga hauek *maitasunez* eta *errespetuz* (Rebeca Wild) jarriko dira eta bizikidetzaz errazten dute. Haurrei horrelako mezuak ematen zaizkie: "Hemen ez dugu korrika egiten", "Hemen tonu egokian, hitz egiten dugu", "Hemen materialak eskatu egiten ditugu". Korrika egiteko eta oihu egiteko beharra asetzeko alternatibak eskainiko zaizkie.

Denbora errutina batzuk ere jartzen dira: harrera egiteko momentua, libre transitzio momentua, materialak eta giroak txukuntzeko, talde handian biltzeko, gosari kolektiboa egiteko, ipuina kontatzeko, agurtzeko momentua.

Haur Hezkuntzan mugitzeko eta joko sinbolikoa garatzeko proposamenak dituen bi pasabide prestatu ditugu:

- Beheko solairuan egurrezko etxetxoak, igotzeko eta jaisteko egurrezko elementuak dituen edo kotxeekin jolasteko zirkuituak.
- Goiko solairuan, basoaren mini mundua, taula kurbatua, oihalekin jolasteko espazioak, mozorrotzeko, ezkutatzeko, atsedean hartzeko espazioak, eta behaketa garatzeko arrain ontzi handia.

Jarduera lasaiagoetarako barruko bost giro desberdin:

- Joko sinbolikorako eta bizitza praktikorako giroa: animalientzako lur eremua, sutegia, Montessoriren bizitza praktikoari jarraituz, autonomia garatzeko proposamenak dituena: zukua egitea, landareak ureztatzea, arropa zabaltzea, ontziak eta pitxerrak ura isuri aldatzeko, kristalak garbitzeko, erratza pasatzeko, mahaia garbitzeko, galtzerdiak tolestatzea, pintzak.
- Naturaren giroa: arearen eremua, mahai sentsoriala, argi mahaia, urtaro mahaia, Reggio Emiliaren proposamenak jasotzen dituena, loreak, harriak, piñoiak, tesela txikiak, torlojuak, hostoak. Iritzirik gabeko sorrera bideratzeko proposamenak guztiak, sailkapenak egiteko, ordenatzeko materialak eta ontziak.
- Argi-itzalen giroa: argiarekin esperimintatzeko, sortzeko, aurkikuntzak egiteko aukera ematen du. Erretroproiektoreak, argi mahai handi eta txikiak, ispiluak edo ordenagailua dira. Esperimintatzeko, sortzeko, material anitza eskaintzen zaie.
- Artisten giroa: paper ezberdinak, tamaina, testura, koloreak, klarionak, buztina, hondar zinetikoa, imanak, josteko proposamenak, kordatzeko proposamenak, akuarelak, hariak. Material ezberdinekin eta hondakin materialekin esperimintatzeko aukerak dira, hostoak eta loreak zamatzeko tresnak, arrastoa uzteko, likido tantetarako pipetak.
- Eraikuntza eta irakurketa-idazketarako giroa: itxura eta tamaina ezberdineko egurrezko eraikuntza blokeak, formak itxuratzeko area duten erretiluak, hitzak eta irudiak, letrak dituzten harriak, mezularitza, lizazko letra eta zenbakiak, dominoak, kapla, mahai jolasak.

Beste espazio batzuen artean, Montessori gela, matematika eta alderdi sentsoriala lantzeko berariazko materialarekin, Aucouturier praktikarako psikogela eta baratze-lorategia ere baditugu. Espazio hauetan prozesuak, hasiera, garapena eta amaiera duten zuzendutako proposamenak garatzen ditugu.

## Materialak

Giroak material ezberdinekin osatzen dira. Haurrak materialekiko loturak, harremanak ezartzen ditu eta beraien bitartez ikasketak sortzen dira. Giroetan dauden material guztiak erabilgarri dira haurarentzat bere ikasketa ahalbidetzeko eta Curriculumak ezarritako edukiei erantzuten diete.

Mendigoitin Montessori eta Waldorf materialak, birziklapen materiala, naturak eskainiak edo egurrezkoak dira gehienbat aurkitzen direnak. Materialak eta espazioak ikasketak egiteko diseinatuak daude.

Lehen Hezkuntzan, lehen aipatutako material horietaz gain, mugitzeko aukerak ere behar dituzte: arauak dituzten jolasak, mahai jolasak, logika garatzekoak. Bestalde, esperimintuak egiteko aukera ezberdinak behar dituzte (olioa, ozpina, gatza, koloragarriak, bikarbonatoa); ikerketarako materialak (lupak, mikroskopioak, balantzak, erlojuak, ispiluak). Matematikarako Montessori material ugari dute, banka, abakoak, zatikietarako, sistema hamartarrerako materialak, zulodun taulak, batuketa, kenketa, biderketa, zatikietarako, kontaketarako perlat. Irakurketarako, geografia, botanika eta historia lantzeko materialak ere badituzte.



## Egunerokotasuna

*“Umeentzat egiten dugun guzti hura ez dugu soilik oraingo unerako egiten, bizitza osorako baizik”.*  
Rudolf Steiner.

Goizeko 8:50etatik aurrera oso ohikoa da familiak seme-alabei laguntzen ikustea, eskola barruan daude, zapatak erantzten laguntzen diete, berokiak zintzilikatzen. Egoki ikusten dutenean haurrak eta beste helduak agurtzen dituzte.

Haurrak erreferentzia gelara joaten dira, irakaslea agurtzen dute eta trantsitu librean jarduten dute goizeko lehenengo atsedenaldea arte, hau da, 10:20ak arte.

Ordutegiko lehenengo bloke honetan askatasunez mugitzen dira antolatutako giroetatik eta askatasunez jarduten dute proposamen eta eskura dituzten materialekin ere. Giroak txukun uzten dituzte, denen artean.

Patiora ateratzen dira bloke amaieran eta denbora errutina bat bezala har dezakegu une hau.

Atsedenaldea amaieran, patiotik itzultitakoan, gosari kolektiboa egiten dute. Ez da derigorrezkoa etxetik ekarri duten hura jatea, geletan fruta eta barazkiak eskura dituzte eta edozein unetan jan dezakete.

Goizeko bigarren blokean 10:40etatik 12:10etara, prozesuak jorratzeko unea da.

Prozesuetan lan kognitiboari eman nahi zaio tarte. Hasiara, garapena eta amaiera duten proposamenak dira. Une honetan haurrak erreferentziazko taldearekin jarduten dute. Hiru prozesu desberdin ditugu antolatuak: matematika Montessori gelan, lpuin magikoa eta Aucouturier psikomotritzitatea.

Bloke honen amaieran, bigarren atsedenaldea dute 12:30ak arte eta jarraian goizeko hirugarren blokean, 14:00ak arte, gelako proiektuak jorratuko dira. Ikasleen interesetatik



abiatuta, haien proposamenak aintzat hartuta gai ezberdinak lantzen dira edo behaketa zuzenak egiten dira. Landare bat, animalia bat... irakasleak interesa pizteko galderak egiten ditu. Erantzuna baino garrantzia handiagoa dute galdera hauek. Asanbladan aukera dute bizipenenaz hitz egiteko, ekarpenak egiteko, emozioak agertzeko edo eta kandela txiki bat piztu, ipuintxo, kanta edo errimatxo batekin egunari behar bezalako amaiera emateko.

# Txantrea Hegoaldea eta Takonera, parkeak birpentsatu

Mikel Baztán Carrera

Iruñeko Udaleko Parke, Lorategi eta  
Berdeguneetako zuzendari teknikoa

Hurrenez hurren 100.000 eta 200.000 m<sup>2</sup> dituzten bi parke hauek Iruña iparraldean sortzeko aukera udal hirigintza-planetik jaio da, eta, hori bideragarria izan dadin, udal-lurzoruan egindako urbanizazioetatik eratorritako lurzoruak eskuratu ditu udalak.

Hiritarrentzako ingurune berdeak eta iraunkorrak sortzeko aukera handia dakar horrek.



Gako-hitzak: iraunkortasuna, eraldaketa, berdeguneak, hiritarrak.

## Txantrea Hegoaldea parkea

Txantrea Hegoaldea parkea Txantrea eta Magdalena auzoen artean kokatuta dago, eta 100.000 m<sup>2</sup>-ko gainazala du. Bizilagunentzako mugarri historikoa da; izan ere, lehen aldiz, parkea beharrezkoa iruditzen al zaien eta, batez ere, parke hori nolakoa izatea nahiko luketen galdetu zaie. Horregatik, udalak hiritarren partaidetza-prozesu bat abiarazi du, hainbat faserekin:

- Parkea sortzeko proposamenaren aurkezpena.
- Bisita gidatuak eta partaidetzarako eta alde zuzeneko ekarpenetarako foroak.
- Análisisa eta aurreproiektuen proposamenei deia-lehiaketaren lehen fasean egindako ekarpenak.
- Lehen bost aurreproiektu hobereenen hautaketa.
- Azkenik hautatutako proposamena hobetzeko ekarpenak.

Prozesuan zehar 2.271 ideia eta proposamen aurkeztu ziren, prozesuaren irismen neurriaren erakusgarri.



Txantrea Hegoaldea parkea

### Parkeko antolamendua eta zerbitzuak

Idea orokorraren arabera, behatzeko besterik ez den eta mantentze-lan handia behar duen parketik harago joan nahi da, zerbitzu eta balioei dagokienez, espazio polifazetiko baterantz aurrera egiteko.

Horregatik, gune eta elementu hauek planteatzen dira:

- Fruta-arbolak, barazkiak, sendabelarrak, ongailuak, etab. zaintzeko guneak.
- Bioaniztasunaren gunea: larreak eta basoa.
- 0 Km laborantza profesionalerako lursailak.
- Mantentze lanen eta ur kontsumoaren eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera.

- Mugikortasun eraginkorra oinezko eta txirrindularientzat.
- Ingurumen hezkuntza eta hiritarren parte-hartzea, gizarte oinarri solido gisa.
- Jolasaren sustapena naturan.

Azkenik, parkearen sorrera prozesuan zehar ikasleek, bizilagunek eta interesdun entitateek parte-hartze bizia izan dezatela nahi da, hainbat auzolanen, jarduera osagarriren eta ospakizunen bidez.

## Takonera


### Aisialdirako espazio nagusi izatetik gainbeheran dagoen eremu izatera

Hiriko parkerik zaharrena da Takonera, eta Iruñeko haurren jolasgunea izan da belaunaldi askoan zehar.

Jolasa eta Takonera nahiz beste parke konplexu batzuen kontserbazioa bateragarri izan daitezkeela erakusten du horrek. Hala ere, hiriaren garapena eta gizartearen ohitura aldaketak direla eta, txakurrak dituzten pertsonak eta/edo erretiratuek paseatzeko baino ez dute erabiltzen gaur egun, eta aspaldiko jolas-funtzio garrantzitsua galdu du.

### Parkea gizartearen aisialdirako eta kulturarako espazio gisa berreskuratzea

Parkea berriz ere nabarmendu nahi da, aisialdirako eta kulturarako leku ezin hobea baita. Horretarako, interes mota guztietarako elementu eta jarduera berritzaileak sartu nahi dira. Zehazki, eta haurrei dagokienez, iparraldean esku hartzeko asmoa dago, naturan jolasteko hainbat espazio sortzeko, oinarrizko elementu eta adin guztietarako proposamenekin.



Jolaserako eta aurkikuntzarako espazioak





Prozesuaren faseak

### Parkearen balio botaniko eta naturalak gizarteratzea

XVIII. mendeko parke honen aberastasuna ikaragarria da historia mailan, diseinu mailan eta eraikuntza zein landaredia elementuetan. Azken horiek landare eta animalien hainbat komunitate osatzen dituzte, gure hirian soilik biltzen direnak. Beraz, horiek ezagutzea, gozatzea eta zaintzea merezi dute. Hiri erdian, dozenaka landare eta animalia espezie bizi dira.

### Takonera iparraldearen eraldaketa

Diseinatutako planteamenduak denboran zehar garatzen joateko hainbat jarduera eremu aurreikusten ditu, jolasari ahalik eta ikuspuntu eta interes handiena bideratuz:

- 0-3 urteen gunea edo Play ground.
- Txirristak eta labirintoa.
- Baso eremua, hainbat tresnekin.
- Oinezkoen eta txirringularen konexio-gunea.
- Gune erromantikoa eta ura.
- Espazio naturala.
- Hainbat erabilerarako eraikuntza txikiak.

2018. urtean zehar, Play ground, txirrista eta labirintoaren fasea gauzatzea planteatzen da. Jolasteko modu inklusiboagoa eta naturalagoa sustatzean datza, materialei, harreman-esparruari eta "jolasean" dauden eragile guztien inplikazioari dagokienez, parkearen balioak eta interes-elementuak errespetatuz, multzo aberats, erabili eta zainduagoa lortzeko.

Jarraian, hiriarentzat hain garrantzitsua den espazio historiko honetan aurreikusi diren gainontzeko jarduerak garatuko dira.

# Espazioaren eta hezkuntzaren arteko beharrezko intersektzioa

**Tximeleta Eskola, Iruña**

Carmen Urpi Guercia, ikertzailea eta irakaslea.

Hezkuntza eta Psikologia Fakultatea. Nafarroako Unibertsitatea

Maidier Itoiz Oroz, Tximeleta Eskolako koordinatzailea

curpi@unav.es, tximeletaequip@gmail.com

Espazioak hezkuntzaren beharrei erantzuten dien neurrian okupatzen du hezkuntzak lekua, baina behar horietaz harago, espazioak hezi ere egiten du. Espazioen erabilerari eta antolamenduari dagokionez, Tximeleta Eskolak egiten duen planteamendua azaltzen du testuak. Horretan erabiltzen den pedagogiari esker, okupatzen dituen lekuen jabe eginez joango da haur bakoitza, bertan lortzen dituen ikaskuntzak bere egiten dituen neurrian.

**Gako-hitzak:** eskola-espazioa, curriculum-malgutasuna, eskola-arkitektura, Tximeleta Eskola, psikomotrizitatea eta haur-garapena.

Abiapuntutzat hartzen dugun ikuspuntu bateratuaren arabera, espazioaren eta hezkuntzaren intersektzioa beharrezkoa dela erakusten digu eguneroko eskola-praktikak.

Ikuspuntu horretan bi dimentsio osagarri bereizten ditugu: hezkuntzaren espazio-dimentsioa eta espazioaren hezkuntza-dimentsioa. Hau da, alde batetik, *hezteko leku bat sortzeko beharra* ikusten dugu (Romañá, 2004), eta kontu mota ororen inguruan hausnartzera garamatza horrek, gai hauei dagokienez: lurraldea eta hirigintza, arkitektura, diseinua, materialak, akustika, egitura iragankorren irisgarritasuna eta malgutasuna, ikasgela arruntan eta beste egonleku polibalente eta espezifikoek ekipamenduak eta pasaguneetan edo kanpoan dauden zerbitzuguneak. Beraz, espazioak hezkuntzaren beharrei erantzuten dien neurrian, *hezkuntzak lekua okupatzen* duela esango genuke, baina behar horietaz harago, hezkuntza aukera berrien inguruan hausnartzen uzten digu espazioak, galdera pedagogiko interesgarriak planteatuz (Brooks, Fuller eta Waters, 2012).

Horrenbestez, espazioaren hezkuntza-aukerak aztertzean, askotariko gaiak kontuan har ditzakegu: gorputzak eta inguruneak elkarri eragitean ematen den garapen psikomotorra, eguneroko hezkuntza giroen zaintza eta estetika, eskola espazioek (jolastokiak, lorategiak, jantokia, pasaguneak eta familien parte-hartzerako guneak) eragiten dituzten



interrelazio sozialak, ICTak eta espazio birtualak, curriculum malgutasuna ikasgelak bazean, irteerak eta ikastetxearen bisitak, ikasgelatik eta eskolatik kanpoko natura, museoen, auditorioen, antzokien, liburutegien, filmoteken, parke tematikoen eta beste askoren eskola-programak. Zentzu horretan, *espazioak hezten duela* esango genuke hemen, hezkuntza-aukerak sortzen dituela. Monahanek (2002) honako hau iradokiko zuen espazio malguaren eta pedagogia sortzeko gai den espazioaren ezaugarriez hausnartzen duenean: arintasuna, moldatzeko erraztasuna, bihurtgarritasuna, eskalagarritasuna eta aldakortasuna.

Hezitzaileek espazioaren eta hezkuntzaren arteko intersekzioan sortutako dimentsio bikoitz hori hartu beharko lukete gogoan, baina baita arkitekturak ere, giza inguruneke espazioak proiektatzeko arte gisa (Costa eta Urpí, 2013). Finean, gure ikuspuntuaren arabera, kontu horiek hainbat arloko adituei dagozkien arren (pedagogia, arkitektura, diseinua, psikomotrizitatea, etab.), garrantzitsua da guztion arteko elkarrizketaren bidez laguntzea, hezkuntzaren espazio baldintzak nahiz espazioaren hezkuntza baldintzak hobetzeko helburuarekin.

## Tximeleta Eskola, hazteko espazioa

Tximeleta Eskolan,<sup>1</sup> ikasleetan eta haien ikaskuntzan jartzen du arreta elkarrizketa horrek, garatzen den hezkuntza jarduera oren ardatz nagusi gisa.

1 2002an familietatik sortzen den ekimena, Hezkuntza Berrikuntzarako Tximeleta Erakundea izenarekin. Gaur egun, Iruña (Nafarroa) kanpoaldean kokatzen da, Orkoienara bidean. 3 eta 11 urte arteko 40 haur ditu guztira. Curriculuma lantzen da, proiektuen, tailerren, norberaren denboraren, gonbidatutako bisiten eta irteeren bidez. Metodologia ludikoa, parte hartzailea, manipulazioan eta esperimenduetan eta lankidetzan oinarritutakoa eta pertsonalizatua jarraitzen dute horiek.

Egungo kokalekuak eta eraikuntzak materialki mugatzen dute eskola eta, baliabide eskuragarriekin batera, erabakiak etengabe hartzea baldintzatzen dute. Horrenbestez, gure pedagogiak haurren hazkundearen hezkuntza beharrak lehenesten ditu: hazkundearen baldintza oinarritzkoenak, lotura emozional segurua edo garapen psikomotor osasungarria kasu, kontu didaktiko zehatzagoak norberaren ikaskuntza-erritmoa edo curriculumaren eduki zehatzekiko interes pertsonala kasu, eta beste batzuk.

Hartara, espazioen inguruko planteamendu oro bektore horrek zehazten du, eta, beraz, okupatzen duen lekuaren jabe dela sentitu ahal izango du haur bakoitzak, hau da, lekua berea dela sentituko du, eta, aldi berean, bertan gauzatzen den ikaskuntza bereganatuko du.

Dokumentu honetan, Tximeletaren lau ekimen nabarmenduko ditugu, espazioaren bereganatze horren bidez ikaskuntza erraztea helburu dutenak.

- Psikomotrizitate-mugimendu-musika gela.
- Krisalida gela.
- *Karplasteria* gela.
- Kanpo espazioa.

### Psikomotrizitate-mugimendu-musika gela

Sortu zenetik, Tximeletak garapen psikomotorrari eman dio lehenetasuna ikaskuntzan, haurren hazkundearen mugimendu hedakorrean oinarrituz. Psikomotrizitate osasungarriak ondorengo garapen emozional eta kognitiboaren oinarriak nola finkatzen dituen egiaztatzen dute ikerketek (Pikkler).

Urteek aurrera egin ahala eta eskolaren kokapen aldaketekin, hezkuntza helburu hori hainbat ekintzatan zehaztuz joan da, espazio bakoitzaren baldintzen arabera. Horien guztien artean, psikomotrizitate-, mugimendu- eta musika-gela nabarmendu behar da.



Kontuan hartu behar da eskolaren pedagogia, mugimenduari dagokionez, ez dela espazio horretara mugatzen; aitzitik, jarraian azalduko ditugun espazioetan garatzen diren ekintza ugari barne hartzen ditu.

Praktika psikomotriz hezigarriaren oinarrian, jolas espontaneo dago, planteamendu pedagogikoaren ardatz nagusi gisa. Hala, ekintza, mugimendua, hitza eta adierazpena haur identitatearen benetako adierazpen elementu bilakatzen dira. Hori litzateke gela horren funtzioen abiapuntua.

Bigarrenik, haurren dimentsio globala hartzen da kontuan, alderdi korporala, emozionala eta kognitiboa barne. Zentzu horretan, gelan jarraitzen den saio ereduak globaltasun horri erantzuten dio espazioaren diseinuaren, materialaren hautaketaren eta denboraren antolamenduaren bitartez.

Saio bakoitzean proposatzen den ibilbideak jardutearen plazeretik pentsatzearen plazerera doan prozesua errazten du, hurrengo helburu nagusiak kontuan hartuz.

Psikomotrizitate gelaren helburuak			
<b>Adierazpen sinbolikoak sustatzea ekintza korporalean eta mugimenduan oinarrituz.</b>	<b>Hitzaren, adierazpen plastikoaren eta kontaketa/ ipuinaren bidez, bizipenak proiektatzea.</b>	<b>Heltze psikologikoa sustatzea, sormenezko jolasaren plazerean oinarrituz, horren bidez, galerak sortutako larritasunetik indarberritzeko.</b>	<b>Emozioak alde batera uzteko prozesua sustatzea, hau da, emozioetatik urruntzen laguntzea.</b>

Aipatutako helburuak lortzeko, espazioaren eta denboraren araberako antolaketari jarraitzen dio saioak. Horretarako, adierazpen motorrerako espazio bat eta adierazpen plastiko eta grafikorako nahiz lengoaiarako beste bat ditu gelak. Bestalde, saioa hiru fasetan garatze da: lehena, adierazpen motorrerako; bigarrena, kontaketa/ipuinerako; eta hirugarrena, adierazpenerako.

### Krisalida gela

Ikaskuntza-jardueraren espazioa bereganatzeko, hezkuntza-laguntza berezia behar izaten da erreferentzia-figuraren aldetik, egokitzapen uneetan edo etapa batetik bestera igarotzean.

Tximeletan, eskolako espazio eta denbora guzti-guztian ematen saiatzen gara laguntza hori; hala ere, arreta berezia ematen zaio Haur Hezkuntzaren eta Lehen Hezkuntzaren arteko trantsizio-une ebolutiboari, krisalida gela delakoaren bitartez. Izenak adierazten duen bezala, heltzeko lekua eta denbora eskaintzen ditu gelak kasuaren arabera, zabalagoak edo murriztagoak, Lehen Hezkuntzako etaparen ikasketei segurtasun emozional eta kognitibo handiagoarekin aurre egiteko beharrezkoa den aldaketa bizi ahal izateko.

Espazio honen ezaugarri nagusietako bat antolamendu funtzionalaren malgutasuna da, haur bakoitzaren bilakaeran beharrezkoak diren aurrerapen eta atzerapenak errazten baititu. Hala, haurren bilakaera-unearen arabera, lehenagotik bereganatu dituzten eremu

seguruetara unean-unean irteteko aukera ematen zaie, baita esplora ditzaketen eremu ezezagunetara ere. Haur guztien ibilbide indibidualean praktika komuna denez, eta, hortaz, guztiok ezagutzen eta onartzen dugunez, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako beste espazioetan ere naturaltasunez bizi da hori, eta, beraz, ez die inolako arazorik eragiten espaziook normalean okupatzen dituzten taldeei.

Termino zehatzagoetan, haur bakoitza –ekintza-subjektu gisa ulerturik– erronka berrien konkistaren protagonista da, hala nola, Haur Hezkuntzatik krisalidara igarotzean eta, ondoren, krisalidatik Lehen Hezkuntzara. Haur bakoitzari erronka berrien konkistan protagonista izateko aukera ematen zaionean, garapen oso positiboa eragiten eta sustatzen dela ulertzen dugu, maila emozional zein kognitiboan eta oinarrizko hainbat alderditan, besteak beste, autokontzeptua, autoestimua eta autonomia.

### **Karplasteria gela**

Balio anitzeko espazioaren antolamenduan du jatorria *karplasteria* gelak. Bertan, manipulazioan oinarritzen diren ekintzak egiten dira, eta sorkuntza indibidual nahiz kolektiboan diseinurako, eraikuntzarako eta adierazpen plastikorako material eta tresna bereziak erabiltzen dira.

Espazio honen ezaugarri nagusien artean, lanerako espazio indibidualen antolamendua nabarmetzen da. Espazio horiei esker, aldibereko proiektu pertsonal anitzetan laguntzea errazten da, besteak beste, jostintzan, buztinaren lanketan, esku-lanetan, zurgintzan, eskulturaren edo eraikuntzetan.

Gainera, beste ezaugarri bat nabarmendu behar da: material (plastika, zurgintza eta birziklapena) eta erreminta (mailuak, zerrak, sarjentak, daratuluak, etab.) anitzen eskuragarritasuna.

Azkenik, espazio honek talde heterogeneoekin (3-12 adin-tartean) jarduerak egiteko eskaintzen duen aukerari esker, helduaren gertuko laguntzarekin batera, imitazioaren eta “saikera-errore” esperimentazioaren bidezko ikaskuntza naturala ahalbidetzen da materialen eta erreminten erabileran.

### **Kanpo espazioa**

Eskolako kanpo eta barne espazioen bereizketa fisikoak zenbait zailtasun sortzen ditu hezkuntza mailan, baina komunikazioan eta iragate malguan oinarritutako praktiken bidez konpon daitezke, bi espazioak errazago bereganatzeko, bai ikaskuntzak, besterik gabe, barrutik kanpora hedatuz bai jolas espontaneoan ematen den laguntzari eta hori iradokitzen duen pedagogiari jarraipena emanez.

Horretarako, barne espazioko pasaguneak (sarrerak, korridoreak, hall-a, zerbitzuak) nahiz kanpo espazioko eremuak (estalkiak, zelaiguneak, txoko tematikoak, lorategiak, etab.) egokitu behar dira.

Tximeletan, gure kanpo espazioa hornitu eta diseinatu dugu, barne espazioetan jarraitzen dugun irizpide berdinarekin; hau da, jarduera anitzak gauzatzeko aukera ematea, batez ere gorputzari katalizatzaile gisa protagonismoa emanez, ikaskuntza adierazgarri jarraipena emateko. Haur bakoitza espazioa bereganatuz joaten da, erronka berriak konkistatzen dituen heinean. Hurrengo taulak gure kanpo espazioan gauzatu daitezkeen ekintzak jasotzen ditu.



Horrekin guztiarekin, hainbat alderdi sustatu nahi ditugu, besteak beste, oreka, koordinazioa, erritmoa, erronkei aurre egiteko segurtasuna, motrizitate lodia, adierazpen motorra, sentsorialtasuna, mugikortasunaren kalitatea, talde-lana eta zaintza.

#### Tximeleta eskolaren kanpo espazioko ekintzak

**Eskalada: rokodromoan, zuhaitzetan, harkaitzetan, soketan eta zirkuituetan.**

**Soinuarekin zein musikarekin esperimentatzea.**

**Urarekin, hondar-kutxarekin, txabilekin, tipiarekin eta oilategiarekin eraikitzea eta esperimentatzea.**

**Lorategia eta baratzea.**

**Eskuragarri dagoen materialarekin gauzatzeko ekintzak: bizikletak, patineteak, palak, arrasteluak, aitzurrak, ontziak, ura, sokak, kutxak, lekualdaketak egiteko materiala, eurirako botak.**

### Ondorioak

1. Eskolako espazio guztiaren lanketa pedagogikoa ezinbesteko baldintza da ikastetxeen hezkuntza kalitatearen funtsezko hobekuntza eragiteko. Diseinu arkitektonikoak, eki-pamenduek, altzariak, material didaktikoak, dekorazioak, etab. lanketa hori erraztu dezakete hainbat eremutako profesionalen arteko elkarlanaren bidez.
2. Erreferentzia figuren hezkuntza-laguntzaren bidez, bai ikasketek eskatzen dituzten lekualdaketetan bai barne zein kanpo espazioetako zirkulazio askean eta esplorazioan zehar, ikasleek espazioak modu seguruan beregana ditzatela errazten da. Garapen psikomotor, emozional, kognitibo eta sozialaren oinarrian dago bereganatze hori; beraz, ikasketen arrakastari eragin diezaioke.
3. Pedagogiak haur bakoitzaren hazkunde erritmoa errespetatzen badu eta estrategia indibidualak erabiltzen baditu ikaskuntzaren aurrerapenak sendotzeko eta alderdi ezezagunen aurkikuntza errazteko, hezkuntza aukera berriak aurkituko ditu ibili be-

harreko espazio guztietan, hau da, arkitekturak zein naturak eskaintzen dituztenean.

4. Aurkikuntza horrek, era berean, erronka arkitektoniko berriak ahalbidetzen ditu, eta, hala, espazioaren eta hezkuntzaren arteko etengabeko atzeraelikadura gertatzen da.

### **Erreferentzia bibliografikoak**

BROOKS, R., FULLER, A., eta WATERS, J. arg., *Changing spaces of education. New perspectives on the nature of learning*, Londres, Routledge, 2012.

COSTA, A. eta URPI, C., "Pedagogía del espacio. Flexibilidad y aprendizaje", *Arquitectonics*, 2013.

MONAHAN, T., "Flexible Space & Built Pedagogy: Emerging IT Embodiments", *Inventio* 4 (1): 1-19, 2002.

PICKLER, E., *Moverse en libertad. Desarrollo de la motricidad global*, Bartzelona, Narcea, 1984.

ROMAÑÁ, T., "Arquitectura y educación: perspectivas y dimensiones", *Revista Española de Pedagogía*, 2004, p. 228, pp. 199-220.



# Eraberritze metodologikoa eta BES ikasgela (Berrasmatu, Eraldatu eta Sortu)

San Ignacio Ikastetxea, Iruña

Alejandro Rodríguez Vázquez, irakaslea,  
berrikuntza-taldeko kidea eta IKTen koordinatzailea  
alejandrorodriguez@jesuitaspamplona.org

José María Olaizola jesuitaren erreferentzia-testuak, *Samaritanos, maestros y testigos* izenburukoak, “gizaki bakoitza, bere gaitasun eta mugekin, berezia eta desberdina” dela ulertzera gonbidatzen gaitu. Pertsonalizazio eta inklusio horretaz baliatzen da gure hezkuntza, ikasle bakoitzaren bizi-proiektua aurkitzen laguntzeko eta proiektu horri hazten laguntzeko.

Gako-hitzak: berrasmatu, eraldatu, sortu.

## Justifikazioa

Gainontzeko pertsonentzat eta gainontzeko pertsonekin hezi nahi ditugu gizon-emakumeak, eta eraldaketan dagoen mundua estaliko ez digun eta mundu hori esperimentatzeko ausardia emango digun berrikuntza behar dugu. Berritzaileak izan behar dugu, desberdina dela eta bere identitatea bilatzen duela esaten digun mundu honentzako baliagarriak izan nahi badugu.

Ikaskuntzaren erdigunean jarri nahi dugu ikaslea, eta, horregatik, hainbat metodologia hautatu ditugu, ikasleek beren ezagutzak modu autonomoan praktikan jar ditzaten eta beren ikaskuntzan parte har dezaten, ikaskuntza hori modu aktiboan eraikitzeko eta pentsamendu kritikoa, elkarlana eta komunikazioa garatzen laguntzeko.

Hiritartasun globalarentzat hezi nahi dugu. Arturo Sosa S.J. Jesusen Lagundiko Aita Nagusiak hitz hauek aipatu zituen JESEDU Río 2017 kongresuan: “*hezitzaile eta Jesusen Lagundiko Institutuzio gisa, hainbat erronkari egin behar diogu aurre, besteak beste, baldintza hauek beteko dituen heziketari: gure eskaintzaren baitan, ez du inolako gizarte-klaserik baztertuko eta justiziaren aldeko hezkuntzan lan egiten jarraituko du; gure ikasleak ingurumenaren adiskidetzeari gaitzera behartuko ditu instituzioak, partekatzen dugun etxea errespetatu eta zaintzeko; eta eragile aktibo izango da oraindik ere eraikuntza*”

*fasean dagoen "hiritartasun global" kontzeptuaren sorreran". Nolanahi ere, Aita Sosaren hitzen arabera, eskubideak eta betebeharrak lotzen dituen hiritartasun globala dugu helburu. Horretarako, komunikazioaren teknologiek sortu duten kontzientzia globaletik harago, pertsonengan eta gizartean eragitea bilatzen dugu, pertsona ororentzako giza eskubideen aitorpenerako mugak suntsitzeko.*

Era berean, aniztasuna gureganatu nahi dugu: gure ikasleek hezkuntza integrala jasotzea nahi baldin badugu, zortzi adimenak landu behar ditugu, edozein gairen irakaskuntzan adimen desberdinekin loturiko jarduerak txertatuz. Errazagoa izango da, zenbait metodologia erabiltzen baditugu, besteak beste, proiektu pedagogia edo proiektuen araberrako pedagogia. Jarduera horiek txertatuz gero, errazagoa izango da ikaslearen estilo kognitiboez arduratzea eta, beraz, aniztasuna hobeto lantzea.

Eta XXI. mendeko ikasleei XXI. mendeko erantzuna ematea, Jesusen Lagundiaren proiektuan arabera: Arturo Sosa S.J. Aita Nagusiak JESEDU Río 2017 kongresuan esan zuen bezala, *"gure instituzioek ikerketa pedagogikorako espazio izan behar dute ezinbestean, baita berrikuntza didaktikorako benetako laborategiak ere, bertatik prestakuntza metodo edo eredu berriak sor daitezen"*.

Aldaketa sakoneko uneak heldu dira eskolaren antolamenduaren eta egituraren barnean. Azken urteotan pixkanaka-pixkanaka hasi dira aldaketa horiek gauzatzen, baina, azkenean, hezkuntza etapa guztiak barne hartuko dituztela aurreikusi da, Haur Hezkuntzatik Batxilergora arte. Aldaketa dinamika baten barruan kokatzen da prozesu hori. Espainiako Jesuiten eskola guztiak barne hartzen ditu, eta "hezkuntza sistema aldatzeko beharrean" du jatorria.

Duela zenbait denboratik, proiektuen araberrako lanean oinarritzen da Haur Hezkuntzako etapa, baina, orain arte, ez da harago begiratu, ikastetxeko hezkuntza osoa bertan oinarritzeko aukera bezala. Dagoeneko lanean ari gara hori posible egiteko, eta, horregatik, irakasleen klaustroari, ikastetxeko gurasoen laguntzari, Alboan GKEari, talde pastoralari eta beste pertsona batzuei esker, proiektuen araberrako lana ikastetxe osoan hedatuko da pixkanaka-pixkanaka.

Hona hemen praktikan jarri nahi dugun berrikuntza metodologikorako ezinbestekoak iruditzen zaizkigun zenbait baieztapen, dekalogo itxuran:

1. Ikasleei protagonismoa ematen dioten metodologiak lehenetsiko ditugu. Hori da, zalantzarik gabe, ikasleak motibatuzko modurik onena.
2. Gure ikasleen ikaskuntzak ahalik eta adierazgarrienak izan daitezen nahi dugu. Hala, aurkikuntza bidezko ikaskuntzaren dosia areagotuko da. Harrera bidezko ikaskuntza ez dugu alde batera uzten; izan ere, behar bezala planifikatuz gero, ikaskuntza hori ere adierazgarria izan daiteke.
3. Zenbait ikaskuntzek edukiak memorizatzea eskatuko dute. Memorizatzea ez da bekatu mortala. Hutsegite arina izan daiteke, eta, zenbait kasutan, beharrezkoa. Baina garrantzitsua da zer memorizatu behar den erabakitzea.
4. Garrantzitsua da erabiltzen ditugun metodologiek aniztasunari hobeto erantzuten laguntzea. Metodologia-aniztasunak, noski, lagundu egiten digu.
5. Ikasleen pentsamendua eta ikaskuntza trebatzen laguntzen duten metodologiak interesatzen zaizkigu bereziki.

6. Ahozko zein idatzizko adierazpena hobeto lantzen uzten diguten metodologiak erabiltzeko ditugu.
7. Eskumenak lantzea errazten diguten metodologiak lehenetsiko ditugu.
8. Adimen anitzak aintzat hartzen uzten duten metodologiekin lan egingo dugu.
9. Txertatu nahi ditugun metodologietan IKTak erabili beharko dira informazioa lortzeko, informazioa ezagutza bilakatzeko eta ezagutza hori lantzeko, erabiltzeko eta behar bezala adierazteko.
10. Agerikoa da komunikatzen duten eta zenbait ohitura, jarrera eta balio lantzen uzten duten metodologiak lehenetsiko ditugula.

Zalantzarik gabe, proiektuen araberako lana, zentzu zabalean ulertuta, aurreko dekalogoko puntu gehienak egiaztatzen dituen metodologietako bat da. Aurkikuntza bidezko ikaskuntza metodologia hori osaera heterogeneoa duten talde kooperatiboetan lan eginez garatzen da normalean. Metodologia mota horiek aukera eman behar dute prototipo eta produktu fisiko, musikal edo espazialei askoz garrantzi gehiago emateko. Problemetan oinarritutako proiektu integralekin lotura izango dute produktuok, orain arte gutxi sustatu diren adimenak eta trebetasunak garatzeko. Hala, adimen desberdinak lantzeko bide garrantzitsua eratzen da.

Hori guztia dela eta, Reinvent The Classroom (RTC) proiektuan parte hartzeak beste aurrerapauso bat dakar gure hezkuntza-eredua berritzeko prozesuan. Hala, ikasleak ingurune erakargarri batean murgiltzen dira, eta natibo digital gisa dituzten interesekin bat etortzeaz gain, malgutasuna eta egokitze gaitasuna ematen die irakasleei, ikasleak gida ditzaten eta, halaber, egiteko eta ikasteko desirari mesede egiten dioten praktika

berriak eta metodologia aktiboak partekatu eta esperimentatu ditzaten.

Era horretan, proiektuen araberako lanaren faseak erreproduzitzen dituen diseinua eta espazio banaketa dituen BES ikasgelak aukera emango du hainbat metodologia aktibo garatzeko: ikaskuntza-estrategia pertsonalizatuak, jolasen oinarritutako ikaskuntza, ikaskuntza kooperatiboa, aurkikuntza bidezko ikaskuntza, proiektuen araberako ikaskuntza, etab. Halaber, oinarritzko eskumenak sustatuko ditu ikasle eta irakasleen artean, adibidez, enpatia, kooperazioa, sormena eta erronken konponbide bateratua.





## **Ikasgelaren ezaugarriak**

Ikasleei eskainitako ikasgela pertsonalizatu honek ikasleen ikerketa, esperimentazioa eta aurkikuntza errazten ditu, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua aberasteko. Balio anitzekoa: funtzio anitzeko ikasgelaren eredu da, ikasle bakoitzaren beharrei eta ikaskuntza egoera desberdinei egokitua, elementu mugikorrek. Malgua: ikasleen behar eta interes pertsonalen arabera, askatasuna eta autonomia ematen du ikaskuntzan, espazio mota anitzei eta elementuen antolamenduari esker. Teknologikoa: ikasle guztientzako gailuak ditu; hartara, ikaskuntza dinamizatzen da, eta irakaslearen figura zehazten, ikasleen gidari gisa. Eta, sortzailea: ikasle bakoitzak sortzeko bere ahalmena islatu ahal du bertan, formatu oso anitzetan, eta manipulazioa eta adierazpen artistikoa lehenetsiko dira, pentsaera sortzailea sustatzeko.

## **Lanerako guneak**

### **Thinking gunea**

Ikasleek atsedean hartzeko eta hausnartzeko gunea, irekia eta malgua, burua erlaxatu ahal izateko. Atsedenaldi hori beharrezkoa da eguneroko errutinekin jarraitu ahal izateko eta sormena zeregin askeetan eta ikasle bakoitzaren interesekoak direnetan ardazteko.

### **Design gunea**

“Coworking” inguruneetan oinarritutako gunea, taldean lan eginez etekin handiagoa lortzeko. Gune honetan, hainbat arbela daude, oharrak hartu, marraztu eta ideiak partekatu ahal izateko.



### **Maker gunea**

Sormena, diseinua eta ikaskuntzarako objektuen sorrera sustatzeko gunea. Hainbat tresna erabiliko dira horretarako: HP Sprout, bideoak eta eszenaratzeak sortzeko Croma hormak, 3D inpresorak, etab. Espazio honetan, beren ikaskuntza materialak sortzeaz arduratuko dira ikasleak.

### **Stage gunea**

Ikasleek zein irakasleek Arbela Digital Interaktiboa erabil dezakete, azaltzeaz eta erakustez gain, ikertu eta esperimentatzeko. Proiektuak aurkezteko balia daitezke gune hau; ikasleek horiekin elkar eragin dezakete, eta une oro izan ditzakete eskuragarri.

Apustu honekin, gure ikastetxeak XXI. mendeko hezkuntzara egokitzeko duen beharri erantzuten saiatzen gara, eta BES ikasgela (hezkuntzaren berrikuntza gidatzeko eta ikaskuntza esperientzien hurrengo belaunaldia sustatzeko sortu den proiektua) beste tresna bat gehiago da gure eraberritze metodologikoan laguntzeko.

# Ikasgela Inklusiboa proiektua 2016-2017

San Miguel HLHIP, Noain

Félix Jiménez Sánchez, Hezkuntza Teknologien arduraduna  
cpnoain@educacion.navarra.es

Garapen eta Integrazio Ikasgela honek hezkuntza-laguntza behar bereziak dituzten ikasleek inklusioa hobetzen laguntzen du. Diziplina anitzeko espazio teknologikoa da, eta mahai interaktiboa, Kinect bidezko gailu interaktiboak, tabletak eta ordenagailuak ditu. Hala, ikasleek sozializazioa, integrazioa, lankidetzeta eta partaidetzeta errazten dira edozein ekintzatan, eta, azkenik, IKTak curriculumean txertatzen dira.

Gako-hitzak: Inclusive Smart School.

## Testuingurua

Proiektu hau funtsezko lau arrazoiren eraginez sortu zen:

1. Ikasle-aniztasun handia. Hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleek, kulturartekotasunaren, berandu eskolaratutako ikasleek eta familia egoera bereziak dituzten ikasleek inklusio-beharra.
2. Ikasle guztiak jaiotzen dira belaunaldi digitalean, baliabide ekonomikoak edozein izanda ere.
3. Iraultza digitalak eragindako aldaketak ekarri dituen beharrak. Informazioa hautatzen ikastea eta ezagutza ikuspegi kritikotik eraikitzea, gehiegizko informazioaren gizartean.
4. LOMCEn curriculumean jasotzen diren eskumen berriak lantzea.

Lau errealitate horiek behar berriak lantzerako behartzen gaituzte:

1. Ikasleek garapena eskumen berrietan, eskumen digitalari arreta berezia emanez, gainontzeko eskumenak zeharkatzen dituen ardatz gisa.
  2. Ikasgelan eta eskolan aniztasunarekiko arreta handiagoa sendotzea.
  3. Hezkuntza-sistema gizarte errealitate berrietara egokitzea.
- Proiektu hau berritzaile bilakatzen duten hiru alderdi:



- Behar bereziak dituzten ikasleen inklusioa gauzatzeko aukera, lankidetzaren sustatzea, helburu horretarako bideratutako baliabide teknologikoen bidez.
- Gamifikazioaren bidez, ikaskuntzarako espazioa sortzea, eskumen digitalaren garapena ardatz nagusitzat hartuta, gainontzeko eskumenak sendotzeko zeharkako ardatz gisa.
- Proiektuetan oinarritutako ikaskuntzaren hastapenak, etorkizuneko ikasgelan, helburu horretarako baliabide teknologikoak dituzten hainbat txokorekin.

Informatika gela tradizionalarekin eta kasu gehienetan planteatzen den gela arruntarekin zerikusirik ez duen kontzeptura garrantzitsua proiektu honek.

## Planteatutako helburuak

Justifikazioaren atalean zerrendatzen diren beharretatik sortzen diren helburu hauei erantzuteko bideratu da proiektua:

1. Teknologia berriak baliabide didaktiko gisa erabiltzea oztopoak suntsitzeko eta gizar-tean integratzeko.
2. Ikasleen inklusioari mesede egitea, irakaskuntza integratzaile eta inklusiboa baliatuz, oztopoak ezabatuz eta ikasleen ezaugarri indibidualak egokituz.
3. Ikaskuntza hobetzea, trebetasun kognitiboaren garapena ahalbidetuz, baita oinarritzko eskumen digitalen jabetzea ere.
4. Aldaketari eta gelako metodologiaren (lankidetzaren, ikasten ikastea) eraldaketari zein txertaketari mesede egitea; ikasleen erabateko parte-hartzea beren ikaskuntza prozesu konstruktiboaren protagonista gisa, curriculumeko edukien eta errealitatearen arteko erlazioa erraztuz (ikaskuntza funtzionala).
5. Eskumen digitalak garatzea, zeharkako ardatz gisa, gainontzeko eskumenen (linguistikoa, matematikoa...) garapenera laguntzeko.
6. Irakasleen motibazio handiagotzea lortzea etengabe eguneratzeko egiten duten ahaleginean, baita ikasleena ere, teknologia berriak balioetsiz (tabletak, arbelak digitalak, material interaktiboak), baliabide didaktikoen iturri gisa, eskola jarduerak tradizionalak motibazio osagarri gehigarriekin hornitzen baitituzte, aniztasunaren arretaren mesedetan.

7. Irakasle eta ikasleen arteko nahiz ikasleen arteko elkarrekintzaren kalitatea hobetzea, gelako klima hobetzeko, kohesioa sendotzeko eta motibazioa eta ikasleen autonomiaren garapena ikaskuntzaren alde areagotzeko.
8. Ikasgelaren malgutasun handiagoa lortzea, ikaskuntza pertsonalizatuari mesede egiteko eta ikasle guztientzako onurak erdiesteko, batez ere, ikaskuntza-arazo handiagoak dituzten ikasleen kasuan.
9. Ikasgela inklusiboaren praktikak ikasgela arruntetan orokortzea, ikasgela horietan txertatutako teknologiaren erabileraren ikuspuntu-aldaketaren bidez (ordenagailuak, arbela digitalak, robotika-materiala...).

Laburbilduz, ardatz berritzaile eta eraldatzaile gisa erabili nahi da eskolan, ikasgelan dinamika berriak txertatzeko, eta, horien bidez, dibertsitate guztiaren inklusioari mesede egiteko, etorkizunaren ikuspuntutik.

## Erabilitako baliabideak

- IKT baliabideak:
  - “Smart table” mahai interaktiboa.  
Hezkuntza-aplikazioak erabiltzeko aukera ematen du, eta ikasle bakarrak edo zortzi ikaslera arteko taldeek ebatzi beharko dituzte, horrekin elkar eraginez. Lan-kidetzan aritzeko ezin hobea.
  - Kinect bidezko gailu interaktiboa.  
Jolas librerako eta entretenimendurako kontrolagailua. Ikasleari kontsolarekin pantailaren bidez elkarri eragiten uzten dio, kontaktu fisikoaren beharrik gabe, keinuak, ahots-komandoak, objektuak eta irudiak identifikatuz.  
Ordenagailura edo bideo-jokoentzako Xbox-era konektaturik erabiltzen da.
  - Android sistema eragilea duten 6 tableta.
  - Picaros ordenagailuak.  
Pantaila interaktiboa eta teklatu bereziak dituzte, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat. Jolas hezigarriak dituen interfazea maila horietako ikasleentzat diseinatu da.
  - 2 Beebot robot.  
Ezin hobea Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleentzat, norabide-lengoia, biraketak, lateralitatea eta espazioaren oinarritzko beste kontzeptu batzuk lantzeko.  
Baliabide paregabea da diziplinarteko jarduerentzako, eta jolasean oinarritutako ikaskuntza adierazgarria ahalbidetzen du.
  - 2 Mbot robot.  
Robotika kit hezigarria, ikastetxeentzako paregabea, robotikaren, programazioaren eta elektronikaren hastapenentzako. Arduino eta Scratch sistemetan oinarritzen da.
- Bestelako baliabideak:  
Metakrilatrotzko txantiloia, 15 x 15 cm-ko neurrira ebakiak. Alde batean, plastikozko xafra gardenak itsatsi dira, dimentsio bereko txartelak sartu ahal izateko, landu beha-



rreko gaiaren arabera. Hori guztia, Haur Hezkuntzan Bee-bot robotarekin hainbat jarduera gauzatzeko.

## Jardueraren deskribapena

### Antolatzeko, prestatzeko eta baliabideak aurkitzeko jarduerak:

- Ikasgelaren aurkezpena klaustroaren aurrean.
- Ikasgela erabiltzeari buruzko prestakuntza irakasleentzat.
- Proiektuaren lan taldearen osaera: Koordinatzailea, Orientabidea, Heziketa Fisikoa, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza.
- Erabilera-arauak eta jokabide kodea (irakasleak eta ikasleak).
- Aplikazioen sailkapena hezkuntza etapan, gai blokeen eta hizkuntzen arabera, Google kalkulu-orri batean, "Awesome" bidez bilaketak errazago egiteko interfaze egokiarekin. Etengabe eguneratzea eskatzen duen tresna dinamikoa da.
- Robotikaren inklusioa.
  - Koordinazioa eta prestakuntza beste entitate batzuekin batera, jarduera hau gauzatzeko (Planetario).
  - Arreta-defizita eta adimen-gaitasun handia duten ikasleei hezkuntzak ematen dien erantzuna.
  - Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako 6. mailan eskumenak garatzeko robotika.
- IKTei buruzko jardunaldietara eta mintegietara joatea, hezkuntzarako beste esperientzia batzuk biltzeko.
- Ikasgela erabiltzen duten irakasleekin bateratze lana egiteko bilerak.
- Proiektuaren ebaluazioa antolatzaile taldearekin.

### Behar bereziei eta inklusioari bideratutako jarduera praktikoak:

- Autismoaren espektroko nahasmendua duten ikasleak.  
*Gcompis* ordenagailuan, *Smartable* (planifikaziorako eta arretarako), Kinect.
- Dravet-en sindromea. Smartfall, Smartfall Numbers, puzzleak, sekuentziak.
- Entzunezko bereizketa (Entzumena eta Lengoaian erabilitako aplikazioak tabletetan).
- Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua eta arreta defizitaren nahasmendua duten ikasleak.
  - Programazioa/robotika. Lightbot, Code.org, Scratch + Mbot.
  - Planifikazioa eta arreta eskatzen duten jarduerak (*Gcompis* eta *Smartable*).
- Beste behar espezifiko batzuen inklusiora bideratutako jarduerak.
  - Batez ere, "Smartable eta Kinect" lankidetzak eskatzen dutenak.
  - Entzuteko desgaitasun-arazoak "Palabras especiales" aplikazioaren bidez, esaterako, Down sindrome eta autismoarekin.

Ikasgelan egunerokoan erabiltzeko jarduerak:

- Phonics metodologia "Starfall" aplikazioen eta ingelesezko idazketa eta irakurketaren bidez.
- Aspektu logiko eta matematikoak ingelesez: Starfall Numbers.

- Smartable mahaian lankidetzan aritzeko lana, eskumen guztiak aldi berean sendotzen diren bitartean.
- Haur Hezkuntzan saga erabiltzen ikastea. Potato eta Pizza.
- Pirritx eta Porrotxen aplikazioak tableterako.
- Koordinazioa, trebetasun bisomotorrak, ikusmen espaziala eta talde lana: Xbox-a, Kinect-ekin, Burbuilak lehertzea eta txalupa.
- Haur Hezkuntzarako robotika (Bebot). Planifikazioa, ikusmen espaziala, pentsatzea eta lateralitatea.
- Arreta eta planifikazioa: Smartable
- Gaztelaniaz idaztea eta irakurtzea, matematika, zientziak...
- Gcompis. Eskumen guztiak maila guztietan lantzeko aplikazioa oso-oso. Haur Hezkuntzara eta Lehen Hezkuntzako lehen mailetara bereziki bideratua.
- Tableten erabilera txertatzea, tresna arrunt gisa, Hezkuntzarako Laguntza Unitateko adituen eguneroko lanerako aplikazio espezifikoekin. Erabiltzen diren zenbait aplikazio: "Palabras Especiales", "Soy Visual", "Terapia de Lenguaje Autismo", "Alfabeto Melado", "iSecuencias Lite".
- Gelako SWaren erabilera bai gela arruntean bai Hezkuntzarako Laguntza Unitatean.

## Ebaluazioa

Ikuspegi kuantitatiboaren arabera, irakasleen % 47k erabili du ikasgela eta ikasleen % 46 bertaratu da.

Ikasgela erabili duten irakasleei egindako inkestaren emaitzen arabera, irakasleek balorazio erdibidekoa edo altua egiten dute. Emaitza hori datorren ikasturterako hobetu daiteke, "Ondorioak eta etorkizuneko ildoak" atalean adierazten diren ekintzen bidez.

	Haur H.			Lehen H.						HLU	Saioak guztira
	1º	2º	3º	1º	2º	3º	4º	5º	6º		
Iraila		6	0	7	0	0	0		0	3	16
Urria		13	1	16	3	7	6		5	5	56
Azaroa		13	1	16	3	7	6		5	5	56
Abendua		9	0	12	0	1	4		0	0	26
Urtarrila		9	0	10	0	0	0		0	4	23
Otsaila		13	0	13	0	2	0		6	5	39
Martxo		15	0	21	9	0	0		14	5	64
Apirila		6	0	12	2	1	0		8	5	34
Maiatza		6	0	16	9	2	0		0	0	33
<b>Guztira, ikasturteka</b>	<b>0</b>	<b>90</b>	<b>2</b>	<b>123</b>	<b>26</b>	<b>20</b>	<b>16</b>	<b>0</b>	<b>38</b>	<b>32</b>	<b>347</b>

Ikuspuntu kualitatiboaren arabera, zaila izan da adierazleak ezartzea, IKT baliabideen erabileraren bidez ikasleek eskumenen garapenean izan duten bilakaera neurtzeko. Aipatu beharra dago neurketak egiteko eta IKT baliabideen bidezko eskumenak ebaluatzeko proiektua, bere horretan, ikasgela inklusiboaren testuinguruan eta beste hezkuntza testuinguru batzuetan (informatika-gela, gela arrunta...) landu beharko litzatekeela.

Hasiera batean, eskumen digitala programazioaren arloan eta antzeko beste arlo batzuetan ebaluatzea errazagoa litzatekeela dirudi; izan ere, erronkak errazago jar daitezke ikasleak diziplina horretan trebetasunik bereganatu al duen balioetsi daitekeen kasuetan.

Berez, robotikaren eta programazioaren arloan, martxoan sartu ziren proiektuan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak ebaluatuko dira, jarraian aipatzen diren parame-troekin, maila honetako curriculumaren arabera. Horretarako, ikasleen bilakaera eta lana aztertuko dira, eta zenbait froga gauzatuko.

- Angeluak eta poligonoak kalkulatzeko ariketak egitea.
- Landutako ezagutza geometrikoak erabiltzea, programazioaren eta matematikaren arteko konexioak ezartzeko.
- Autoikaskuntzarako eta lankidetzarako gaitasuna erakustea.
- Komunikatzeko baliabide linguistikoak eta ez-linguistikoak erabiltzea.
- Ahoskera eta ebakera zuzenarekin hitz egitea; artikulazioa, erritmoa, intonazioa eta bolumena.
- Ikaskuntza-prozesuan baliabide teknologikoak erabiltzea, informazioa bilatzeko, az-tertzeko eta hautatzeko.
- Kalkulurako teknologia eta programazioa erabiltzea, problemak ebaztea eta emaitzak aurkeztea.

Hala ere, eskumen digitala eta gainontzeko eskumenen bilakaera ebaluatzeko, gehiago sakondu beharko litzateke, denbora eta baliabide faltagatik ezinezkoa izan den arren. Gomendagarria litzateke IKTak erabiliko dituzten ikasleekin hasierako ebaluazioa egitea, haien bilakaera neurtzeko eta IKTak erabiltzen ez dituzten ikasleekin alderatzeko.

Erronka hori hurrengo urtean lantzen saiatuko da, "Ondorioak eta etorkizuneko ildoak" atalean adierazi den bezala.


## Ondorioak eta etorkizuneko ildoak

Agerikoa da IKTek hezkuntzari eragiten diotela, gizarte errealitatean betetzen duten funtzioaren ondorio gisa. Zalantzarik gabe, eskumen digitalak nahiz horrek gainontzeko eskumenekin duen zeharkakotasunak curriculumean islatuta eta programazioan jasota egon behar dute.

Bestalde, IKT baliabideek aukera ematen digute ikasleen artean gaur egun aurkitzen dugun aniztasunari eraginkortasun handiagoz erantzuteko.

Hala ere, hainbat oztoporen eraginez, IKTekin loturiko edozein ekimen ezartzeko prozesua motela da, eta, kasu batzuetan, ia ezinezkoa:

1. Zenbait irakaslek IKTak baliabide didaktiko gisa erabiltzearen aurka duten jarrera, se-gurtasun ezaren eta ezezagunarekiko beldurraren ondorioz.
2. Prestakuntzarik eza, prestakuntzak, kasu askotan, konfiantza sortuko lukeen arren.




3. Ikasgelako ikasle kopuru altua, eskuragarri dauden baliabide teknologikoen kantitatearen aldean.
4. Laguntza irakasleen gabezia, klaseetan bikoizketak egin ahal izateko, aurreko punturako konponbide gisa.
5. Kualifikazio handiagoko laguntzaren gabezia, hezkuntza arloko IKTekin eta eskumen digitalarekin loturiko profila duten irakasleen aldetik.

Bestalde, kontuan hartu behar da aniztasunari behar bezala erantzuteko, baliabideak, irakasleen laguntza eta, kasu bereziagoetan, zenbait ikasleri arreta emango dieten zainzaileak behar direla, aurreko paragrafoko 4. puntuan adierazten den oztopoaren ildotik.

Finean, aipatutako oztopoak eta mota honetako proiektuak abiaraztea zailtzen duten alderdiak aintzat hartuta, ekimen hau emaitza onekin gauzatu ahal izan da, hasierako esperientzia gisa.

### **Etorkizunean hobetzeko ekintzak:**

- Irakasleen kontzientziazioan gehiago eragitea, baliabide hau eta, oro har, IKTak erabil ditzaten. Prestakuntza planak eta tailerrak antolatzea, IKT baliabideetan trebatzeko.
- Laguntzen esleipena ahal den neurrian optimizatzea, ikasgelaren erabilera eta, oro har, aniztasunaren arreta errazteko.
- Aniztasunaren arretaren erantzunari laguntzea, Ingelesez Ikasteko Programen ezarpenaren aurrean.
- Diagnostikatutako ikasleen behar espezifikoetara IKT baliabideak egokitzea, ikasleen ikaskuntza prozesuari lagunduko dieten helburu argiekin.
- Ikasgelako IKT baliabideak eduki berriarekin hornitzen jarraitzea.
- Aplikazioen sailkapen orria mantentzea eta etengabe eguneratzea.
- Proposamen didaktikoak definitzen jarraitzea, proiektu hau ikastetxearen hezkuntza eta curriculum proiektuan txertatzeko.
- Lan-talde bat sortzea adierazleen bidez neurketak egiteko, eta, hala, gelako IKT baliabideen erabileraren bidez ikasleen eskumeneke zer aurrerapen eta garapen izan duten ebaluatzeko.



### **Proiektuaren ondorengo faseak:**

Gaixotasunen bat duten ikasleei, suspertu arteko aldietan, eskolak etxetik jarraitzeko aukera ematea. Irudiak eta ahotsa integratzeko plataforma baten bitartez ikasgelan egon ez ezik, parte hartzeko aukera ere izango dute, interrelazio birtuala bilatuz.

Horrez gain, tabletek arazoez (dislexia adibidez) ohartarazteko aukera aurreikustea, edota Kinect gailuak, besteak beste, atzerapen kognitiboak eta motorrak antzemateko gauza izatea.

Beste erakunde eta enpresa batzuekin kontaktuak ezartzea, hezkuntza lanerako software, programa eta baliabide espezifikoak garatzen laguntzeko, behar berezi bakoitzarako.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak ikastetxeko aniztasunaren arretan inplikatzeko, haien IKT eskumenak sendotuz. Manipulatzeko materiala diseinatuko dute ikasleek, aniztasunari oztoporik jarri gabe (adibidez, itsuei), Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen mailatan erabil dadin.

IKT eskumenak ebaluatzeko sistema zehaztea, horiek gainontzeko eskumenetan duten inpaktua balioetsiz. Adierazleen bidez neurketak egingo dira, gelako IKT baliabideen erabileraren bidez ikasleen eskumenek zer aurrerapen eta garapen izan duten ebaluatzeko.

# Zientziaren berrikuntzatik hezkuntzaren berrikuntzara. Elkarlanean oinarritutako hezkuntzatik, hiri osasungarri eta segurua eraikitzea RESPIRA proiektua

María Isabel Gómez Jiménez  
hirigintza-arkitektoa eta hezitzailea

Iruñerriko hiriguneko airearen kalitateari buruzko ikerketa bati loturiko hezkuntza-proiektu kolaboratiboa da RESPIRA. Ikerketa hori, hain zuzen, hiri-zientziaren kontzeptuan oinarritzen da, baita eguneroko txirrindulari boluntarioen artean kutsadura-neurgailuak trukatzeko eskema kolaboratiboan ere. Lurralde osoko hamar ikastetxetako nerabeek (DBH eta Batxiler) beren ikastetxeetako ingurunea ikertzeko aukera izan dute. Ikerketen emaitzatik, espazioak eraldatzeko proposamenak eratorri dira, horietako batzuk errealitateari lotuak eta beste batzuk irudimentsuagoak, eremu-ikerketan eta mapa sensorialen lanketan oinarritutako tailerren garapenetik abiatuz. Proposamen horiek guztiak arduradun publikoekin partekatu dira 2017ko ekainean Nafarroako Eskola Kontseiluan egin zen eskola-topaketan.

Eskola-topaketaren laburpen-bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=b-F28pry01A>

Gako-hitzak: ikastetxeen arteko proiektu kolaboratiboa, ingurumen-kalitatea, espazio publikoa, hiri-zientzia, hiritar-heziketa.

## LIFE+RESPIRA ikerketa-programa

2014ko maiatzean Iruñeko airearen kalitateari buruzko ikerketa-proiektua abiarazi zen. Bertan, Nafarroako Unibertsitateko ikerlari gisa parte hartzea egokitu zitzaidan. Zorte aparta izan nuen, hain zientifikoa ez dirudien zerbaitez arduratzeko aukera izan bainuen, nahiz eta, luzera, ingurumena eta gizartea eraldatzeko botere handiagoa izan dezakeen: boluntarioritza, lankidetzatza instituzionala eta hezkuntza.

2017an amaitu zen ikerketa-proiektuan, egunero bizikletaz ibiltzen diren ehun boluntario baino gehiago aritu ziren. Bizikletetan aire-kalitatearen neurgailuak garraiatzea zen haien zeregina, kutsatzaileen (CO, NO, NO<sub>2</sub>, O<sub>3</sub> eta mikropartikula esekiak) neurri iraunkorrak erregistratu eta geolokalizatzeko. Bi urtean zehar bizikletan alde batetik bestera

ibili ondoren eta Iruña eta Iruñerriko kale guztietan milaka milioi neurri erregistratu ondoren, eta datuak tratatzen eta interpretatzen egindako lan izugarri konplexu eta zorrotzari esker, mapa dinamiko bat sortu ahal izan da eguneko 24 orduetan zehar kutsadurak batez beste jasaten duen bilakaera jasotzeko.

<https://www.youtube.com/watch?v=WY1R16Mws5Y>

Hori guztia trafiko motorizatuaren eta hirietako kutsadura atmosferikoaren artean lotura dagoela egiaztatzen. Horrez gain, beste hipotesi batzuk egiaztatu ahal izan dira, hala nola, txirrindulariek, egiten duten esfortzuagatik, oinezkoek baino kontaminazio gehiago arnasten dutela, edo zuhaitzak, espezie batzuk bereziki, gure aliatuak direla, karbonoa eta beste kutsatzaile batzuk finkatzen baitituzte, edo haize nagusien norabideak, hiri-ehunarekin batera (kaleen norabidea, eraikinen altuera eta kaleen zabalera, berdeguneak eta zuhaitzak), erabakigarriak direla atmosfera kutsatzaileen pilaketan edo dispartzioan.

Emitzen laburpena hemen kontsulta daiteke:

[http://liferespira.com/laymans\\_report\\_life+respira.pdf](http://liferespira.com/laymans_report_life+respira.pdf)

## **Hiriguneetako aireari buruzko ikerketarekin loturiko hezkuntza-proiektua**


Nola uko egin, testuinguru hain mesedegarrian, zenbait amets txiki bezain handi garatzeari? Hezkuntza berrikuntzaren aurrerapenari laguntzen uzten du proiektuak, hirien ingurumen kalitatea hobetzen, baita hezkuntzatik gizarte parte-hartzaile eta kolaboratiboa goa eraikitzen ere.

Pedagogia aktiboetara, problemetan oinarritutako ikaskuntzara, eskola-proiektuen garapenera eta zerbitzu-ikaskuntzara bideratutako hezkuntza ereduaren aurrerapen irmoaren garaian, agerikoa zirudien zenbait ikasgairen curriculumaren eta hezkuntza proiektuak barne hartzen dituen ikasleek habitatzen duten hirira aplikatutako punta-puntako zientzia ikerketaren errealitatearen artean lotura ezartzea erabilgarri zela.

Ikerketa-proiektua aurreratuta zegoenean hasi zen ideia-turrusta hori guztia; izan ere, ikasleak eta beren ikastetxeak inplikatzeko hastea zen asmoa. Horretarako, prototipoak (neurgailuak) prestatu ziren, datuen erregistrarako eta tratamendurako sistema doitu zen, eta boluntario taldea bete-betean ari zen lanean. 2015 erdialdean hasi zen hori guztia, nahiz eta oraindik ere datuen tratamendua doitzen eta neurketak egiten jarraitu beharko litzatekeen, hiriko txirrindulariek proiektuarekin hartutako konpromiso boluntarioari eutsiz, hilabete luzeetan zehar, 2017ko maiatzera arte.

Instituzioen babesaren bilaketak ahalik eta ikastetxe gehien inplikatzen nahian du jatorria, metropoliko lurraldearen zati handi bat hartu ahal izateko eta, hartara, lanak hiri osoari eragin ziezaiola lortzeko, baita proiektuaren jarraipena bermatzeko ere, ikerketa zientifikoa amaitu ondoren.

Proiektuaren ideia gogo biziz jaso zen Hezkuntza Sailean eta, batez ere, Roberto Pérez Elorza egungo Zuzendari Nagusiaren partez. Garai hartan Ebaluazio, Kalitate eta Prestakuntza Saileko Zuzendaria zen, eta bizikletan egunero ibiltzen zenez, boluntario izateko zorian egon zen. Horrez gain, nola ez, interes eta adetasun handiz egin zidan harrera Nafarroako Hezkuntza Kontseiluko lehendakaria eta hezitzaile den Aitor Etxartek,



eta interes berezia erakutsi zuen espazioaren kalitatearekin loturiko kontuen eta horren balio hezigarriaren inguruan. Finlandiako Eskoletako Arkitektura eta Hezkuntzari buruzko jardunaldi batean ezagutu nuen. Iruñeko Hegoalde Ikastolako jolastokiaren eraldaketa esperientzia ausart eta arrakastatsua azaldu zuen horietan, eta gaur egun beste kargu bat duen arren, ikastolako zuzendari zen orduan. Proiektuak, beraz, zortea zuen bere alde, horretan lan egiten zuten pertsonak gogo bizia baitzuten.

Azkenik, Iruñerriko Mankomunitatearen hezkuntza programak abiarazi zuen elkarlanari esker, proiektuko ekintzen zati bat Mancoeduca eskaintzan txertaturik geratu da, eta, hartara, beste ikastetxe batzuetara hedatu ahal izan da.

## Lanari ekitea

Zentroen artean proiektua lankidetzan gara zedin eta horren ikerketak eta proposamenek hiri osoari eragin ziezaioten, Iruñeko ILZn irakasleak prestatzeko ikastaro-mintegia egitea izan zen lehen urratsa. Denborak aurrera egin ahala, ezagutza eta esperientziak trukatzeko leku eta topagune bilakatu zen parte-hartzaile guztientzat. Hasierako helburuak hauek izan ziren:

- Irakasleen ezagutza eguneratzea, batez ere zientzia arlokoena, airearen kalitatearen inguruan eta airearen, garraioaren, hirigintzaren eta osasun eta ongizatearen artean hiriko ekosisteman ezartzen diren erlazioen inguruan.
- Gure ingurunea era kritikoan eta hainbat ikuspuntutik aztertzen ikastea, mapa sensorialak eginez, horien bidez, hiriko espazioak hobetzeko irudimenezko soluzioak eskaintzeko gaitasuna garatu dadin.
- Airearen kalitatea neurtzeko gailuen funtzionamendua, datuen erregistroa eta tratamendua, ikertzaileek eta irakasleek soilik eskura dezaketen informazioa kontsultatzeko web plataformarako sarbidea eta kultur zentro eta unibertsitateko boluntariorizan eta gailuen trukaketan oinarritutako sistema ezagutzea.
- Hiriko ingurumen kalitatea hobetzera bideratu diren Iruñerriko politika eta planen inguruko informazioa edukitzea, garraio publikorako, oinezko eta bizikleta bidezko desplazamenduetarako eta, hobekuntza hauek lortzeko, ikastetxeek eta hezkuntza komunitateek egin dezaketen ekarpenerako baldintzekin lotura dutenean bereziki.






- Hezkuntza proiektu kolaboratiboa elkarlanean programatzea, premisa hau zeukan hasierako diseinuan oinarrituz: DBH eta Batxilergoko ikasleak hiri-ikertzaile eta aldateten dinamizatzaile bilakatzea, eskoletatik gertu dauden espazioen kalitatea hobetzeko eta aldaketa horiek auzoetara eramateko.

Hamar ikastetxetako irakasleek hartu zuten parte: Basoko BHI, Elortzibar BHI, La Compasión-Escolapios Ikastetxea, Sagrado Corazón Ikastetxea, Santa Catalina Ikastetxea, Santa Teresa Ikastetxea, Hijas de Jesús Ikastetxea, San Cernin Ikastetxea, Paz de Ziganda Ikastola eta Jaso Ikastola.

Arrakastarako hainbat faktore egon ziren, besteak beste, prestakuntza ikastaroan eta eskola proiektuan ikastetxe bakoitzeko irakasle batek baino gehiagok parte hartu izana; izan ere, geletako proiektuen garapena aberasteko, hainbat gaitatik landu eta hainbat irakasleren arteko lan partekatua bidez sendotu behar da garapen hori. Lan egiteko moduari esker ere, konfiantza estuko harremana egin genuen, lantalde bikaina izan ginen eta gogo biziko hezitzaileen, ikertzaileen eta aldaketa dinamizatzaileen talde handia osatu genuen. Gogo hori, noski, ikasgeletan transmititzen zen, eta ikasle gazteak erakartzen zituen, lanera eta ikasleetara loturiko irakasleen eredu onari esker, batez ere. Irakasle gehienak, proiektuko partaide izateaz gain, boluntario ere baziren. Eta, gainera, ikastetxe bakoitzak lana egokitu eta garatu egiten zuen, curriculumezko edukira moldatuz, proiektua lantzeko baliatzen ziren gai edo gaien arabera. Ez dago proiektuak curriculumera txertatzea baino berme hobea, proiektuen garapenak ez diezaien inolako zama gehigarrikerik ekarri ikasle nahiz irakasleei. Hainbat ikastetxetan, DBHko hainbat mailatan lantzen zen proiektua, eta elkarlanean aritzeko antolatzen ziren. Horren adibide da Santa Teresa ikastetxea: 3. mailako ikasleek ikerketa soziologikoa gauzatzen zuten, 2. mailakoek, ikerketa zientifikoa, eta 1. mailako ikasleek, aldiz, talde eraldatzailea osatzen zuten.

Ikastetxe bakoitzak egokitzat jo zuen saio kopurua programatu zuen, baita beharrezko ziren adarkadurak ere, proiektua aberasteko eta programazio didaktikoen malgutasunak kasu bakoitzean uzten zuenaren arabera luzatzeko. Ikastetxe guztietan gauzatu zen talde-lana, eta eskema komun baten arabera garatu zen proiektua:



- Motibazio-jarduera: unibertsitateko ikertzailearen hitzaldia.
- Airearen kalitatearen eta hiriko ekosistemaren inguruko ikerketa ikasgeletan.
- Ingurunearen behaketarako tailerra, nik diseinatu eta gidatu, irakasleen laguntzarekin, eta mapa sentsorialak egiteko tailerra, irakasleek gidatu, Maushaus diseinuaren arabera.
- Geletako ikerketa, norberaren eta hezkuntza komunitatearen portaeren inguruan: desplazamendu-ohiturei eta segurtasunaren, espazio publikoaren kalitatearen eta hiriko paisaiaren pertzepzioari buruzko inkesta.
- Kaleko ikerketa, etxetik eskolara joateko bideen, ibilbideen eta horietan aurkitzen denaren inguruan.
- Produktu partzialen garapena: ikerketen emaitzak, txostenak, komunikazio materiala, familientzako eta beste hezkuntza maila batzuetako ikasleentzako hitzaldiak, arduradun publikoei zuzendutako gutunak.
- Proiektuaren azken produktuaren garapena: ikastetxeen inguruko espazioak eraldatzeko proposamenak eta horien aurkezpena, arduradun publikoei, eskola topaketa batean.

## Proiektuaren ebaluazioa

Proiektuak garatu ondoren, lanen ondorioak interesgarriak izan dira, eta metodologia errepika daiteke.

Irakasleen iritziz, hezkuntza emaitzak oso positiboak izan dira. Ikasleek gogo biziz lan egin dute, izan ere, ezagutza teorikoen jabetza eta horien aplikazio praktikoa konbinatu dira, *benetako* ikerketa batean parte hartu dute, eta beren proposamenak entzun eta,



kasu batzuetan, aplikatu dira. Horrez gain, proposamenak ikasleek beraiek abiarazteko erantzukizuna hartu dute. Adibidez, Paz de Ziganda Ikastolan, ikasleek beraiek zehaztu dituzte ikastetxera bizikletan joateko ibilbideak, eta ikasle adituenean zailtasun gehien dituztenak animatu eta gidatu dituzte.

Hiriarentzako emaitza nabarmenen artean, hauek aipa daitezke: airearen kalitatearen kabina baten eraldaketa Errotxapeako La Compasión-Escolapios Ikastetxearekin batera (ikasleek osa lezaketen ingurumen eta gizarte arloko boluntario-taldearen kudeaketa garatu behar da oraindik, kabinaren inguruko bisitak eta azalpen zientifikoak eskaintzeko) eta Iruñeko Udalaren lorategi zerbitzuarekin elkarlanean egindako aire garbiaren txokoa; Hijas de Jesús Ikastetxeko ikasleek Txantrea auzoko plazak eraldatzeko egin duten proposamen-multzoa (udaleko auzo-foroan balioetsi dira proposamenak, eta, egun, ikastetxetik gertuen dagoen plazaren berrurbanizazioa aztertzen ari dira udal teknikariak); Iruñeko Udalak bide segurtasuna hobetzeko plana abiarazi du ikastetxeen inguruetan, eta sailen arteko lan-mahaiak (Herri-segurtasuna, Mugikortasuna eta Hirigintza) lanari ekitea erabaki du, Sagrado Corazón ikastetxearen inguruetan, ikasleen azterketatik abiatuz.

## Biblio/Webgrafia

### Proiektuak oinarritzat hartu dituen iturriak

De mi Escuela, para mi Ciudad (Ceneam) programa. Hemen eskuragarri:  
<http://www.mapama.gob.es/es/ceneam/programas-de-educacion-ambiental/de-mi-escuela-para-mi-ciudad/publicaciones.aspx>

Finlandiako Hezkuntzaren Arkitekturari buruzko Jardunaldiak. Informazio guztia eta hitzaldien laburpen-bideoa) hemen eskuragarri:  
<https://www.youtube.com/watch?v=fol8YJ1CcCU&feature=youtu.be>

### **RESPIRA hezkuntza-proiektua**

Hezkuntza-proiektuaren laburpena hemen eskuragarri:

[http://www.liferespira.eu/images/docs/proyecto\\_educativo\\_RESPIRA.pdf](http://www.liferespira.eu/images/docs/proyecto_educativo_RESPIRA.pdf)

Aurkezpen-bideoa hemen eskuragarri:

[https://www.youtube.com/watch?v=GkVbHjqb\\_zl](https://www.youtube.com/watch?v=GkVbHjqb_zl)

### **Ikastetxeetako proiektuen laburpen-bideoa**

La Compasión Escolapios Ikastetxea. Hemen eskuragarri: <http://www.compaciencia.org/2017/06/video-del-proyecto-educativo-respira-life-respira-compasion-escolapios.html>

Hijas de Jesús Ikastetxea. Hemen eskuragarri:

[https://www.youtube.com/watch?time\\_continue=8&v=UR4Vu6FRDHY](https://www.youtube.com/watch?time_continue=8&v=UR4Vu6FRDHY)

# Haurtzaroko lurraldeak, Villatuerta

Asier Urria Ripa  
Villatuertako alkatea

Zirkulazioari irekitako bideetan ibiltzeko eta pertsonen topaketei mesede egiteko moduei dagokienez, hiritarren ohituretan aldaketa eragiteko apustua egiten duten politikak sartzeko beharrari erantzuten dio proposamenak.

Helburu estrategikoak hauek dira:

- Haurren partaidetza.
- Aisialdirako espazioen kalitatea hobetzea.
- Haurtzaroaren Kontseilua sortzea.

Gako-hitzak: haurren parte-hartzea, sormena, haurren lurraldea.

## Espazioak birpentsatzea

Haurrek behin eta berriz esaten digute egungo ekipamendua aspergarria dela. Kanpoan jolastu nahi dute, duela hainbat hamarkada bezala. Lurralde natural, berritzaile eta jasangarria da. Jakin-mina pizten du, eta aurkikuntzari bideratua dago. Faseen arabera eraiki da, era errazean, eta haiek pentsatu eta eraiki dute, beraientzat.

Proiektu zehatz hau abiarazteko helburuarekin hasi zuen prozesua Villatuertako Udalak. Agendarik eta helburu zehatzik gabe, Otzalder parkean garatu zen haurren lurraldea. Gainazal handiko eremua da, eta Osasun Zentroa bertan egoteaz gain, bertatik igarotzen da Irantzu ibaia.

Francesco Tonucci italiar pedagogoarekin proposamen bikainean kokatuta edo oinarrituta dago Villatuertako "Haurtzaroko lurraldeak" proposamena, baita "slow" mugimenduetan ere. Horien bidez, uneaz patxada handiagoz gozatzeko aukera berreskuratzen saiatzen da, eta, batez ere, jolasari bizi elementu gisa balioa ematekoa. Hala ere, funtsean, gizakian oinarritzen da, garapen benetan oso-oso lortzeko.



Iturria: SITNA-Nafarroako Gobernua

Haurren eskubideei buruzko Konbentzioak, Nazio Batuen Biltzar Orokorrek 1989ko azaroaren 20ko 44/25 Ebazpenaren bidez onetsiak, honakoa xedatzen du 31. artikuluan:

1. *Estatu alderdiek aitortzen dute haurrek duten eskubidea, atsedenaldirako eta aisialdirako, euren adinaren arabera jolasetarako eta jolas-jardueretarako eta kultura-bizitzan eta arteetan askatasunez parte hartzeko.*
2. *Estatu-kideek haurren kultura- eta arte-bizitzan osoki parte hartzeko eskubidea errespetatu eta sustatuko dute, eta kultur-, arte, jolas eta aisialdi bizitzan berdintasunez parte hartzeko aukerak emango dizkiete.*

Haurrek jolasteko eta aisialdi-jardueretarako duten eskubidearen aitorten horretatik, sormenaren garapena sustatu nahi izan da proposamen honetan. Ideia edo kontzeptu berriak sortzeko gaitasun gisa ulertzen da sormena, edo ideien eta kontzeptu ezagunen arteko lotura berriak sortzeko gaitasun gisa, egunerokoan soluzio originalak aurkitzeko. *Pentsaera originalaren, irudimen konstruktiboaren, pentsaera dibergentearen* edo *pentsaera sortzailearen* sinonimo da sormena. Zenbait pertsonak beste batzuek baino berezko gaitasun handiagoa dute sortzeko; hala ere, sormena ez da ezerezetik ateratzen, landu egin behar da. Sustatu egin behar da.

Testuinguru horretan, Villatuertan garatzen ari den proiektuaren ibilbidea berrius dezakegu, zenbait mugarri nabarmenduz.

## 2016

Martxoaren 23an, udalerriko familia eta gurasoei aurkeztu zitzaizen proiektua. Martxoaren 29, 30 eta 31n, haurrentzako tailerrak egin ziren helburu hauekin:

- Hurrei modu aktiboan entzutea, eta horien ekarpenak kontuan hartzea.
- Jolasak behatzea, eta haurren gustuak eta interesak antzematea.
- Haurrentzako parke bat diseinatzea, haien desira eta beharretan oinarrituz.

Saioetan, udalerriko 28-40 haurrek parte hartu zuten, eta materiala erabiltzeko arauak planteatu eta jolas libreko jarduerak gauzatu ziren. Asanblada eta saioaren balorazioa eginez amaitzen ziren beti.

Lehen saioko ondorioen artean, saioaren zentzuaren inguruan egiten zituzten behaketak nabarmendu behar dira. Hala, baieztapen hauek egin zituzten:

- Parkearentzako gauzak egin nahi zituzten.
- “Ez gara guztiok kabitzen, haserretu egiten gara”.
- Berdina da beti, gauza gehiago behar dira.
- “Jendeak erre egiten du”.
- Haur nagusienek ez diete jolasten uzten.
- “Osasun zentroan jolasten dugu”.

Ematen zituzten ideia eta proposamenetan zertxobait bideratuta zeudela ikusten da. Berdina gertatu zen balizko parke berriarentzako izenen proposamenarekin: Txiki park, Kids park, Play park, Villa Park, Skate Park, Villalandia, Villaplay, Super Park... Izendapen guztiek alde aurretik pentsatutako ideien eragina zuten.

Makilekin eta haurrek gustuko eta nahi zituzten beste material batzuekin parke bat diseinatzea zen bigarren saioaren helburua. Egiturarik gabeko materialaren bidezko jolasak ideia eta proposamen berriak sortzen lagundu zuen. Irteera bat antolatu zen Villatuertako parkera, jolasak eta guzti. Esperientziaren behaketatik, hau nabarmen zitekeen:

- Guztiak igotzen ziren parkeko piramidera.
- Batzuk anbulatorioaren inguruan jolasten dira: bankuetan, eskaileretan, saltoka, leiho-etako erlaitzetan.
- Asko zabuetan jolasten dira, baina modu librean: txirrista kanpoaldetik igotzen dira, estalduretaraino igotzen dira, uztailen gainetik igarotzen dira, txilipurdika aritzen dira barretan...
- Kulunka gutxi erabiltzen da.

Jarraian, jolasak marrazkietan islatzea proposatu zen, baita egindakoa aurkeztea ere. Behin eta berriz agertzen den elementu bat dago: zuhaitz etxea. Era berean, indar handiz agertzen den elementu bat izendatzen da: labirintoa. Jolasetara zehaztutara gehiago bideratzen diren jolasak daude: skatea eta ping-ponga. Eta, azkenik, herriko antolamendu-elementuekin loturiko eskaera bat dago: bizikletentzako parkinga.

Hirugarren saioan landutako gaiak hauek izan ziren:

- Natura elementuak zituzten parkeak behatzea.
  - Proposamenak egitea.
  - Parke horientzako ekintzak eta proposamenak identifikatzea.
- Proposamen ekintza gisa gustukoak ziren elementuen alde egin zen:
- Egiturarik gabeko materialarekin jolastea.
  - Sartzeko/irteteko jarduerak.
  - Betetzea/hustea.
  - Sailkatzea/multzokatzea.
  - Lotzea/bateratzea.



- Eraikitzea/suntsitzea.
  - Estaltzea/sartzea/ezkutatzea.
  - Igotzea/jaistea, irrist/salto egitea.
  - Eskalatzea.
  - Oreka/desoreka.
- Era berean, elementu bereziki erakargarriak definitu ziren:
- Etxeak/txabolak.
  - Aldapak.
  - Igotzeko, jaisteko eta salto egiteko egiturak.
  - Eskalatzea.
  - Manipulatzeko elementuak.
  - Edukiontziak.
  - Makilak/enborrak.
  - Ura/hondarra.
  - Animaliak.

Hainbat parkeren diapositibak ikusi ondoren, aurreko ideiak osatzeko iruzkinak egin zituzten:

- Enborrak: salto egiteko eta arropa eskegitzeko balio dute.
- Eskalatzeko eta salto egiteko elementuak: ezinbestekoak.
- Hondarra: Gazteluak egiteko gun e isolatua da.
- Mendiak eta uhinak: ezinbestekoak.
- Harrizko "perretxikoak": oso erabilgarriak aireketan eta "suelo-suelo" jolasetan aritzeko.
- Futbol-zelai irregularra: "kroketa" egiteko erabilgarria.
- Eskudela: txilipurdiak egiteko.
- Ura: udarako, eta arrainekin.
- Eskalatzeko piezak: "parkour" egiteko eta ezkutatzeko.
- Loreak: jolasgunetik urrun, zapal ez daitezzen.
- Labirintoa, armiarma-sarea.
- Baratzeak: ez da baratzeentzako leku egokia.
- Eskultura: igotzeko, sartzeko eta ateratzeko, hainbat tamainako zuloekin.





Diapositibak ikustean, ideia horiez gain, ikusten dituzten kontuen aldeko edo kontrako jarrerak sortu ziren, eta beren ikuspegia eman zuten; kasuren batean, hala ere, helduen ikuspegia eman zuten.

Jarraian, ondorioak aurkeztu ziren. Honako hauek nabarmendu daitezke:

- Tailerrean parte hartu duten haurren kopurua oso altua izan denez, saioak gauzatzeko zailtasunak egon dira.
- Helduen munduaren eragina sumatzen da zenbait erantzunetan.
- Bideratu gabeko proposamenak egiten direnean (egiturarik gabeko materialarekin, jolas librea, etab.), askoz ideia irudimentsuagoak sortzen dira.
- Proposamenen gehiengoak haurrak gehien erakartzen dituzten ekintzekin du lotura: salto egitea, igotzea eta jaistea, eskalatzea, lekuetatik igotzea, korrika egitea, ezkutatzea.
- Egunerokoan, mota honetako jolasetan aritzen dira: aireketan, ezkutaketan...
- Ezkutatzeko aukerari dagokionez, bai jolasaren kasua bai helduaren begiradatik ezkutatzearen kasuan, "zuhaitz etxea" elementua errepikatzen dela ikusten da.
- Ezkutatzeko beste elementu batzuk ere badaude, hala nola, labirintoa. Era berean, erro antropologiko handiko elementua da, kultura guztietan errepikatzen dena.

Urriaren 22an, lehen auzolana egin zen familia eta hurrekin. Urtean zehar, hiru auzolan egin dira guztira.

## 2017

2017ko udal-aurrekontuan kontu-sail zehatz bat sartu zen partaidetza planeko ondorio eta eskaerekin bat zetozen inbertsioak gauzatzeko.

Beste jarduketa batzuen artean, martxoan eta apirilean hainbat bilera egin ziren gurasoekin parkea planifikatu eta prestatzeko. Eta hiru jarduketa nabarmen landu ziren:

- 2017-05-24 zuhaitz etxearen instalazioa.
- 2017-06-20 oreka ibilbidearen instalazioa.
- 2017-09-20 oinezkoentzako zein txirindularientzako pasealekua urbanizatzeko lanak.



## Eta orain zer?

Parkearen beraren eraikuntza aukera aparta da hainbat belaunaldiren arteko auzolanean lan egiteko; izan ere, proiektuetan parte hartzen denean, errespetu handiago izaten zaio, ondoren, eraikitakoari.

Bestalde, hori guztia natura-elementuekin gauzatu daiteke (enborrak, zura, hondarra, harriak), haurren behar motorrak eta jolaserako beharrak asetzen laguntzeko.

Parke berriak diseinatzeko, profesionalen laguntza garrantzitsua dela ikasi dugu (udal arkitektoak, beste arkitekto batzuk, dekoratzaileak, kanpo-diseinuetan adituak, etab.).

Amaitzeko, "Hautzaroaren Kontseilua" sortuz gero, Fano (Italia) hirian egin den bezala, bildu diren proposamenak edo balizko ideia berriak errazago bideratuko liratekeela esan beharra dago. Halako kontseilu batek, era berean, herriko egunerokotasuneko kon-tuetan lagun dezake, hala nola, bizikletentzako aparkaleku baten eskaeran.

Proiektuari buruzko informazio gehiago lortzeko jo Villatuertako Udalaren atari digitalera: <http://www.villatuerta.org/es/>